

HEZKUNTZA KOOPERATIBAK KOOPERAZIOA HEZKUNTZAN

EGILEAK: Agurtzane Martinez, Xabier Arregi, Ainara

Artetxe, Ahots Lejardi, Mariam Bilbatua eta Ana Usabiaga

Aurkibidea

0. Proiektuaren sorrera

I ATALA. IKUSPEGIA

1. Ikaskidetzaren testuingurua.

1.1. Gizartearen bilakaerak hezkuntzan duen eragina

1.2. Erronkei erantzuteko norabidea

1.3. Ikaskidetzaren balioa Euskal Herriko Hezkuntza Sistematan

1.4. Ikaskide Proiektuaren ildo eta eragin eremu nagusiak

1.5. Ikaskidetza konpetentzien garapenerako tresna

1.5.1. Konpetentziak definitzeko markoa

1.5.2. Ikaskidetzaren oinarrizko konpetentziak garatzeko tresna

2. Ikaskide: Hezkuntza Proiektu Kooperatiboa.

2.1. Ikaskidetzaren oinarri psikopedagogikoak

2.1.1. Zer da Ikastea?

2.1.2. Ikaste prozesuak garapen gisa

2.1.3. Gela elkarbizitzarako espazioa

2.1.4. Gelatik haratago eraikitzen den prozesua

2.2. Irakaslearen rola

2.2.1. Gelan ongizate pertsonala eta kolektiboa garatzea

2.2.2. Gelako ikaste prozesuei buruzko jarrera aztertzailea garatzea.

2.2.3. Irakaslea ikaste prozesuaren bitartekaria

3. Oinarrizko printzipioak praktikara eramateko bideak eta estrategiak

3.1. Ikaskidetzaren printzipioen zehaztapena gelan

3.1.1. Ikaste prozesuaren diseinua ikaskidetza testuinguruetan

3.1.2. Ikaste prozesua antolatzeke sekuentzia

3.1.3. Ebaluazioa

4. Formazio eta eraldaketarako markoa: Ikasare

4.1. Aholkularitza ereduaren bereizgarriak.

4.1.1. Ereduaren Kontzeptu nagusiak

4.1.2. Aholkularitzaren gako nagusiak

4.1.3. Aholkularitza ereduaren antolaketa

4.2. Formazioaren antolaketa.

II. ATALA. ESPERIENTZIAK

5. Sarrera
6. Elikadura, osasun eta gozamen iturri!. Azpeitiko Ikastola
7. Ibilbide historikoa Orion. Orioko Herri Ikastolako esperientzia
8. Industrializazioa. Itxaropena Ikastola
9. Ate irekiak. Ikasle protagonista lehenengo pertsonan. Ibaizabal Ikastola
10. Publizitate kanpaina. Eleizalde Ikastola

III. ATALA AHOlkularITZA ETA FORMAZIOA

11. Aholkularitza eta formazioa
 - 11.1. Aholkularitza eta formazio estrategiak
 - 11.2. Aholkularitzaren ezaugarriak eta printzipioak
 - 11.3. Aholkularitzaren antolaketa eta erabilitako estrategia orokorrak
 - 11.4. Aholkularitzaren faseak eta fase bakoitzaren helburuak
 - 11.5. Hastapeneko fasearen aholkularitza. Aholkularitza prozesuaren adibidea.

IV. ATALA EKARPENAK

12. Ekarpinak

BIBLIOGRAFIA

ERANSKINAK

0. Proiektuaren sorrera

Esku artean duzun liburuan azaltzen den proiektuaren abiapuntuan, bi erakunderen xede komunak identifikatzeko eta erronka estrategiko bateratua garatzeko asmoak azaltzen zaizkigu. Alde batetik, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak egindako gogoeta estrategikoan, Prestakuntza Kooperatiboa sustatzeko beharra identifikatzen da, eta gogoeta horren haritik ERKIDE Hezkuntza Kooperatiben Federazioak **IKASKIDETZA** (“Ikaskide Taldeetan” eta kidetzan garatzen den ikaskuntza) bultzatzeko garrantzia azpimarratzen du, 2007ko Dekretuari egindako ekarpenean.

Beste aldetik, gogoetetan identifikatutako printzipioak eta lan ildoak izaera kooperatiboa duten ikastetxeetan sustatzeko asmoz, IKASKIDE TALDEAK proiektua jarri zen abian 2009-2010 ikasturtean. Urte berean, ERKIDE Hezkuntza Kooperatiben elkarteak eta HUHEZI Fakultateak hitzarmen bat izenpetu zuten, proiektua garatzeko helburuarekin.

Ikastetxeetan izandako esperientzietan sakontzeko asmoz, HUHEZI Fakultateak hainbat ikerketa proiektu osatu ditu: “Ikaskidetzan oinarrituta eta sarean eraikiz, bitzta osorako eta guztiontzako ikaskuntzarako eredu metodologiko integratzailea. (IKASARE)” (2012), “Ikaskidetzan eta sarean (IKASARE) eraikitako formazio ereduan oinarritutako praktika komunitatea osatzeko prozesuaren eraketa, inplementazioa eta ebaluazioa. (SAREKIN)” (2013) eta “Eskolako ikaste eta berritze kultura sustatuko duten langileen kompetentzien garapenari zuzendutako prozesuaren eraketa inplementazioa eta ebaluazioa. (KULTUR-SARE)” (2014). Proiektu horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso dute, hurrenez hurren.

Ikaskide proiektua martxan jarri zenetik, 19 Ikastetxetan ezarri dira Ikaskide Taldeak. Ikastetxeekin egindako lanetan eta garatutako esperientzietan oinarritzen da liburu honetan agertzen den materiala.

1. Assa Ikastola (La Puebla)
2. Orereta Ikastola (Orereta)
3. Inmakulada Ikastetxea (Tolosa)
4. Salvatore Mitxelena Ikastola (Zarautz)
5. Bihotz Gaztea (Santurtzi)
6. Elgoibarko Ikastola (Elgoibar)
7. Ibaizabal Ikastola (Durango)
8. Lea Artibai Ikastetxea (Markina)

9. Azpeitiko ikastola (Azpeitia)
10. Laudio Ikastola (Laudio)
11. Itxaropena Ikastola (Trapagaran)
12. Asti Leku Ikastola (Portugalete)
13. Eleizalde ikastola (Bermio)
14. Txantxiku ikastola (Oñati)
15. Lautada ikastola (Agurain)
16. Orioko Herri ikastola
17. Seber Altube ikastola (Gernika- Lumo)
18. Pasaia-Lezo Lizeoa
19. El Regato ikastetxea (Barakaldo)

Proiektuaren bilakaeran garatzen joan diren zenbait kontzepturen esanahia

Ondorengo lerroetan azaltzen diren kontzeptuak proiektuaren eremu eta eragin eremuak hobeto azaldu ahal izateko garatu ditugu. Nahiz eta beraien arteko elementu amankomunak izan, proiektuaren alderdi zehatzak azaltzeko elementu baliagarriak bilakatu dira urteetako prozesuan.

Ikaskide Proiektua. Proiektua izendatzeko hautatutako terminoa izan zen. Izen honekin ondorengo azpimarratu nahi zen: ikasteko prozesuan ez gaude bakarrik, kideez inguratuta gaude (berdinkideak, irakasleak...) eta beraiekin eta beraiei esker ikasten dugu.

Ikaskide Taldeak edo Talde kooperatiboak. Ikaskide Taldeak izenean kooperazioan ikasteko estrategiak laburbiltzen dira: gela antolatzeko moduak, elkarlana bideratzeko estrategiak...

Ikaskidetza. "Ikaskide Taldeetan" eta kidetzan garatzen den ikaskuntza. Ikaskide proiektuak Ikaskidetza hartzen du ardatz. Hezkuntza prozesuetan parte hartzen duten kideen arteko elkarlana, xede partekatu bati bideratua eta partaide guztiek aintzakotzat hartzen dituen ikaste prozesuak, alegia.

Ikasare. Aholkularitza ereduari egiten dio erreferentzia. Elkarrekin eta sarean ikastetxeko proiektua eta irakasleriaren garapen pertsonala eta profesionala sustatzen dituen ereduak, alegia.

I. ATALA. IKUSPEGIA

1. IKASKIDETZAREN TESTUINGURUA

Gaur egungo gizartearen bilakaerak aldaketa nabariak ekarri ditu gizarte antolakuntzan eta herritarren bizimoduan. Pertsonen arteko harremanak, munduarekiko harremanak eraikitzekeo tresnak, lan harremanak... etengabe ari dira aldatzen, eta horrek Hezkuntzan ere aldaketak egitea eskatzen du, ezinbestean.

Atal honekin hasteko, zenbait datu azalduko ditugu gizartearen aldaketek zer norabide duten irudikatzekeo; ondoren, aldaketek sortzen dituzten erronkak identifikatuko ditugu, eta, bukatzekeo, kooperazioak erronka horiei erantzutekeo eskaintzen dituen gako nagusiak azalduko ditugu.

1.1. Gizartearen bilakaerak Hezkuntzan duen eragina

Gaur egungo gizartearen ezaugarri nagusiak etengabeko aldaketa eta konplexutasuna dira; eta horren isla ditugu azken urteotan esparru gehientsuenetan izan ditugun aldaketa (aldaketa sozialak, ekonomikoak, demografikoak...) nabarmen eta azkarrak. Horren guztiaren adierazle batzuk aipatzearen, Ongizate Estatuaren krisia, lan merkatuaren prekarizazioa, emakumea lan munduan txertatzea eta horrek eragindako aldaketa sozialak (famiaren antolaketan, haur eta zaharren zaintzan...), esparru juridiko berrien agerpena, eta bazterketa eta gizarte marjinazio modu berrien agerpena aipatu daitezke.

Globalizazioaren inguruko narrazio eta irakurketak askotarikoak dira, baina ukaezina da gaur egungo testuinguru globala eta, beraz, Globalizazioa dela gizartearen egituraketaren ezaugarri nagusia:

- Ekonomia ageri zaigu sistemaren erdigunean: gaur egungo ekonomiaren eredia da lan merkatuan arauak inposatzen dituen.
- Politikan, deszentralizazioa gertatzen ari da Estatu-nazioen boterean, eta, ondorioz, orain arte Estatuak jokatu duten papera ahultzen ari da.
- Hainbat bazterketa prozesu sortzen ari dira, eta horrek eragina du gizarte harremanean eta dinamikan; izan ere, bestelako baldintzetan dauden hainbat pertsona eta kolektibo gizartetik at gelditzen dira. Prozesu horiek oztopoak dira komunitate izateari eta sentitzeari eta herritartasunari begirako hainbat eskubide eta betebeharrak bermatzeko.
- Gizartearen desartikulazioa eta haustura soziala handitzen ari dira, eta indibidualismoa gailentzen ari da.

Jarraian, testuinguru globalean eta horrek hezkuntzan duen eraginen eszenatoki orokorrean kokatzeko, eragin gune nagusiak aipatuko ditugu, labur-labur:

- Krisia Hezkuntzaren gidaritzan: arriskuen gizarteak krisian jarri ditu helduarora eta bizitza aktibora igarotzeko erreferente izan direnen (familia, eskola, lana) gidaritzak.
- Identitaterik eta segurtasunik eza: herritartasuna airean geratzen da, norbere testuinguruan errotzeko dauden zailtasunak eta ziurgabetasunak direla eta.
- Zibilizazioen arteko talka: merkatu bakarrak modu inplizituan dakar bateratze teknologikoa, komertziala eta abar. Horren ondorioz, desagertzen ari dira herrien eraikuntzaren eta bizikidetzaren oinarrian dauden sare eta egitura produktiboak, komertzialak eta kulturalak.
- Deslokalizazio kulturala: belaunaldien arteko harremana deuseztatu da. Horrek sozializazio eragileen (familia, eskola, lantegia, komunitatea, politika,...) eta lotura afektibo, sozial eta kognitibo ororen etena ekarri du. Eta horren aurrean, diruak eta merkatuak hartu dute tradizioen, ideologiaren eta balioen lekua belaunaldi berriengan.
- Kapital soziala: deslokalizazioaren eta IKTen erabileraren poderioz, lan merkatua kolokan jarri eta enplegu egonkorra desegin da, eta areagotu egin da lehiakortasuna. Horren ondorioz, zalantzan dago hezkuntza sistemari egozten zaion kualifikazio funtzioa. Orain, deslokalizazio ekonomikoarekin, globalizazioaren ondorioak kudeatzea dagokio, hala nola, gizarte kohesioaren, gizarteratzearen eta politika inklusiboagoen bitartez eta gizarte kapitala eratuz, erresistentzia lokala egin eta ahaleginak koordinatzeko.
- Merkatuaren beharrei erantzutea lehenesten da, hezkuntza eskubideetan oinarritu eta ongizatera bideratutako hezkuntza politikak sustatu eta indartu ordez.

1.2. *Erronkei erantzuteko bidea*

Erantzun integrala eman behar zaie globalizazioak eragindako desabantaila egoerei, belaunaldi berriek beren testuinguruan errotzeko dituzten zailtasunei eta helduarora igarotzeko oztopoei; eta horrek garapen eredu berria eraikitzekeo premiaren aurrean kokatzen gaitu.

Arizmendiarrietak argi ikusi zuen gerora sistemen teoria berriek zein konplexutasunaren teoriak baieztatu dutena: gizarte garapena fenomeno kolektiboa dela, eta ez fenomeno indibiduala. Prozesu errotua dela eta sinergia, kapital sozial, gobernagarritasun eta sareko antolakuntza handia duten gizarte

eta lurraldeekin lotuta dagoela. Hitzok aintzat hartuz, beharrezkoa dakusagu garapenaren aldeko lanean, hazkuntza ekonomikoaren aurrean, pertsonak eta berauen beharrak nahiz komunitateko beharrak ardatz gisa hartzeak lehentasuna izan beharko lukeela adostea.

Herria subjektu hezitzailetzat hartzen dugu, eta hor kokatzen ditugu hauren eskubideen bermeari buruz komunitateko eragileek duten erantzukidetasunaren eta partaidetzaren printzipioak.

Pertsonen eta gizartearen garapena prozesu kolektibotzat, eta ez prozesu indibidualtzat, hartzeak ondorioz dakar pertsonen eskubideak bermatu, beharrei erantzun eta horiek komunitateko kide gisa garatzeaz gain, komunitateko beharrak ere ardatz gisa hartu beharko liratekeela. Hezkuntza eskubideak gauzatzera eta pertsonen nahiz gizartearen garapena gure identitate ikurrekin lotutako lurralde eta markoan kokatzera garamatza horrek guztiak.

Testuinguru horrek, beraz, erantzukidetasun eta partaidetza printzipioetatik abiatuz, gizarte kohesioan, konpromisoan, elkarlanean, aukera berdintasunean eta ekitatean oinarritutako erantzunak behar dituzten erronka berrien aurrean jartzen gaitu:

- **Herritarrak eta herria protagonista eta subjektu gisa irudikatzea:** komunitateak bere burua eraikitzeko duen gaitasuna aintzatetsiz eta esanahi partekatuetan oinarritutako egitura komunitarioak eraikiz.
- **Parte hartzea gauzatzea:** norbanakoek eta kolektiboek erabakitze prozesuetan ahotsa izateko eskumena, gaitasuna eta aukerak sortzea.
- **Elkarlanean eta lankidetzan oinarrituta lan moldeen beharra:** bai inplikazioak bai parte hartzeak aurretik pertsonen eta taldeen arteko konexioa behar dute. Horretarako, ezinbestekoa da interes edo behar komunak eta osagarriak, erantzukizun sozialerako balio berberak dituztenak, aitortzea.
- **Norberaren kulturaren eta hizkuntzaren alde egitea:** oinarri kulturalak – mitoen eta kulturaren tradizioa, baserriko kultura, hizkuntza, munduaren ikuskera eta ideologia– gordetzea, ondo kudeatzea, oinarri horien arabera gaur egungo egiturak eraldatzea eta etorkizuna proiektatzeko erabiltzea.

Erronka hauek Hezkuntza Sistemak bereak egin beharko lituzke. Alegia, gure herritik egindakoa, gure inguruneko errealitate sozial eta hezitzaile anitzei irekia, eskubideen bermea ardatz, inklusio eta berrikuntza irizpideak garatzea ahalbidetu beharko luke eta ingurunearekin zein kolektiboki adostutako euskal identitatearen garapenarekin konprometituta egongo den curriculum ereduaren gainean eraikia izan beharko luke.

1.3. Ikaskidetzaren balioa Euskal Herriko Hezkuntza Sistematan

Erronka horiek aintzat hartuta, kalitatezko hezkuntzaren beharra azpimarratzen da, kalitatea bazterketarik eza ziurtatzeko elementu gako gisa ulertuz. Hots, hezkuntza kalitatezkoa izango da, baldin eta pertsona guztiei bermatzen bazaizkie bitzta sozialeko alderdi guztietan parte hartzeko aukera emango dieten kompetentzia praktikoak eta gaitasunak eta horrela ziurtatzen bada ikaskuntzara eta bitzta aktibora iragateko programetara sartzeko aukera berdinak edo ekitatiboak izango dituztela. Ikasle bakoitzak bere gaitasun, potentzialtasun eta aukerak ahal bezainbeste garatu behar ditu, eta horretarako behar dituzten zerbitzu, bide eta bitartekoak eskaini behar dira: horrek lotura zuzena du ikastetxeetan hori ahalbidetzen duten testuinguruak sortzearekin. Ikasle guztien garapena, ikaskuntza eta partaidetzarako hezkuntza erantzunak erraztu eta ahalbidetzen dituzten espazio sozialak sortzea eskatzen du horrek.

Hargreaves eta Shirley-k (2012) azpimarratzen dutenez, Kalitatezko Hezkuntza sistemek ikuspegi inklusiboa garatu dute hezkuntzaren zereginari eta gizartean bete behar dituen funtzioei buruz egindako hausnarketan. Ikuspegi horrek, alde batetik, kohesioa ematen dio sistemari, eta, beste aldetik, gai da partaide guztien inplikazioa lortzeko.

Testuinguru horretan, denok garatu beharko genuke ezagutza modu eraginkorrean sortu eta erabiltzeko gaitasuna, etengabeko eraldaketa oinarrien gaitetik; horretarako, beharrezkoa izango dugu herritar aktibo gisa behar dugun autonomia garatu nahi eta ahal izatea (EUR-OP, 1999 In Domingo, J., 2003). Eredu horren baitan, ikaskuntzarako oinarrizko gako bihurtzen dira aurre hartzea eta parte hartzea.

Eszenatoki anitzak aurreikusi eta egoera berriei aurre egiten ikastearekin lotzen da **aurre hartzea**; eta, horretarako, ekintzarako bidean hainbat alternatiba eta ondorio baloratzeko gai izatea, eta hainbat erantzun aktibatzea. **Parte hartzeak**, berriz, elkarrekin, elkarlanean, elkarrizketan eta eztabaidan oinarrituta egitea esan nahi du.

Ezaugarri horiek, beraz, dezente aldentzen dira irakaskuntzan ardazturiko ikaskuntza prozesuetatik, non aurreikuspena egokitzapenarekin lotzen den eta parte hartzea onarpenarekin. Batetik bestera dagoen alde horrek gidatu beharko luke hezkuntza berrikuntza oro (Martínez, 2011).

Ikasle guztien ikaskuntza beharrei erantzun ahal izateko, beharrezkoa ikusten dugu metodo didaktiko-pedagogiko egokiak erabiltzea eta ikasle taldearen aniztasunari erantzutea, ikasteko testuinguru egokiak, hau da, ikasle guztien

ezagutza garatzera bultzatuko duten egoera-arazoen diseinura eta prestakuntzara bideratutako irakaslearen figurarekin. Azken batean, ikaskuntza indibiduala eta kolektiboa, eta beronen erabilera produktiboa erraztuko duten testuinguru/egoera/eszenatokien eraikuntzarekin lotuta legoke (Hopkins, 2000).

Gizarte eta komunitate ekimeneko hezkuntza erakunde edo kooperatiba gisa, gizartearen eraldaketa kooperatibotzat (edo eraldaketa komunitariotzat) jotzen dugun horren oinarriko balio eta printzipioak sustatu beharko lituzke hezkuntzak: hala nola, gizarte kohesioa, konpromisoa eta partaidetza, elkarlana, aukera berdintasuna eta ekitatea, eta norberaren kulturaren eta hizkuntzaren alde egitea.

Beraz, *Ikaskidetzan* oinarritutako Hezkuntza proiektua proposatzen dugu, pertsonaren garapena (ezagutza, jarrerak, harremanak, lankidetz...) elkarrekintzaren bidez eraikitze helburuarekin. Bai eskolan bai gelan komunitateetan antolatzen gara hazteko eta hezteko. Vygotskyren pentsamenduari jarraituz, besteen beharra dugu; bestearekin elkarrekintzan hazten gara, hezten gara eta eraikitzen dugu gure ikaste prozesua.

1.4. Ikaskide Proiektuaren ildo eta eragin eremu nagusiak

Ikaskidetzak hezkuntza ulertzeko hautu eta esparru berritzailearen proposamena da, hezkuntza kooperatibotik abiatuta eraikitako ibilbidetik hezkuntza ulertzeko eta gauzatzeko testuinguru berria. Beste era batera esanda, ikasle guztien ikaste prozesua hobetzeko helburua duen eta elkarrekin eta kooperazioan ikastea ardatz duen berrikuntza proiektua da *Ikaskide*; bere eragin eremua, halaber, ez da gelara mugatzen. Berrikuntza hori gertatu dadin, ezinbestekoa da irakasleekin lan egitea; horrela, *Ikaskidetik* irakasleen begiradan eragin nahi da, izan ere, begirada horren lanketak aukera emango digu haurra eta ikaste-irakaste prozesuak beste ikusmolde batetik lantzeko.

Ikaskidetzak ikasteko prozesuari buruz jarrera sortzailea sustatzen du, eta ikasten ikasteko konpetentziaren garapenerako funtsezko eszenatokia bihurtzen da. *Ikaskidetzak* sortzen dituen harreman egiturak elkarrekin bizitzera eta ikaste esperientzia elkarrekin gauzatzera darama, era berean; hau da, jakintzak sortzeko jarduera eta testuinguru sozialetara. *Ikaskidetzak* oinarriko konpetentziak garatzeko testuinguru aukeratzat hartzen da, eta horretan sakontzeko aukera izango dugu hurrengo ataletan.

Eskolaren eta irakasleen errealitatetik abiatuta diseinatzen den prozesua da, eta konpetentzietan hezten duen eta ikasle guztien ikasketa hobetzen duen eskola

lortzea du helburua. Gertuko errealitateari erantzun nahian, etengabe hobetzen, eraldatzen eta berritzen duten eskola autonomoak, alegia.

Halaber, ikasgelatik at egon badaude beste ikaste eremu batzuk ere, non garrantzizko ikaskuntza esperientziak sortzen diren jaiotzen garenetik hil arte, esaterako, kalean, herrian, aisialdirako espazioetan, etab. Beraz, eremu horiek guztiak ere kontuan hartu beharko lirateke. Horrek, ondorioz, lurraldean, komunitatean, pentsatzera garamatza. Eskolarekin harremanak garatuz, komunitate konprometitu bat, parte hartzailea eta erantzukizunak hartzen dituen irudikatzen dugu. Komunitateko kideak gaitzen eta prestatzen dituen, gizartean berrikuntzak eragiten dituen, erakunde eta eragileekin batera. Hau da, lurraldearen baitan hainbat osagai aintzat hartzen dituen: giza kapitala (ezagutzak, trebetasunak, gaitasunak); balioak partekatzen dituen eta elkarlan, elkartrukean eta konfiantzan oinarritutako gizarte kapitala; eta gizarte egoerak aldatu eta hobetzera bideratutako gizarte berrikuntza. Pertsonen, gizartearen eta herriaren garapena eta ongizatea xede hartuta, betiere.

Ondorioz, zera esan dezakegu, eskolaren eta beste ikaste eremuen arteko loturak estua, dinamikoa edo bizia izan behar duela; eta baita estrategikoa ere. Baina, eremu eta erpinen arteko lotura edo elkarlan hori lankidetzan oinarritutako lan moldeetan gauzatzea beste biderik ez dago, komunitateko partaide guztiek, bizitzako aro eta garai guztietan kalitatezko heziketa edukiko dutela eta bizi kalitatean eta ongizatean hobekuntzak egingo direla, garapen pertsonal, sozial eta komunitarioa bultzatuko dela, desberdintasun sozialak desagertuko direla eta justizia soziala egongo dela bermatzeko.

1.5. Ikaskidetzak konpetentzien garapenerako tresna.

Aurreko ataletan aipatu dugunez, gaur egungo gizartearen aldaketak pertsona bere osotasunean begiratzea eskatzen dio Hezkuntza Sistemari; ezagutza baino haratago gaitasun pertsonalak, sozialak eta profesionalak garatzea, alegia. Beraz, gaur egungo Hezkuntza Sistemen zehaztapenen oinarritzko atal bat izan ohi da, ondorengo gaiak biltzen dituen: Derrigorrezko Hezkuntzaren bukaeran ikasleak zer gaitasun mota garatu beharko lituzkeen definitzea, konpetentziak lantzeko marko metodologiko egokiak sustatzea eta ebaluazio sistemak eduki berrien ikaskuntzari egokitzea. Atal honetan, Konpetentzien garapenerako Ikaskidetzak ematen dituen aukerak azaldu nahi ditugu. Atalari hasiera emateko, konpetentzia terminoaren inguruko azalpen labur bat egingo dugu; ondoren, Ikaskidetzak konpetentzien garapenera egiten dion ekarpena azalduko dugu, eta, bukatzeko, Konpetentziak garatu ahal izateko ezinbestean kontuan eduki behar ditugun irizpide metodologikoak identifikatu eta definituko ditugu.

1.5.1. *Konpetentziak definitzeko markoa*

Konpetentziaren terminoak ibilbide eta tradizio luzeagoa badu ere, gaur egun, dimentsio berri bat hartu du, bereziki ELGA erakundeak (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak, gaztelaniaz OCDE) 2003an DeSeCo (gaztelaniaz Definición y Selección de Competencias fundamentales) izenaz ezagutzen den dokumentua argitaratu ondoren. Dokumentua erreferentzia nagusitzat hartuta hasi dira hainbat herrialdetan (ELGAren esparruan kokatutako gehienak) eskolako curriculumak birformulatzen, konplexua den baina, era berean, aukera handiak dituen konpetentzia kontzeptuaren bueltan.

Euskal Autonomia Erkidegoa ez da mugimendu horretatik kanpo geratu. Aipagarria da, batetik, hezkuntza eragileek elkarlanean egindako ekimenetik sortutako “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren” proposamena. Berau jasotzen duen dokumentuan, konpetentzia terminoari dagokionez, hezkuntza xedeen eta hezkuntza konpetentzia orokorren nozioak edo atalak bereizi eta elkar osatzen dira: “hezkuntza xedeek ezin dute, besterik gabe, eskolaldi osorako irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan jarraitu beharreko urrats zehatzak zehaztu, izaera globala eta orokorra dutelako. Beharrezkoa da helburu horiek ikasketa konpetentzia eta ikaskuntza espezifiko bihurtzea (...)”. Hezkuntza konpetentzia orokor hauek zenbat eta gehiago garatu, orduan eta gehiago bermatuko da Hezkuntzaren xedeen lorpena (derrigorrezko eskolaldian):

- Pentsatzen eta ikasten ikasi.
- Komunikatzen ikasi.
- Elkarrekin bizitzen ikasi.
- Norbera izaten ikasi.
- Egiten eta ekiten ikasi.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, aurreko ekimen horri laguntzeaz gain, bere bidea egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezarri zuenean (175/2007 dekretua). Dekretuan, eta konpetentzia terminoari dagokionez, Oinarrizko Hezkuntzaren Xedeak jasotzen dituen atala bereizten da, batetik, eta Hezkuntza gaitasun orokorrak definitzen dira, bestetik. Azken horiek “*Hezkuntza osorako nahiz oinarrizko hezkuntzarako ardatz erreferentzialak dira*”. Dekretuak, horiez gain, Oinarrizko gaitasunak bereizten ditu batetik (“*Testuinguru edo egoera askotarikoek eskatutako jakintza, trebetasunak, jarrerak eta balioak konbinatzean datza*”), eta, Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak bestetik, “*Hezkuntza-gaitasun orokorrak oinarri hartuta (...), betiere oinarrizko gaitasunei erreparatuta*” zehazten direnak. Dekretuak dioen bezala, “*Oinarrizko*

Hezkuntzako prozesu osoa bideratzeko erreferentzia ardatzak dira hezkuntza gaitasun orokorrak. Halaber, Europar Batasuneko erakundeen aburuz, gaitasun giltzarriak dira herritar guztiek lortu beharreko helburu komuna, eta, ondorioz, horiek landu behar dira hezkuntza etapa komun eta derrigorrezkoan”.

Bistan da konpetentzien terminoaren zehaztapenak askotariko interpretazioak eta moduak hartu direla euskal hezkuntza sistemaren dokumentu erreferenteetan. Beraz, konpetentzien esanahian aurrerapausoak ematea eta proposamen berrietan horien ulermenerako eta aplikaziorako proposamenak egitea komeni da. Bide horretan kokatzen da proiektu honetan garatzen ari den proposamena.

Aipatutako DeSeCo txostenean horrela definitzen da konpetentziaren ideia: *“eskakizun konplexuei erantzuteko eta askotariko lanak behar bezala egiteko ahalmena”*. **Konpetentzia giltzarri** esapidea erabiltzen du, eta konpetentzia bakoitzaren ezaugarriak bereizi eta hiru dimentsio edo kategoriatan sailkatzen ditu: tresnak modu interaktiboan erabili, talde heterogeneoetan elkarri eragin eta modu autonomoan aritu.

Oro har, pertsonak garatu beharreko ahalmen modura ulertzen ari gara konpetentziak, eta jakintza eta trebetasunetatik haratago doan ahalmen integratu eta holistikotzat hartzen ditugu, testuinguru zehaztutan sortzen diren egoera konplexuei erantzuteko modu eraginkorrean erabilitako ahalmentzat, hain justu.

Dena dela, beharrezkoa ikusten dugu, konpetentzien esanahian sakontzeko asmoz, horiek duten zentzua eta zeregina zein den eztabaidatu eta adostea. Zentzu horretan, oso baliagarria iruditzen zaigu konpetentziek zer ezaugarri dituzten zehazten joatea. Oso modu egokian jasotzen ditu Pérez-ek **konpetentziak izan behar dituen ezaugarriak** (Pérez Gómez, Cantabriako txostena, 15. orrialdea):

- **Izaera holistikoa eta integratua:** ezagutzak, trebetasunak, balioak, jarrerak eta emozioak ezin dira modu berezian ulertu.
- **Izaera testuinguratua:** konpetentziak hainbat ekintza testuingurutara lotuta zehazten eta garatzen dira.
- **Dimentsio etikoa:** konpetentziak etengabe elikatzen dira gizabanakoek bizitzan zehar eskuratzen dituzten jarrera, balio eta konpromisuez.
- **Transferentziaren izaera sortzailea:** transferentzia testuinguru bakoitzari egokitutako prozesu sortzaile bat bezala ulertu behar da.

- **Izaera hausnarkorra:** konpetentziek hausnarketa prozesu etengabeak behar dituzte, testuinguru bakoitzak eskaintzen dituen aukerak intentzioekin harmonizatzeko.
- **Izaera ebolutiboa:** konpetentziak bizitza osoan zehar garatu, hobetu, hedatu edo okertu eta murrizten dira.

Aurreko puntuan esandakoaren harira, konpetentzia gizabanakoaren ahalmen holistikoren, integratuaren, etikoaren, ebolutiboaren eta etengabeko hausnarketaren parametroetan kokatuta ulertzen dugu. Eta zentzu horretan, oinarritzko konpetentziak **konpetentzia giltzarri** modura ulertzen dira, bai konpetentzia espezifikoak, jakintza arloen baitakoak, diziplinartekoak edo oinarritzkoak, bai hezkuntzaren xedeak garatzeko ezinbesteko konpetentziak. Alegia, oinarritzko konpetentziak beste era bateko gaitasunak lortzeko giltza edo bide dira. Bizitzaren arlo, eremu eta egoera guztietan beharrezkoak diren konpetentziak izanik, hezkuntza testuinguru eta prozesuetan erreferente eta helmuga izango diren konpetentzia modura, azken finean.

1.5.2. Ikaskidetza oinarritzko konpetentziak garatzeko tresna.

Ikasteko, beraz, beharrezkoa da bizitza esperientzia aberatsak eragingo dituen ikaste testuinguru aproposak sortzea. Ikuspegi horretatik uler daiteke ikaste prozesuak eta horietan lan daitezkeen konpetentziak estuki lotuta daudela testuinguru egokienetan besteekin elkarlanean gertatzen den gizabanakoaren garapenarekin.

Ikaskidetzan aritzeak, beraz, aipatutako konpetentzia giltzarri horien garapena sustatzeaz gain, hezkuntza erakundeetan eraldaketa prozesuetarako beharrezkoak diren oinarriak ezartzen dituela ere esan daiteke. *Ikaskidetzaren* ikuspegitik, elkarrekin ikastea eta elkarrekin bizitzea konpetentziak bere baitan har dezakete –eta baita aberastu ere– giltzarri modura izendatu diren besteak, hala nola, *komunikatzen ikastea, norbera izaten ikastea eta egiten eta ekiten ikastea*:

- **Ikaskidetzaren bidez “ikasten ikastea” konpetentzia garatzea.** Elkarrekin ikasteak bizikidetzari begira duen garrantzia azpimarratu nahi da bereziki. Izan ere, ikaste prozesuen inguruan garatzen dira eskolako esperientzia gehienak eta esperientzia horiek aukera ematen dute elkar ulertzeko, laguntzeko eta gatazkak ebazteko bideak esperimintatu eta modu sistematikoan lantzeko. Lankidetzak (Ikaskidetza ikaste testuinguruetan) ikaste prozesuan duen garrantzia azpimarratzen da hezkuntza arloko erakunde eta adituen iradokizunotan. Horrela jasotzen du, esate baterako, Delorsek “hezkuntzaren lau zutabeak” txostenean (UNESCO erakundearentzat egindako Delors txostena, 1996):

“Komenigarria izango litzateke hezkuntzari bi orientazio osagarri ematea. Lehenengo mailan, pixkanaka bestea ezagutzea. Bigarrenean, eta bizitza osoan zehar, proiektu komunitan parte hartzea... Hortaz, eskola hezkuntzak, nahikoa denbora eta aukera eskaini behar ditu bere programetan gazteak oso txikitatik lankidetzan proiektuetan ikasten hasteko” (Delors,1999:100)

Izan ere, ikasten ikastearekin erlazionatutako alderdiak –ulermenean oinarritutako pentsamendua, pentsamendu sortzailea, pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzea, arazoak konpontzea, baliabide kognitiboak erabiltzea...– elkarrekintzen bidez hobeto sustatzen direla esan daiteke: *“competencia necesaria para organizar y regular el aprendizaje, en solitario y en grupos; para adquirir, procesar, evaluar y asimilar nuevas piezas del saber; y para aplicar estas competencias en una variedad de contextos, incluyendo la resolución de problemas y el aprendizaje en casa, en la formación/educación, en el trabajo y en la sociedad.” (Comisión Europea, 2002).* Komunikatzen ikasi konpetentziaren garapena sustatzeko aukera ere ematen dute ikaskidetzan testuinguruek, elkarrekin ikasten denean, entzuten, galdetzen, argudiatzen, eztabaidatzen ikasten baita. Bestalde, *ekintzailetasuna* konpetentziaren garapenarekiko baldintza egokiak ezartzen ditu ikaskidetzan testuinguruak: informazioa hartzea eta gordetzea, ideia berriak eta konponbideak lantzea, ideiak gauzatzea, inpaktuaren ebaluazioa:

“Ekimen ekintzaileak, alderdi horretatik, alderdi bat du aktiboa eta beste bat pasiboa: norberak aldaketak egiteko joera, baina baita kanpoko faktoreek ekarritako berrikuntzari ongietorria eta babesa emateko trebetasuna, aldaketak onartuz eta norberaren ekintzen erantzukizuna hartuz, bai positiboena bai negatiboena; hasitakoa amaitzea; nora goazen jakitea; helburuak finkatzea eta horiek bilatzea, eta arrakasta lortzeko motibazioa edukitzea”. (Europar Batzordea, 2002)

- **“Elkarrekin bizitzea” konpetentzia.** Ikaskidetzaren kultura eta balioak sustatzen dituzten konpetentzien garapenarekin duen konpromisoa islatzen da *elkarrekin bizitzen eta lan egiten* konpetentziaren bitartez. Besteak beste, pertsonarteko harremana, parte hartze demokratikoa, elkarlana eta talde lana, gizarte bizikidetzarako arauak, aniztasuna eta arazoaren ebazpena konpetentziak garatzea du helburu: *“Elkarrekin bizitzen ikastea, bestea ulertzea eta elkarren menpekotasuna ulertzea, proiektu komunitan parte hartuz eta gatazken azterketari eta konponbideari lotutako gaitasunen garapenaren bitartez, bestea ulertzeko nahia oinarri hartuta betiere.” (Delors, 1999)*

Bestalde, Oinarrizko konpetentzien lanketa bideratzeaz gain eremu akademikoa zein bizitzako beste esparruak batera lantzea ahalbidetzen du

Ikaskidetzak. Ikaskide Taldeen teoria eta praktika garatu duten autore desberdinak bat datoz ondoko printzipioak identifikatzerakoan: Taldeak helburu komuna izatea, aurrez-aurreko komunikazioa, elkarmenpekotasun positiboa eta banakakoen erantzukizuna.

Ondoren egingo dugun Ikaskidetzaren Oinarrizko printzipioen bana-banako aurkezpena baliatu nahi dugu aipatutako lan bateratuaren aukerak irudikatzeko.

- **Helburu komuna:** ikaskide guztiek helburu berbera izan behar dute Ikaskide Taldeetan. Hots, denon partaidetzaren bidez, azken ekoizpena lortzea da taldekide guztiek eduki beharko luketen helburua. Helburu komuna eraikitzeke bidean, alderdi hauek landu eta garatuko ditu ikasleak:
 - *Taldearen izaera/identitatea eraikitzea.* Taldearen identitatea norbanakoen identitateak ezagutzera eraikitzen da. Norbanakoa taldean zer izan daitekeen hausnartzeko aukera ematen du.
 - *Empatia,* bestearen lekuan jartzea eta egoera bestearen ikuspegitik aztertzea. Horrek guztiak gogoeta dakar, izan ere, era askotako iritziak ezagutzeko aukera ematen du, eta baita norberarentzat egokiak diren azalpenekin guztiak bat ez datozela ikusteko ere.
 - *Emozioak* manejatzen jakitea. Norbera ezagutzea eta norberaren eta besteen emozio egoerak ulertzea.
 - Ikaskidetzan arrakastaz aritzeak **Aurrez aurreko komunikazioa** garatzea eskatzen du, eta, aldi berean, aukera ematen du aipatutako konpetentzia garatzeko. Ezagutza partekatzeko, beharrezkoa da: bere burua besteei azaltzea, besteak entzutea, besteen egoeretara egokitzea, gatazken kudeaketa positiboa egitea...
 - *Negoiazioa eta komunikazio irekia:* elkarlanean aritzen garenean, elkarrengandik dauden elementuak eduki behar ditugu kontuan: norbanakoa-taldea; Ikaste-irakaste testuinguruan, ikaslea-taldea-irakaslea. Elementu horien arteko negoziatioa eta komunikatio ezinbestekoak dira, xedeak modu berean irudikatzeko, batetik, eta prozesuan sor daitezkeen gatazkek modu positiboan kudeatu ahal izateko, bestetik.
- Gatazkek identifikatzeko eta konponbideak eraikitzeke aukera ematen du Ikaskidetzan aritzeak. Hala nola: *gatazkaren osagaiak eta interesak identifikatzea; adostasun eta desadostasun eremuak identifikatzea; arazoa testuinguruan kokatzea; beharrak eta xedeak prozesu osoan zehar indartzea.*

- *Kooperazio trebetasunetan entrenatzea*: Ikaskide Taldeak arrakasta edukitzeko, ezinbestekoa da kooperazio edo gizarte trebetasunetan entrenatzea. Taldean aritzeak ez dakar, automatikoki, elkarlanean aritzen ikastea. Talde lanean ari gaitzke eta benetako elkarlanarekin zerikusirik ez duten trebetasunak garatu: besteen lanaz baliatu, lanetik inhibitu... Horregatik da garrantzitsua kooperazio egoeretan trebatzea eta esperientziak izatea.
- **Elkarmenpekotasun positiboa**: Johnson, Johnson eta Holubecek (1999) adierazten duten bezala, kide bakoitzaren lorpena taldearen lorpenari lotuta dago, eta alderantziz, ikasleak besteen beharra du bere helburuak lortu ahal izateko. Zereginen egituraketaren bidez jabetuko da behar horretaz: bakoitzak zereginaren atal baten ardura izango du, baina elkarmenpekotasuna benetakoa izan dadin eta ez bakarkako lanen batuketa soila, beharrezkoa izango da talde gisa haratago joatea, ikasle bakoitzak eta guztiek egin dituzten lanen arteko erlazioak identifikatzea eta bakarkako lanen batuketa gaindituko duen zerbait berria ekoiztea.

Elkarmenpekotasun positiboa eraikitzeke erabiltzen diren eta ezinbestekoak diren estrategiak: rolen banaketak eta kudeaketak, zereginen banaketa keta kudeaketak, lanaren kudeaketak, denboraren kudeaketak norberaren ezagutza eta autonomia ahalbidetzen dute, eta, aldi berean, prozesuaren autorregulazioa eta taldeko erregulazioa bultzatzen dute.

- Elkarmenpekotasun positiboak *Autonomia eta autoerregulazioa* dakar: taldeak autonomia izango du, bai zereginaren norabidea hautatzerakoan, bai gatazkak bideratzean eta auto- eta ko-ebaluazio prozesuetan.

Elkarmenpekotasun positiboak informazioa partekatzea eskatzen duenez, informazioaren konpetentziaren garapenean laguntzen du. DeSecok aipatzen dituen konpetentziak, alegia.

- Informazioaren konpetentzia beharrezkoa da egon daitezkeen aukerak identifikatu ahal izateko, eta ezinbesteko oinarria da, halaber, erabaki hausnartuak hartzeko. Ezagutza modu esanguratsuan erabiltzeko, beharrezkoa da:
 - Dakiguna eta ez dakiguna identifikatzea.
 - Informazio iturri egokiak identifikatzea.
 - Informazioaren egokitasuna identifikatzea.
 - Ezagutza eta informazioa antolatzea.

- Era berean, beste ardatz bat **bakarkako erantzukizuna** da. Helburu komuna lortzeko banakoak bere konpromiso eta ardurak hartu eta beteko ditu, helburu komunaren lorpenari begira betiere; norberak egiten duenak edo egiten ez duenak besteengan eragina duela jakinik. Ardatz hau bete gabe oso zaila litzateke elkarmenpekotasan positiboaren ardatza betetzea, ezinezkoa ez esatearren. Beraz, ardatz hau bermatzeko, Elkarrekin Ikasten Ikasi kompetentzia garatzen dugu. Ildo berean, aurrez aurreko komunikazioaren ardatza ere elkarrekin ikasi kompetentziarekin lotzen da, ezin baita elkarrekin ezer eraiki komunikaziorik ez badago, eta komunikazio eraikitzailea, sortzailea, sortuko da ikaste prozesua elkarrekin egin nahi bada. Ardatz honetan, kompetentzia hauek landuko ditu ikasleak: konpromisoak betetzea bai zereginei dagokienez bai rolei dagokienez.

2. IKASKIDE: HEZKUNTZA PROIEKTU KOOPERATIBOA

2.1. *Ikaskidetzaren oinarri psikopedagogikoak*

Ikaskide proiektuak elkarrekin ikasteko beharra azpimarratzerako orduan ikaste prozesuaren inguruko hainbat autoreren ekarpenak erabiltzen ditu oinarri gisa, ondorengo azpiataletan jasotzen dira gure proiektuaren oinarrian dauden autoreak eta haien ekarpen nagusiak.

2.1.1. *Zer da ikastea?*

Ikaskidetzaren ikuspegitik, ikastea estuki lotuta dago gizabanakoaren garapenarekin, eta, ezinbestean, giza interakzioaren bitartez gauzatzen den prozesu modura ulertzen da.

Vygotskyk ere aspaldi ikertu eta ondorioztatu zuen ikaste prozesuak eta gizabanakoaren garapena bereizezinak zirela, eta elkar elikatzeko faktore garrantzitsuena egiten jakitean kokatu zuen, hain zuzen ere. Claxtonek (1987) ere gizabanakoaren garapenean jartzen du indarra ikastearen esanahia eta zeregina zein den adierazten duenean: “cómo las personas llegamos a hacer más, a saber más y a ser más de lo que éramos” (Claxton, 1987). Ikastea, beraz, estuki lotuta dago gizabanakoaren garapenarekin, eta giza interakzioaren bitartez gauzatuko da, ezinbestean, ikaste bizitzan esperientzia aberatsak izateko ikaste testuinguru aproposak sortuz.

Ikuspegi horretatik uler daiteke ikaste prozesuak eta horietan landu daitezkeen kompetentziak estuki lotuta daudela testuinguru egokienetan besteekin

elkarlanean gertatzen den gizabanakoaren garapenarekin. Konpetentziaren ikuspegi horretan kokatzen dira Ikaskidetzaren filosofia eta jarduteko moduak. Elkarrekin pentsatzeko, ikasteko eta bizitzeko hezkuntza testuinguruak eta ikaste-irakaste prozesuak sustatuz ahalbidetzen dira pertsonak garatuko dituen ahalmenak.

Era berean, azken hamarkadetan neurozientzien eta pertsonen ikaskuntzarekin erlazionaturiko abangoardiako ikerketen ezagutzak ere bateratzen dituzte konpetentziek. Esparru horretan, ikasteaz ari garenean jakintzaren sormenari buruz ari gara (Sawyer, 2004a), ez erreproduzioari edo asimilazioari buruz. Ikasleek sakoneko ulermena garatzera garamatza horrek (Sawyer, 2004a), jarrera aktiboaren, autonomiaren, konpromisoaren eta arduraren bitartez beren ikaskuntza prozesua eraikitza, eta soilik jarrera horiek guztiak aktibatzen diren testuinguruetan gertatzen edo garatzen da ikasketa (Hernández, 2010). Memoriaz haratago, identitatean eta parte hartzean eragiten duen ikaskuntzaz ari gara.

Pérez Gómezek (2007) konpetentzien araberako ikuspuntuaren printzipio pedagogikoekin bat egiten dugu, aurreko lerroetan aipatutako begiradarekin beti ere. Pérez Gómezek identifikatzen dituen printzipioen artean badago printzipio bat geure proposamenarekin modu zuzenean bat egiten duena: “Berdinen arteko lankidetzaz lehen mailako estrategia didaktikoa da”. Ikaskidetzaz ari garenean elkarrekin eta modu kooperatiboan gertatzen den ikaskuntza prozesuaz ari gara. Ikaskidetzaz izango delarik lehen mailako estrategia eta oinarrian dagoena.

2.1.2. Ikaste prozesuak garapen gisa

Ongizate pertsonalaren eta talde/gelaren ongizatearen bila

Orain arte garatutako printzipioak aintzat hartuta, IKASKIDE proiektuak sustatutako prozesu pedagogikoen oinarritzko kezka da haur bakoitzaren nortasunaren ezaugarriak, haien testuinguru sozial eta kulturala eta desirak, interesak zein kezkak zentzurik sakonenean aztertzea eta ezagutzen saiatzea; hartara, antzemandako behar eta kezka indibidual eta kolektiboek egoki zaizkien elkarbizitza esparruak eskaini ahal izango zaizkie, eta ikaskuntzako testuinguru eta esperientzia aberatsak eta zentzudunak sustatu ahal izango dira, xedetzat dutenak gelan egiten denaren eta ulertu nahi denaren esanahia aurkitzea.

Ikuspegi horretatik, haurren nortasuna eta ezagutza garatzeko beharrezko oinarritzat eta mamitzat jotzen da ongizate pertsonala eta kolektiboa. Eta, ildo horretan, funtsezkoa da eskainitako ikaste aukerek honako hauek ahalbidetzea:

- Gelan dugun haur bakoitzaren garapen pertsonala lortzea. Garapen horrek norbere buruaren ezagutza du oinarritzat, horrek elikatzen baitu etengabe; gainera, mesedegarri zaizkio guk haurrekin ezartzen ditugun harreman eta lotura afektiboak, zeinak oinarrituta dauden maitasunean, interesean, itxaropenean, konfiantzan eta haien esku utzi eta nahita nahiz etengabe garatutako erantzukizunean.
- Taldea/gela eskolan zein gelan elkarrekin bizi diren pertsona talde gisa ikasi eta garatu nahi duen gizarte taldeztat eratzea.
- Modu naturalean eskolako haurren aberastasun kultural eta soziala bilatu, agerian jarri eta nabarmenduko duten ikaste eta elkarbizitzako testuinguruak sortzea.
- Prozesu pedagogikoetan modu aktiboan parte hartuz haurrei euren kezak eta desirak garatzeko aukera emango dieten hezkuntza esperientziak gauzatzea.

Hortaz, eskolan eta gelan sortzen diren lotura emozionalak aintzat hartzea funtsezko eginkizuna da, ongizate indibidual eta kolektiboa lortzen direla bermatzeko. IKASKIDE proiektuan uste dugu ezinbestekoa dela eskolako bizitza eta prozesu pedagogikoak ildo horretan planifikatu eta antolatzea, hau da, elkarbizitzarako eta ikaskuntzarako giro egokia sustatuz eta bermatuz, non lotura afektiboak sortu eta garatzen diren, ulertu egin behar ditugunak horien arabera jarduteko; izan ere, horrelako giroan eraikitzen dira garapeneko eta ikaskuntzako prozesuak. Giro horren ezaugarriak dira konfiantza eta haur guztien gaitasun zein ezaugarrien aintzatespen benetakoa.

Eta giro hori sortzeko, beharrezkoa da haurren bizitzak aztertzea, eta gogoeta egitea bizitza horiei buruz, eskolan eta eskolatik kanpo dituzten bizipenen esanahiari buruz, haurren ikaste eta garapen prozesua testuinguru biografiko zabal batean kokatzeko, batetik, haurra osotasunean ulertu behar dugulako, eta bestetik, Eskola zerbitzu publikotzat jotzen dugulako.

Azken batean, IKASKIDE proiektuak sustatzen dituen ikaste testuinguruek eta prozesu pedagogikoek honako hauek ahalbidetzen dituzte:

- Haurrengana/ikasleengana naturaltasunez eta berariaz hurbiltzea, eta, modu horretan, esku hartzeko eta haiekin erlazionatzeko moduak identifikatu eta ezartzea.
- Haurren/ikasleen emozioak, sentimenduak, ideiak, asmoak eta gaitasunak ulertzea, horiek zilegitzat jo eta balioesteko eta, bide horretatik, haien garapena ahalbidetzeko, ekintza pedagogikoen bidez eta ekintza horietan haurrekin ezarritako harremanen bidez.
- Elkarrizketa bidezko azterketa prozesuak erabiltzea: hainbat funtziotako komunikazio prozesuak, xedetzat dutenak haurrak hobeto ezagutzea, bakarka ez ezik, baita talde gisa ere. Haien asmoak, erronkak, nahiak eta desira pertsonalak ezagutzeko komunikazio prozesuak, baina baita haien artean sortzen diren lotura sozial eta afektiboak ezagutzeko eta ulertzen saiatzekoak ere.

Aniztasuna ikaskuntzaren eragile gisa eta inklusiora bideratua, guztiontzako aberastasun eta aukera iturri gisa.

IKASKIDE proiektuak sustatzen dituen proposamen pedagogikoak planifikatu eta garatzeko, aintzat hartzen dira haurrek adierazi eta maisu-maistrek ekintza pedagogikoaren bidez edo naturalki sortutako egoeren bidez identifikatzen dituzten interes, desira eta behar ugarien arretak berekin dakartzan interesa, konpromisoa eta erronka. IKASKIDE proiektuak sustatzen dituen bizitza eta ikaste testuinguruek, pedagogikoki erabilia, ikasle guztiei ematen diete garatzeko eta ikasteko aukera, garapen indibidual zein kolektiborako esperientziak sustatzen baitituzte; esperientzia horiek zerikusia dute haurrek/ikasleek testuinguru horietan gelan egoteko, pentsatzeko, jarduteko eta bizitzeko dituzten moduekin, eta maisu-maistrek aprobetxatu egiten dituzte horiek, euren proposamenetan sartuta.

Horretarako, funtsezkoa da ikasleek “testuen” bidez (esandakoaren bidez, keinuen bidez, irudikapenen bidez...) adierazten dituzten argudioak, begiradak eta ikuspuntuak aintzat hartzea, gelan ikasteko esperientzia aberastuko duten bizipenak planifikatzeko eta sustatzeko. Bizipen horiek haurren interesei lotuta garatzen dira gelan, baina baita maisu-maistren interesei lotuta ere, eta, halaber, gelako bizitzak garatoki duen mundu erreal, aberats eta konplexuari lotuta, ezagutu eta ulertu nahi den mundu kulturalari lotuta, alegia. Iritzi, sentimendu,

interes, desira eta pentsamenduen aniztasuna faktore garrantzitsua da, eta taldeari izaera eta nortasuna emateaz gain, aberastu ere egiten du; gelako ikastea eta bizikidetzaren sustatzen dituen eragilea da, horiei zentzua ematen diena. Gainera, Eskolan dagoen pentsamendu, ikuspegi eta jarrera aniztasunak ongizatea sortzen du, maisu-maistrek, naturalki eta nahita, arlo pedagogikoan erabiltzen baitituzte begirada horiek guztiak gelan, eta zilegitasuna ematen baitiete. Hartara, guzti-guztiak onartzen eta balioesten dira, balio baitute ikasle bakoitzak, bere begiradaren eta gainerakoaren arteko komunikazioaren bidez, ezaugarri aberasgarritzat hartzeko desberdintasuna; hau da, ulertzeko taldea aberasten duela eta, gainera, zentzua ematen diola gelako ikasteari, etengabe atzeraelikatzen diren esperientzia kulturalak sortuz.

Hala, IKASKIDE proiektuak sustatzen dituen praktika pedagogikoek funtsezko aztergaitzat dituzte pixkana-pixkana eratuz doan ikaste komunitate zabal hori osatzen duten pertsona guztien ahotsak eta pentsamenduak.

2.1.3. Gela elkarbizitzarako espazioa

Ikasteari buruzko gure ikuspegiak jaso dugunez, ikasten duen subjektua harreman sistema bat da: bere buruarekin ditu harremanak, baita gainerakoekin eta bera partaide duen proiektu kolektiboarekin ere. Hala, gela errealitate sozial gisa ulertzen da, eta pertsona talde horretan, topikoetan bat egiten duten askotariko ideiak, pentsamenduak, desirak, jardunbideak eta erlazionatzeko moduak daude; loturak ezartzen dira zuzentasunean, gizarte justizian, partaidetzan, elkartasunean eta antzeko beste balio batzuetan oinarrituta, eta balio horiek taldearen nortasuna eta ezaugarriak zehazten dituzte, eta komunitate sozial eta kultural gisa garatzen dute taldea. Gelako ahots guztiak aintzat hartzen dituen komunitatea da, non kontuan hartzen diren, halaber, hurbileko gizarte arloko kanpo ahotsak eta beste ahots kultural zein historiko batzuk, urrunekoagoak, aberastu egiten dutenak komunitatea, mundua ikusteko eta ulertzeko beste modu batzuetara irekiz begirada nahiz pentsamendua. Azken batean, bere ekintzen bidez sustatutako interakzio sozialari esker kulturalki pixkanaka aberasten den komunitatea da; ekintza horiek praktika sozialak dira, eta IKASKIDE proiektuak kooperatiboak izatea nahi du.

Hala, praktika sozialen bidez etengabe eraikitzen ari den errealitate sozialtzat hartzen da gela. Horrela, gelako ikasteari zentzua ematen zaio, eta horrez gainera, eraikuntza sozialeko prozesu horrek pertsona eta taldea aberasten ditu. Era berean, prozesua lagungarria da taldeari nortasun soziala eta kulturala emateko. Eta, gainera, gela gure ekintza pedagogikoaren entitate sozial primariotzat hartzen badugu ere, gure ustez ikastetxeak ere eskaintzen ditu eraikuntza sozial hori indartzeko espazioak eta uneak. Ikuspegi horretatik,

IKASKIDE proiektuak sustatzen dituen prozesu pedagogikoek prozesu sozialen bidez eratuz doan komunitatearen nortasuna garatu nahi dute, prozesu horietan sortu eta bilakatzen diren loturak indartuz. Lotura horiek zehazten dute, hain zuzen ere, komunitatearen nortasuna, eta haren garapena ahalbidetzen dute.

Denboran zehar jarraitutasuna duen garapen prozesu bat da, eta bertan ikasleek parte hartzen dute, kultura sortzaile gisa, maisu-maistrek sustatutako praktika pedagogikoen bitartez. IKASKIDE proiektuaren arabera, ezagutza prozesu kulturaletatik eratortzen da, prozesu horiek pertsonak historian zehar garatu dituzten eraikuntza prozesuetatik hartuta. Eta haurrek eraikuntza kultureko prozesuko protagonista aktibo direla senti dezaten, gure ikuspegitik funtsezkoa da gelan interakzio soziala sustatuko duten prozesu dialogikoak sustatzea eta laguntzea. Eta interakzio sozial horretan, oinarritzkoa da interakzioaren bidez sortu eta bilakatzen diren lotura emozional eta afektiboak aztertzea eta aintzat hartzea, interakziorako arauak bultzatuz eta kudeatuz, hala nola entzutea, argudiatzea, asmoak aintzat hartzea, hainbat baliabide erabiltzea... Arau horiek gelako kulturen sartzen dira pixkanaka, erregulazio prozesu errekurtsibo batean, eta pertsonen artean loturak sortzen dituzte, interakzio sozialeko testuinguru horretan elkarriketa erabiliz. Eta ekintza arautzeko balio dutenez, baldintzatu egiten dute gelak ingurune sozial gisa irekitzeko duen aukera.

Gela komunitate sozial, dinamiko, konplexu eta moldakortzat jotzeak zerikusia du hezkuntzari eta eskolako praktikei ematen diegun zentzu humanista eta kritikorekin. Hezkuntza kritikoa eta humanista, Eskolan eta geletan garatutako jarduera sozialaren bidez gizartea eraldatu nahi duen neurrian.

Freirek esandakoari jarraituz (ibid.:123), eginkizun humanista eta askatzailatzat hartzen den hezkuntza, ezagutza ekintza bat baita, eta ez *“ezagutzaren transferentziarako ekintza hutsa”*. Azken batean, bizitzarako heziketa, baina gure mundua ulertuz bizitzen irakatsiko duena, eta hura eraldatzeko nahiez, norbera eraldatuta. Morinek (2010: 83) aldarrikatu moduan, heziketak lagungarria izan behar du *“pertsonen autoformakuntzarako (giza izaera ikastea eta onartzea, bizitzen ikastea) eta herritar izaten ikasteko”*.

Baina hezkuntzaren ikuspegi humanista eta kritikorekin horrek zerikusia du, halaber, interakzio sozialari haurren garapen eta ikaskuntzaren faktore kausal gisa ematen diegun garrantziarekin (Perret-Clermont, 1984). Zerikusia du, azken batean, hezkuntza prozesuen izaera ulertzeko moduarekin, prozesu konplexuak baitira, elkarri onartutako komunikazio harremanek dinamizatzen dituztenak eta gizakiaren garapena sustatu nahi dutenak, haren autonomia arduratsua. Asensiok (2010: 110) dioenez, *“autokontzientzia, autonomia pertsonala, herritartasun sentimendua eta garapen etikoa sustatzera bideratutako hezkuntza”*.

2.1.4. Gelatik haratago eraikitzen den prozesua

Azaldu dugun ikaste prozesua gelatik haratago eraikitzen da, izan ere, gelan egingo denak testuinguru jakin batean hartzen du zentzua; horregatik, Ikaskidetza testuinguruak sortzeko gelan erabiliko ditugun estrategiak eraginkorrak izango dira, baldin eta oinarrian dauden printzipioak eta ikasteko eta lan egiteko ikuspegiak koherenteak baldin badira. Beharrezkoa izango da, beraz, ikaslea garatu eta garapen horri eutsi diezaion, gelan egiten den lanaz gainera beste eremuetan ere modu koherentean lan egitea. Testuinguruko beste eremuetan egon beharko luke kongruentziak, hala nola:

- ✓ ikastetxearen antolaketa (malgutasun maila, hierarkia maila, parte hartzea...),
- ✓ ikastetxean eraikitzen diren harremanak (elkarlana, errespetua, onarpena, entzute aktiboa, horizontaltasuna...),
- ✓ espazio fisikoaren antolaketa (“gela irekiak” elkarrekintza bideratzeko, kanpo espazioaren erabilera),
- ✓ ordutegia edo denboraren antolaketa,
- ✓ komunitatea eta elkarrekintza sortzaile eta eraikitzailea,
- ✓ hezkuntza eragileekin elkarlana eta sareen eraikuntza (etengabeko joan etorrian),
- ✓ beste hezkuntza komunitateekin sareak eta elkarrekintzak.

Laburbilduz edozein pertsonak ikas dezan, nahitaezkoa da testuinguru konplexuetan, elkarrekin, egitea eta ongizatea bermatua izatea. IKASKIDETZAK ikasteko nahitaezkoak diren adierazle horiei erantzuten die.

2.2. Irakaslearen rola

Ikasle guztien ikastea hobetu ahal izateko, Ikaskidetzan eta norbanakoaren gaitasunetatik abiatuta eraikitako ikaste testuinguruak eskaini beharko lituzke irakasleak. Irakasleriaren ikuspegia aldatzeaz gain, gertuko errealitateari erantzun egokiena eman nahian taldean eta sistematikoki hausnartzen duen irakaslea behar da horretarako. Hau da, bere jardunaren bitartez taldean gogoeta egiten duen irakaslea, eta, ikasleen ikastea hobetzea helburu izanik, etengabe eraldatu eta berritzen den irakaslea.

2.2.1. Gelan ongizate pertsonala eta kolektiboa garatzea

Aurreko atalean aipatu dugunez, ongizate pertsonala eta kolektiboa bilatzea printzipio bat da, baina baita jarrera bat ere, eta laguntza prozesuan adierazten da, maisu-maistrek gure praktika pedagogikoaren bidez izaten dugun *eraginean*. Laguntza horrek oinarritzat ditu elkarbizitzaren eta ikaskuntzaren hainbat une eta testuingurutan haurrengana/ikasleengana hurbiltzeko beharra eta asmoa, haurrak ezagutzen eta ulertzen saiatzeko; hartara, haien garapen pertsonala, soziala eta kulturala babestuko duten moduak eta jarrerak ezagutuko ditugu, eta garapen horretan eragingo dugu.

Ongizate horrek jatorritzat ditu jakiteko desira eta ikertzen aritzeko emozioa, beste pertsona batzuekin kooperazio testuingurutan aztertzen aritzeko emozioa; izan ere, ezinbestekoa da eskolako esperientzien eta testuinguru horietan garatutako prozesu pedagogikoen emoziozko izaera kontuan hartu eta azpimarratzea, prozesu horiek lotura baitute taldekoa izanik hedatu eta atzera elikatu egiten den abentura baten emozioarekin.

“Ikasle-irakasleen arteko erlazioa aldatzen da menpekotasun jerarkia hori malgutzen da eta klasea askoz dinamikagoa eta partehartzartzailea bihurtzen da”.

Assa ikastola

2.2.2. Gelako ikaste prozesuei buruzko jarrera aztertzailea garatzea

Hezkuntzaren ikuspegi kulturaletik, gela ikaste komunitate dinamiko, konplexu eta moldakortzat jotzen dugu, eta, horregatik, Edwardsek eta Merceerrek dioten moduan (ibid.: 183), gelan gertatzen diren prozesu sozialak eta kulturalak hobeto ulertzeko, funtsezkoa da maisu-maistrek jarrera aztertzailea garatzea. Jarrera horri esker, maisu-maistrek ulertuko dute zergatik *“jarduera pedagogikoen baitan tentsioa sortzen den bi alderdi hauen artean: haurrak kultura ezarri eta aurrefabrikatu baterantz bideratzeak eskatzen duena eta etengabe bilakatzen ari den kultura ez-aurrefabrikatu bateko partaide sortzaile eta autonomoak garatzeak eskatzen duena”*.

Jarduteko eta pentsatzeko askatasun esparruetan garatzen diren partaidetzazko prozesuak, eta, Griffin eta Colek adierazten duten moduan (Wells, 2001: 183), komunikazio prozesuak, elkarrizketa sustatzen dutenak *“haurraren eta haren etorkizunaren artean; ez baita haurraren eta heldu baten iraganaren arteko elkarrizketa”*.

2.2.3. Irakaslea ikaste prozesuaren bitartekaria

Ikaslea prozesuaren ardatza izanik, irakasleak egoera malguak, testuinguratuak eta interaktiboak sortu behar ditu, eta egoera horien inguruan ikasleen hipotesiak eraiki, deseraiki eta eraldatzeko espazioak sortu behar ditu; horretarako, ikasleen ahotsak entzun eta errespetatuak izango direla ziurtatu behar da.

Niretzat oso garrantzitsua da planifikazioa, helburu bat izatea materialak prestatzeko. Orduan (ondorioz) nire rola aldatu egin zen modu naturalean, pasatu nintzen gidari, gidari, laguntzaile, kezkak sortzen direnean konpontzen laguntzera” Itxaropena Ikastola

“Hasieran ez nekien ondo zer egin. Denek zeuden lanean eta batzutan inpresioa neukan soberan nengoela, benetan ikasten ari dira pentsatzen nuen. Hori izan zen nire kezka hasieran. Prozesuaren bukaeran egindako ebaluazioan ikusi nuen emaitza onak lortzen zituztela baina hasieran hori izan zen nire kezka. Ikasten ari dira? Nire interbentziorik gabe ikasten ari dira?” Itxaropena Ikastola

“Orokorrean onartzea biharko begiratuko duzula. guztion ardurua dela sortzen den kezka konpontzea eta ez irakaslearena bakarrik, horrek nire ustez, elkarbizitza errazten du eta konflikto gutxiago sortzen dira irakaslearekin, beste harreman mota sortzen da” Itxaropena Ikastola

3. OINARRIZKO PRINTZIBIOAK PRAKTIKARA ERAMATEKO BIDEAK ETA ESTRATEGIAK.

Atal honetan, orain arte landutako marko metodologikoaren oinarriak eta adibidetzat eman daitezkeen eskoletako esperientziak azaldu nahi ditugu, argi baitauek egindako ibilbideak kalitateko eskola eraikitzeke printzipioak eta estrategiak eskaintzen dituela eta edozein ikastetxerentzat baliagarria izan daitekeela.

3.1. Ikaskidetzaren printzipioen zehaztapena gelan.

Aurreko ataletan azpimarratu da zein diren oinarrizko kompetentziak lantzeko Ikaskidetzak eskaintzen dituen aukerak. Besteak beste Ikaskidetzaren printzipioak bermatuz gero kompetentziak lantzen baititugu ezinbestean. Era berean, printzipio bakoitzak oinarrizko kompetentziekin duen lotura zehazteko aukera izan dugu. Atal honen helburua izango da printzipio bakoitza zertan ezaugarritzen den eta gelaratzeko zer estrategia metodologiko ditugun azaltzea.

Horrela bada, ondorengo lerroetan orientabide metodologiko orokorrak proposatzen ditugu, Ikaskidetza testuinguruak konpetentzien lanketarako eskaintzen diguten testuinguru paregabea azpimarratuz eta onartuz eta funtsezko estrategia didaktiko-metodologikotzat hartuz.

3.1.1. Ikaste prozesuaren diseinua ikaskidetza testuinguruetan.

Hasteko, Ikaste prozesuaren diseinua egiterakoan, **hiru esku-hartze eremu** hartu behar ditugu kontuan ikaskidetza testuinguruak sortzeko: talde kohesioa, taldea bera ikasteko baliabidea, eta Ikaskidetzan aritzen ikasteko eta irakasteko konpetentzia. Hiru esku-hartze eremu horiek prozesu osoan zehar txertatuko ditugu eta unean uneko jarduerak eta tresnak erabiliko ditugu eremu bakoitzaren garapena ziurtatu ahal izateko.

- a) **Talde kohesioa.** Taldean eta ikaskidetzan aritzeko eta ikaskidearen ikaskuntza bermatzeko ezinbestekoa da taldearen kohesioa lantzea. Horretarako, taldeak nola egingo diren, taldeen egonkortasuna... kontuan hartu behar dira. Horrez gain, kohesioa indartzeko, hainbat dinamika txertatu behar ditugu gure diseinuetan: elkar ezagutzeko dinamikak, kooperaziorako dinamikak, distentsiorako jolasak.
- b) **Taldea bera ikasteko baliabide.** Taldean kooperazioan aritzeak ikasteko eta konpetentziak garatzeko baliabide ezin hobea eskaintzen digu. Horretarako lagungarriak egingo zaizkigu hainbat eta hainbat teknika. Teknika horiek ez dute berez ikaste prozesua bermatzen, baina oso lan tresna baliagarriak dira ikaskidetza testuinguruak diseinatzeko.
- c) **Ikaskidetzan aritzea ikasteko eta irakasteko konpetentzia.** Ikaskidetzan aritzea ikasi beharreko zerbait da. Gizarte trebetasunetan trebatzeko, planifikazioan trebatzeko, denboraren kudeaketan trebatzeko, gatazken kudeaketa positiboetan trebatzeko, espazio eta denborak diseinatu behar ditugu.

3.1.2. Ikaste prozesua antolatzeko sekuentzia

Sekuentzia Didaktikoa bide orria planifikatzeko tresnatzat hartzen dugu; Sekuentzia Didaktikoaren bidez ikaste-irakaste prozesu oso bat irudikatu nahi da, zeinetan eskaintzen den prozesuaren une guztietan kontuan edukitzeko esparru bat. Une bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta horietako bakoitzean bai irakasleak bai ikasleek beren beharrak dituzte; bestalde, ez dira berdinak izango martxan jarri beharreko estrategiak:

Bidaiaren hasiera: erronkak ikaste prozesua antolatzeko ardatza

Ikaste esanguratsua bultzatzeko xedea dugunez, ezinbestekotzat jotzen dugu ikasleekin partekatutako erronka batetik abiatzea. Erronka partekatzeko uneari garrantzi handia ematen zaio eta Sekuentziaren Hasierako fasean kokatzen da. Hona hemen fase honetan garatu beharreko jarrerak eta tresnak:

- a. Ikasle guztiengan **espektatiba baikorrak** sustatu,
- b. **aurre ezagutzak** aktibatu eta partekatu,
- c. **helburuak** planifikatu eta **lan plana** zein izango den zehaztu,
- d. eta, aldi berean, ikasleei beren **lana kudeatzeko tresnak** aurkeztu (planifikazio fitxak, lan kontratuak, kronograma ...),
- e. **taldeak eratu** (girotze ariketen bidez, elkar ezagutzeko ariketak, talde identitatea sortzeko dinamikak), **kohesioan** eraginez, kohesioa landuz (rolen banaketa...),
- f. eta ikaskidetzaren aurrean **jarrera baikorrak** suspertu.
- g. **Ebaluazio prozesua aurkezteak** ere berebiziko garrantzia izango du. Kontuan hartu behar dugu ebaluatzen ez den horrek garrantzia galtzen duela askotan; beraz, argi eduki behar dugu benetan zer kompetentzia garatu nahi dugun (taldean aritzea bera esaterako), eta horien jarraipena egiteko prozesuak aurkeztu behar dizkiegu ikasleei.

Bidaia

Proiektuaren bidean, ikasleen **ikaste prozesuaren erregulazioari** erreparatu beharko zaio bereziki. Irakasleak agertzen diren zailtasunei, oztopoei edota helburuak lortzeko prozesuei erreparatu beharko die bereziki (oinarrizko kompetentziak eta kompetentzia espezifikoak zer neurritan garatzen ari diren aztertu). Eta, aldi berean, **norbanakoaren ikaste prozesua** (Zer ikasi dut? Zer zailtasun ditut? Nola hobetu dezaket?) eta **taldeko ikaste prozesua** (Zer ikasi dugu? Ondo antolatuta gaude? Lan egiteko modu hori baliagarria zaigu taldekide guztioi? Nola aterako diogu etekin gehien taldeari? Taldekide guztiak ari dira ikasten eta gustura daude?) **erregulatzen** ikasteko baliabideak eta ereduak eskaini beharko dizkie ikasleei (errubrikak, ebaluazio moduak: koebaluazioa ...), euren ikaste prozesua gero eta **autonomoagoa** izan dadin.

“Ikasleak saiatzen dira bakoitzaren indargunean azpimarratzen. Testuinguru honetan ahulenak direnak zeregin errazak bereganatzen dituzte baina haien artean zeregin bateratu bat egiteko gai dira” Itxaropena Ikastola

“Nire kasuan beraiek sortzen dituzte rolak eta ikasleek autonomia sentitzen duten neurrian erantzunkizunak bereganatzen dituzte” Itxaropena Ikastola.

Bidaian zehar, elkarrekintza sustatuko duten eta elkarrekin aritzeko trebetasunak garatzeko baliagarriak egingo zaizkien Ikaskidetzarako aukerak eta tresnak izango dituzte.

Ikaskide proiektuen bidez gatazken kudeaketaren lanketa egiten da eta ikasleak trebatzen ari dira poliki-poliki sortzen zaizkien gatazkek kudeatzen. Proiektu bat baino gehiago egin dituztenek hobeto bereganatu dituzte ardurak hartzeko ohiturak. Errespetoa lantzeko egokia da Ikaskide proiektua.

Ikasleen motibazioa handitzen da. Ikasleek erabakiak hartzeko erantzukizuna bereganatzen dute: informazio bilatzen. Ebaluazioa aldatzen da eta ikasleek protagonismoa hartzen dute bere burua ebaluatzen zein besteena ebaluatzen. Assa Ikastola

Adostasunak lortu behar dituztenez gatazkeen konponketan aritzen dira. Talde sentimendua handitzen da. "lortu dut" esan beharrean "lortu dugula" esaten eta sentitzen ikasten dute. Assa Ikastola

Ikaste prozesuaren garapenean murgilduta, ekoizpenaren aurreko hausnarketa fasera hurbilduko gara. Une horretan garrantzitsua izango da ikasitakoa **sintetizatzea** (mapa kontzeptualak erabiliz esaterako), ekoizpena egiteko ikasleek kontuan izan behar dutena definitzea eta **ebaluazio irizpideak birgogoratzea** (kontrol zerrendak osatuz, errubrikak errebisatuz...).

Bidaiaren amaiera

Ikasitakoa praktikara eraman eta aurkezteko unea izango da. Ikasleek produktu bat elaboratu eta aurkeztu beharko dute. Ezin dugu ahaztu aniztasunak aniztasuna eskatzen duela; hartara, ezin garrantzitsuagoa izango da ikasleen elaborazioetarako eta aurkezpenetarako bide edo formatu anitzak erabiltzea (testuak, bideoak, ahozko eta idatzizko aurkezpenak, irudi edo keinu bidezkoak...). Garrantzitsua izango da ikasleei euren produktuen eta horiek egiteko prozesuen (ekoizpen prozesua eta ikaskidetzaren prozesua) ebaluazioa egiteko baliabideak eskaintzen jarraitzea (errubrikak, ebaluazio txantiloiak, hausnarketarako ariketak...)

Eta bidaia amaitu ondoren...

Ikasitakoaz **gogoeta egitea** izango da zeregin garrantzitsuena. Norberaren aukerez eta mugez eta taldearen indargunez eta ahulgunez gogoeta egitea. Hobekuntza estrategiak identifikatzeko betiere. Horretarako, **autoebaluazio**, **koebaluazio** eta **heteroebaluazio** prozesuak susta daitezke, eta baita txantilo

edo errubrikak erabili (prozesu guztian betetako hauek aztertu) eta horien gainean hausnartu ere. Elkarrizketak baliagarriak izan daitezke bizitako prozesuak berbalizatzeko.

Fase hauetan guztietan oinarritzko hiru elementu agertuko dira uneoro:

- Batetik, landuko den materiaren helburu edo kompetentzia espezifikoak eta proiektua aurrera eramango duen jarduera nagusia (azken xedea).
- Bigarrenik, landuko diren zehar kompetentziak eta horiek lantzeko erabiliko diren metodologiak.
- Eta, azkenik, landuko diren ebaluaziorako kompetentziak eta hori garatzeko metodologia.

Hiru elementu horiek aipatutako fase horietan zehazten dira, prozedura, teknika eta estrategia ezberdinen bidez, eta uneoro garatzen egongo diren oinarriak dira, ikaskidetza prozesuen zutabe alegia. Ikaskidetza, beraz, kompetentzien lanketarako marko aproposa izango da; kompetentzia horiek direlako prozesuaren beraren ardatz.

Bidaian egindako ibilbidean ikasitakoak

Aipatutako printzipioak finkatzen direnean lortuko dugu ikasle guztien ongizatea bermatzen duen testuingurua; baina guztien ikasketa bermatzeko, beharrezkoa izango da ikasle bakoitzaren ongizatea bermatzeaz gain horien gaitasunetatik abiatutako testuinguruak diseinatzea. Horretarako, irakasle bakoitzak bere gela eta momenturako testuinguru berezi bat diseinatu beharko du, ikasle bakoitzaren gaitasunen paper zorroa izango delarik abiapuntua, non, nahiz eta taldean eraiki ikaste testuinguruaren ardatzak, bakoitzak bere ikasleen ikasketa bermatzeko moldakuntzak egin behar dituen. Hala ere, sorkuntza hori konplexuagoa da eta irakasleek ikaste prozesu bat behar dute honaino iristeko. Egiten dugun horretatik abiatuta, gogoeta egin, ikasle bakoitzaren gaitasunak oinarrian hartu eta hobekuntzak proposatu eta aplikatzen ditugunean bermatuko da ikasle horiek ikastea. Hau da, eskola inklusiborako bidean egongo gara. Izan ere, ikasleen identitatea lantzen duten eskolak hartzen ditugu inklusiobotzat, ikasleei direna izateko baliabideak eskaintzen dituen eskolak alegia. Ikaskide taldeek ongizatea bermatzen duen ikaste testuinguruak eskaintzen dituzte; eta hori da aniztasunari erantzuteko abiapuntua; hala ere, ikaskide printzipioak bermatzeak ez du esan nahi bere horretan inklusioa lantzen denik, ezta ikasle guztion ikastea bermatzen denik ere. Baina ikaskide prozesuan irakasleek ikasten dute guztiontzat ikastea bermatzen duen testuinguruak eraikitzen, eta, ondoren, pasatuko ginateke identitatea lantzen duten ikaste testuinguruetara eta, ondorioz, eskola inklusibora.

3.1.3. Ebaluazioa

Azaldu dugun prozesuan garrantzi berezia ematen diogu ebaluazioari. Ebaluazioak ikaste prozesua gidatzen du, egiaztatuta baitago nola ebaluatu gaituzten kontuan hartuta hala ikasten dugula.

Ikaskide Taldeen proiektuan benetako ebaluazioaren ikuspegiarekin lotzen dugu Enge eta Bustos; Monereo (2009). Ebaluazio horrek berezitasun hauek ditu:

- Kontestualizatua: ebaluazioan egoera errealak proposatzea. Prozesu kulturalaren garapena izan behar da; hots, eraikitzen den prozesua.
- Multidimentsionala: ezagutza anitzen erabilera ahalbidetzen duen ebaluazioa.
- Dinamikoa: denboralizazioari dagokionez prestakuntza eta garapena eskatzen duen ebaluazioa. Sekuentzia Didaktikoari begira, ikaste prozesuaren hainbat unetan kokatu daiteke ebaluazioa. Sekuentzia Didaktikoaren **hasieran**: aurre ezagutzak, esperientziak, jarrerak eta ohituren identifikazioa bermatu behar du ebaluazioak. Sekuentzia Didaktikoaren **prozesuan**, autorregulazioa sustatzen dituzten ebaluazio jarduerak, eta Sekuentzia Didaktikoaren **bukaeran**, Feedbacka/hausnarketa bultzatzen dutenak.
- Integratua: ezagutza anitzen erabilera bultzatzeaz gain, ezagutzen arteko integrazioa eskatzen duen ebaluazioa egitea proposatzen da.
- Laguntza: elkarlanaren abiapuntutzat hartu daiteke ebaluazioa. Ikaskidetzaren ikuspegitik ikaste prozesuan elkarlanean eta berdinkideen artean egindako ebaluazioek duten garrantzia azpimarratu nahi dugu. Besteekin aritzeak estrategiak konparatzeko aukera ematen du; ondorioz, metakognizioa areagotzen du.

“Klabea da ebaluazioa, ikasleak beraien ebaluazioaren jabe izatea eta horretarako tresnak izatea” Itxaropena ikastola

- Aurretik zehaztua: ebaluazio irizpideak ezagutzeak ikaste prozesuaren esanguratasuna areagotzen du, eta autorregulazio estrategien garapena ahalbidetzen du. Horren adibidea da ebaluazio errubriken erabilera.
- Kualitatiboa: feedbackaren garrantzia azpimarratu daiteke atal honetan, izan ere, ebaluazioa baliagarria izango da egoeraren kontzientzia hartzeko balio badio ikasleari, bere hutsuneak eta lorpenak zein diren irudikatzeko eta hobekuntza bideak irudikatzeko balio badio, alegia.
- Modalitate anitza: anitza izanik, lehen aipatutako printzipioak bete behar ditu: xedei lotuta egotea, egoera errealak islatzea...

Ebaluazioaren ikuspegia aldatze kultura aldaketa dakar bai irakasle zein ikasleen artean.

“Ikuspegi tradizionala desegin egiten da baina baita ere rol berri honetan kezka sortzen zaizkigu. Lehen azterketak egiten genituen eta jartzen genuen nota bat eta orain ziurgabetasun piska bat sortzen da. Ondo egin dugu? Gaizki egin dugu? Noraino iritzi gara?

Rolei begira nik aipatuko nituzke zailtasunak ez bakarrik irakasleen artean irakasleen artean ere, hau da, kalikazio garaian askotan beraiek nahiago izaten dute haien kontra dijoan hori, askotan hobeto ulertzen dutelako betiko azterketa eta ez bere ardua, bere rola, eguneroko lana. Beraientzat demostrableagoak izaten dira “hau gaizki egin duzu”. Honetan ere hezi behar ditugu ikasleak”. Assa ikastola

Bestalde, aipatutako printzipioak praktikan jartzeko unean, beharrezkoa da, oinarrizko kompetentzien mapa osoa aintzat hartuz, horien arteko loturak aztertzea, bakoitzaren garapen mailak zehaztea eta horiek landu eta ebaluatzeko behar bezalako estrategiak eta tresnak diseinatzea eta implementatzea. Oinarrizko kompetentziek izan behar dute jakintza arloen erreferente nagusia. Jakintza arloetan aztertzen diren beste diziplinen baitako kompetentzia espezifikoak kompetentzia giltzarriei erantzuteko bidetzat hartu behar dira. Jakintza arloetan landuko diren ikaste testuinguruek ahalbidetu behar dute oinarrizko kompetentzietan zehaztutako garapen mailak lantzen eta ebaluatzen direla, beste kompetentzia espezifikoekin batera.

Oinarrizko kompetentzien lorpen mailak ebaluatzeko, diziplinen arteko elkarlana behar da, bai planifikazioan bai horien inplementazioan; oso zaila baita diziplina bakoitzean eginikoak oinarrizko kompetentziek eskatzen duten ahalmen holistiko eta integratuari behar bezala erantzutea.

“Proiektuak lagundu digu egiten genuena hobeto egiten eta ordenatzen bakoitzaren rola. Proiektu bikaina egin behar dutela, zer egin behar duten jakitea, hori dena ikustean ikasleek errazago egiten dute bidea eta gauza gehiago egiten dituzte. Gehiagotan jartzen dugu egiten eta aukera gehiago ditugu prozesuan zer gertatzen den ikasteko. Erronkak eskatzen duten irtenbideak topatzea laguntzen die apendizaiari sakontzen: hitz gitea, nola egiten den esatea... Ez dela nahikoa azterketaren galderak erantzuten ikastea”. Ibaizabal Ikastola

Gure artean hitz egiten dugunean proiektuari buruz beste leku bat hartzen dute bestelako arazo batzuk. Adibidez talde lanaren gainean hitz egiten dugu... Beste espazioetan ikaste emaitzez hitz egiten da nagusiki: Honek ez du ikasi. Proiektu honetan gehiago ari gara harremanen inguruan, arduren inguruan, frustratuta daudela eta ez dakigula nondik tiratu. Hezitzaile moduan nola egiten diogu aurre talde honi diferentea da” Ibaizabal Ikastola

Laburbilduz, Ikaskidetza prozesuak aipatutako faseetan oinarritu eta adierazitako konpetentzietan ardaztuta gauzatuko dira, baina egitura eta harreman sare anitzetan betiere. Ikaskidetzak ikasleen (eta irakasleen) arteko harreman osasuntsuak ahalbidetu ez ezik, sustatu eta indartu ere egingo ditu, bai gelan bertan (hainbat taldekatze motaren bidez), zein eskolan edota komunitatean. Ikaskidatzaren printzipio garrantzitsuenetakoa, elkarrekiko, elkarrengandik eta, batez ere, elkarrekin ikastea delako. Sarearen printzipioan oinarritzen da, beraz, ikaskidetza. Azken batean, etengabe eraikitzen eta hedatzen egongo den amaraunean batzen gaituen komunitatearen izaera indartu nahi du ikaskidetzak, ikasle, gela, komunitate, ikastetxe eta herrien arteko sareak sortuz.

Bestalde, azpimarratu nahi dugu taldean aritzea ez dela elkarlanean eta kooperazioan lan egitearen sinonimo, ez dela Ikaskidetza. Era honetara definitzen dugu Ikaskidetza: *taldean eta kooperazioan gertatzen den ikaskuntza*. Beraz, ez da nahikoa taldean jartzea.

Bukatzeko, prozesuaren antolaketak eta prozesuaren ebaluazioak bat etorriko badira aipatutako printzipioekin, beharrezkoa da helburu, metodologia eta ebaluazioaren arteko loturak ziurtatzea.

4. FORMAZIO ETA ERALDAKETARAKO MARKOA: IKASARE

Aurreko atalaren bukaeran aipatu da gelako metodologiaren aldaketak isla izan behar duela eskolaren egituran eta funtzionamenduan. Kalitatezko eskolek, ikasleen ikastea bermatzeaz gain, bertako irakasleen garapen profesionalari laguntzen diote; irakasleriaren garapen profesionalean, Imbermónek (1994) dioen bezala, etenik gabe ikasi behar da irakastearen jardunari buruz, egunerokotasunean anitzak diren gertaera eta egoera indibidual zein taldekoei erantzun egokia eman ahal izateko; eta jardunaren hausnarketatik eta azterketa sistematikotik elikatzen da hori. Langile profesionalen jakintza egiten dutenetik eta kideekin partekatzen dutenetik dator, eta praktikak berak du funtzio formatzailea eta kualifikatzailea (Bolivar, 2012). Irakasleria da berrikuntzaren oinarri (Imbermón, 1994), ikasle guztien ikastea hobetzen ahalegindu eta bertatik ikasten eta berritzen baitu. Ikasten duen organizazioaz ari gara (Martinez, 2011).

Irakasleen ikaskuntza taldean gertatzen da (Fullan, 2004), eskolak jakintza partekatzeko, berau komunikatzeko eta hezkuntzaren jarduna hobetzeko testuinguru laboralak behar ditu. Errealitatea eraldatzeko prozesu dialogikoez ari

gara (Freire, 1984), talde profesional egonkorrek praktikaren komunitateak eraiki eta bertan autoerregulatu eta hobekuntzak txertatzen ditu, adostasunez, kontzientziaz eta koherentziaz, eskolako ikaste kultura garatuz eta, horrela, gertuko gizarteari erantzun egokiagoa eskainiz. Orcasitasen (2005) “formación en la práctica”.

Gure iritziz, prozesu horren bermea Praktika Komunitatea izango da. Praktika Komunitatea ardura bat, arazo multzo bat edo gai batekiko pasioa partekatzen duten pertsonak osatzen dute, eta horien arteko interakzioari esker areagotzen da beren esperientzia eta jakintza (Wenger, McDermott eta Snyder, 2002). Helburu komun bat izanik eta elkarren arteko konpromiso indartsuaren, parte hartze arduratsuaren eta hizkuntza bateratuaren bitartez, adostasunera iristen dira esanahi berriei buruz (Martinez, 2011), etengabeko hobekuntza eta berrikuntza sustatuz.

Praktiken hausnarketatik ikasten eta berritzen duen komunitateak luzaroan irauteko, hau da, ikasleen ikastearen hobekuntza luzaroan mantentzeko, nahitaezkoa da taldearentzat eta kideentzat oinarriak edukitzea zentroan (Bolívar, 2013). Eskolako organizazioaz gain, praktiken hausnarketarako tartekak eskaintzeaz gain, berrikuntzarako kultura garatu ahal izateko baliabideak eskaini behar ditu. Egoera horrek lotura estua du lan giroak irakasleengan beren lanarekiko konpromisoa eta erantzukizuna sustatzearekin. Lidergo eta organizazio estruktura parte hartzaileetara garamatza horrek. Ikaste Komunitate Profesional Eraginkorreko kideek hezkuntzarekiko Misioa, Ikuspegia, Balioak eta Helburuak partekatuak eta adostuak izatea eskatzen du; baina motibazio pertsonal eta konpromisotik eraikia izan behar du, hezkuntza aldaketaren teoriarik jasotzen den moduan (Bolívar, 2013).

Irakasleak berez eduki behar ditu edo bereak egin edo izan behar ditu eskola erakundearen marka identitarioak, eta horiek erabat erroturik egon behar dute bere jardun profesionalean eta gertuko komunitatearen beharren erantzunean. Eskolak, organizazio estrukturan berritzeko kultura garatu ahal izateko, lan testuinguruak berdiseinatu behar ditu, taldean erabakiak hartzeko aukerak indartzeko. Denon arteko eskola izan ahal izateko.

Egitura profesional berritzaile horrek luzaroan iraun dezan, funtsezkoak dira irakasleen konpromiso mailak (Bolíbar, 2013).

Ikertzaile anitzek nabarmentzen dute konpromisoaren “dimentsio afektiboa”, pasioa nagusia baita irakaskuntzan (Nias, 1996; Day, 2006; Meyer eta Allen, 1997; Crosswell, 2006). Pasioz irakastea ez da irakasle batzuen ezaugarria, irakasle on baten funtsa baizik (Bolívar, 2013). Irakasteak irakasleen inplikazio intelektual eta

afektiboak uztartzen ditu. Konpromisoak balio, sinesmen eta helburuen praktika determinatzen du, eta pasiozkoa da ekintza profesionalaren une praktikoa lehen pertsonan aurrera eramaten den bizipena.

Day et al. (2006)ko ikerketan, estatistikoki aipagarria den erlazioa aurkitu dute irakaslearen konpromisoaren eta ikaslearen ikastearen hobekuntzan. Beraz, kalitatezko hezkuntza erroturik, irakaslearen konpromisoa nahitaezko aldagaitzat hartzen da guztiontzako ikastea hobetzen duen hezkuntza markoan.

Konpromisorik ez badago nabarmen murrizten dira eraldaketarako egiten diren ahalegin eta esfortzuak (Bolívar, 2013); lan errendimenduaren eta hezkuntzaren kalitatearen adierazle izateaz gain (Day et al, 2007), eraldaketa prozesuak mantentzeko gakoa ere bada (Park, 2005).

Irakasle arduratsutik eskola arduratsura autonomiaz beren erabakiak hartzeko aukerak dituzten eskolak eta ikasle guztien ikastea hobetzearekin konprometituak.

Ikaslearen ikastearen hobekuntza ezin da denbora luzaroan mantendu, horrek ez badu eskola mailan taldearen eta kidearen babesa (Bolívar, 2013).

Laburbilduz, hezkuntza eskubidea oinarri izanda, ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzen duena litzateke kalitatezko hezkuntza. Horretarako, irakasleek, ikasle guztien ikastea hobetzeko, profesionalen jardunaz egin behar dute gogoeta era sistematikoan, egunerokotasuneko eta gertuko gizarteari erantzun egokia eman eta etengabeko berrikuntza kultura eraikitzeko.

4.1. Aholkularitza ereduaren bereizgarriak

4.1.1. Ereduaren kontzeptu nagusiak

Praktikako Komunitatea da eskola funtzionamenduari dagokionez ***Ikasare*** aholkularitza ereduak "Ikaste Komunitate Profesional Eraginkorrek" eskaintzen duten markoan kokatzen da. Ikasle guztien ikastearen hobekuntzan konpromisoz jarduten duen praktikako komunitatea, hau da, sistematikoki eta taldean beraien praktikez hausnartuz hobetzen eta berritzen duen komunitatea da. Eskola ikasten duen organo modura ulertua.

"Eraginkorrak" terminoak erreferentzia egiten dio guztion ikastearen emaitzaren ardura nagusiari; horrek adierazten du eskolako erabakien norabidea helburu horrek errotzen duela eta eskolako kideak direla lortutako emaitzen arduradunak.

Irakasle profesionalez ari garenean taldean beren jardunei buruzko gogoeta sistematikoa egiten dutenaz ari gara, printzipio pedagogiko partekatuekin etengabeko hobekuntza prozesuan jarduten duten irakasleez.

Amerikako Lehen Hezkuntzako Zuzendarien Asoziazio Nazionalak (NAESP, 2008) deskribaturiko adierazleak ditugu oinarri, eskolen ezaugarriak zehazteko:

- **Misio, Ikuspegi, Balio eta Helburu partekatuak.** Ikaste komunitate eraginkorra, hezkuntza kalitatearekin erabat errotua, zeinak eskolako erabaki oro bertan oinarritzen den. Ikasle guztien ikastea hobetzea da ardatz nagusia. Ikaste komunitateko kide guztiek partekatuak dituzte ikasleek jakin eta egiteko gai direnari buruzko helburu eta balioak.
- **Emaitzekiko Konpromisoa.** Eguneroko eskolako lanarekin batera ikasle eta helduen errendimendua hobetzeko jardutea da.
- **Etengabeko hobekuntza.** Ikaste komunitateko kideak konprometituta daude etengabeko hobekuntza zikloekin, giro edo talde sinergiekin, irudimen, izpiritu, inspirazio eta etengabeko ikaskuntzarekin, ikasteen eta kompetentzien garapenean hobekuntzak estimulatuz; hori guztia kompetentzia profesionalen areagotzea sustatuz, nahi diren emaitzak lortzeko helburuarekin.
- **Kidetza kultura.** Ikaste Komunitate Profesionaleko (IKP) irakasleek onartzen dute ideiak, materialak eta unitate didaktikoak partekatzeko Kidetzan oinarrituriko estruktura sortu behar dituztela. IKPko kideek beraien indarrak batzen dituzte prozesu sistematiko bat sortu eta mantentzeko, non zuzendaritzak zein irakasleek batera lan egiten duten beren jarduna aztertu eta hobetzeko.
- **Talde hausnarketa.** Praktika eraginkorren elkarrizketa erreflexiboan eta talde araketan egokitzen diren elementuak dira ikaste komunitaterako ingurunerik baliagarrienak.
- **Lidergo partekatua eta babesa.** IKPeetan administratzaile eta irakasleen arteko erlazio berriak aktibatzen dira lidergo partekatua duen eskolan, non ikaste komunitateko kide guztiak hazten diren profesional modura eta ikasten duten beren burua lider modura ikusten.

4.1.2. Aholkularitzaren gako nagusiak

Ikasare aholkularitza eredu, ondoren azaltzen diren gako hauei eusten diegu eskola egituraz ari garenean.

a) Eskola identitatearen isla praktikan.

Ikasarek berrikuntza edo eraldatze prozesua aktibatzen du, eskolak Ikaste Komunitate Profesional Eraginkorrak izan daitezzen. Prozesu horretan, profesional guztien Konpromisoa eta pertenezia sustatzeaz gainera, Autonomiaz eta Erresposabilitatez jarduten duen eskolan hezten da.

Prozesu hori abian jarri ahal izateko Ikaskidetza dugu oinarria. Ikaskidetza taldean eta kooperazioan egiten den ikaskuntza da. Konpetentzietan oinarrituriko hezkuntzaren adierazleak bermatzeaz gain, “elkarrekin” alderdia garatzen da ikasleen arteko harremana **kidetzan** oinarritua izan dadin.

Konpetentzien esparruan ikasteak ezaugarri espezifikoak ditu: ikasteko beharrezkoa da ikasleek **egiten, elkarrekin, ongizana bermatua** izatea (emozionatua egotea) eta berenganatzeko jakintza arloak **testuinguru errealetan** berenganatzea; funtzionalak eta konplexuak izatea, alegia. Ikaskidetzak “Elkarrekin” aspektuaren adierazleak kidetza ezaugarriekin txertatzen ditu ikaste testuinguruetan, eta, horrela, taldean eta kooperazioan ematen da ikaskuntza.

Ikaskidetza eskoletako identitate marka bat egoera praktikoa bihurtuz erabiltzen da, eta bertatik talde hausnarketa sistematikoak eginez osatzen dugu autonomiarako prozesua. Ikaskidetza ez da metodologia eta curriculum eraikitze tresna hutsa, eskolako identitate marka bat praktika erreal bihurtzeko gako baizik.

Proiektuan sartzen diren eskolek balio eta kontzeptu abstraktuzat dute **kidetza**, eskolako identitate marka gisa identifikatzen dute, baina hori ez dute modu sistematikoan zein kontzientean praktikara eramaten. Ikasaren, identitate marka hori hartu eta errealitate praktikoa bihurtzeko errekurtsoak eskaintzen zaizkie; era berean, hizkuntza bateratu eta errealitate praktikoa sistematikoki hausnartzeko bidea diseinatzen da.

Era horretara, eskolak adosten dituen identitate markak printzipio pedagogiko bihurtzen dira, eta horiek praktikan hartzen duten forma kudeatzen ikasi, ikasleengan garatzen dituzten emaitzak jaso eta horiek hobetzeko berrikuntzak sortzen eta txertatzen ikasten dute, hau da, Ikaste Komunitate Profesional Eraginkor bihurtzen da eskola.

Irakasle bakoitzaren estilo eta berezko ezaugarriak eusten zaie helburu, ikuspegi, balio eta misio bateratuan. Denon artean adosten dute eskola, egiten dutenarekin eraikiz. Autonomoak izanik, ikaste testuinguruak sortzen dituzte, bakoitzak dituen ikasle guztien ikastea hobetzen dute, eta, nahi duten eskola izan ahal izateko, talde gisa batzen dituzten balio eta misioari erantzuten diote.

Beraz, ikaskidetza ez da teknika bilduma edo metodologia espezifiko hutsa, eskola ikaste prozesurako gakoa baizik.

b) Autonomia, konpromisoa eta erantzukizuna.

Aurreko ataletan adierazi da zer eragin duen konpromisoak ikasleen ikastea eta luzarorako berrikuntzei eusteko prozesuan. Konpromiso dimentsioei dagokienez, **ikasaren** bosgarren bat erantsi da: Herri, Auzo edo Hiriarekiko Konpromisoa.

1. **Ikasleekiko konpromisoa:** era pertsonalizatuan tratatu, ikastea areagotu, beraien ikastearekiko ardura izan, oztopo gehien izan ditzaketenekin gehienbat. Rosenholtz (1989) irakasleak proposatzen dituen ikaste testuinguruaren esangura-tasuna gehitu, forma berriak txertatu, garrantzizko material zein baliabide berriak erantsi eta ikasleekiko interes intrintsekoa areagotuz definitzen du. Ikasleekiko interes maila altua, bai eskola barnean bai kanpoko egoerarekin erlazionatuta, harreman emozionala. Konpromisoa irakasleak dituen sinesmen eta balio pertsonal eta profesionaletan errotzen da; era horretara, ikerketek adierazten dute irakasleen konpromiso maila altuek hobekuntzak eragiten dituela ikasleen ikastea (Dannetta, 2002; Day et al. 2005).
2. **Irakasle lanarekiko konpromisoa:** lanean parte hartzeko duen nahiarekin eta berarekin duen identifikazio psikologikoarekin lotzen da. Lotura psikologikoa da irakasle eta bere irakaste lanaren artean. Bere lana ongi egitearen arduran adierazten da hori, eta irakasteko entusiasmoan; irakaste eraginkor bat eskaintzen du beraz, eta ikasleei denbora gehiago eskaintzen die, bai alderdi pertsonalari begira bai lantzen dituen arloei dagokienez.
3. **Profesioarekiko konpromisoa:** irakastearen erakargarritasun jarrera berezi modura ulertua. Dagoen eskolan dagoela, egunerokotasunean egin duen lanari buruz asebetetzen eta identifikatzen dena. Bere energia emozionala irakaslearen lanbidera bideratzen du. Gaitasun profesionalak hobetzeko eta garatzeko aukeretan adierazten da; era horretara, bere

lanaren kalitatea areagotu eta asoziazio eta elkarte profesionalekin bat egiten du. Konpromiso hori lanerako eta jarrera profesionalak hobetzeko motibazioaren oinarria da. Lanak sortzen duen satisfazioarekin lotzen da.

4. **Eskolarekiko konpromisoa:** organizazio eta lan eremu modura. Komunitatearen zentzua, norbanakoak organizazio horretan jarraitzeko nahia izatea, eskolaren koherentziari eusteko ildo konkretu batetik abiatuta garatu nahi izatea. Helburuak eta balioak partekatzea zein irakasleen artean bateratzea eskatzen du horrek (Zangaro, 2001). Honako hauek dira konpromiso horren adierazleak: kideen arteko harreman positiboak, norbanakoaren eskolarekiko leialtasuna, ahalegintzeko joera eta bertan geratzeko asmoa.
5. **Herri, Auzo edo Hiriarekiko Konpromisoa:** komunitatearekiko lotura, atxikimendu eta eraginkortasunari dagokion ardura partekatzeko konpromisoari egiten dio erreferentzia. Eskolaren funtzioei dagokionez, gertuko gizartean duen erantzukizunarekin eta eraginkortasunarekin erlazionatuta dago, eta baita hezkuntzaren ikuspegi ekologikoarekin eta ikasleen identitate demokratikoa eraikitzearekin ere (Gutmann, 2003). Gizarte ikuspegi zabalarekin erroturiko balioak biltzen ditu. Honako hauek dira konpromiso honen adierazleak: komunitatea hezkuntza gune aktibo modura baliatzea, bertako kide aktibo eta erreferente izateko nahia izatea eta berau eraldatzeko eta hobetzeko sare estrategiak gauzatzea.

4.1.3. Aholkularitza ereduaren antolaketa

Irakasleen konpromiso mailak sustatu eta areagotu daitezten, espazioa eskaini behar zaio norbanakoaren alderdi afektiboari. Bereak balira bezala bizi behar ditu taldean adosturiko helburu, ikuspegi, balio eta misioak. *Ikasarek* funtzio pedagogikoetan indartzen ditu, eta era horretara hizkuntza bateratu eta gelako erabakietan autonomiaz jarduteko errekurtsioak bereganatzen dituzte. Autonomia eta askatasuna arduraz gauzatzen da, irakasleek harturiko erabakiek sortzen dituzten emaitzen arduradun direlarik. Autonomiak konpromiso mailak areagotu eta luzatzen ditu; beraz, autonomia eremuak eskola egitura osora zabaltzen ditu *Ikasarek*, organo bateratu eta inplikatu izan dadin.

Horretarako, helburu, ikuspegi, balio eta misioak eskola identitate marka izanik, taldean definitu eta adosteko espazioak ezartzeaz gain, organizazio horizontal eta lidergo partekaturako estruktura gauzatzen dira.

Egitura horretan, berrikuntza kultura sostengatzeaz gain, konpromiso mailak garatu eta mantenduko direla bermatzen da.

Guztien artean egiten dute direna, eta bertatik hobetu eta berritzeko gaitasunak garatzen dituzte, emaitzen arduradun izanik.

Eraldaketa kudeaketa (dinamizatzailea)

Ikasarek autonomiaz janzten du prozesu parte hartzaileko lidergoa ere. Eskola eraldaketa prozesuetan lidergoak eta dinamizazioak garrantzizko papera jokatzen dute. Aurrez azaldu den moduan, erabaki adostuak hartzen dituen gune bilakatzen da eskola, eta horrek parte hartze aktiboa eta harremanen kudeaketa berezia eskatzen du. Ikerketek adierazten digute proiektuarekiko atxikimenduak bezain garrantzizkoa dela lidergo partekatua eta dinamizatorako barne gaitasunak izatea (Bolívar, 2011).

Ikasarek eskolak aukeraturiko pertsona estrategikoa Dinamizazioan trebatu eta hezten du lehen unetik beretik, prozesuaren ildoak autonomiaz gara ditzaten etorkizunean. Horrela, aholkularitzarekiko dependentzia edo menpekotasuna deuseztatzen da, eta unibertsitatearekiko ikerketan oinarrituriko harremana eraikitzen da.

Dinamizatzaileak adostasun eta komunikaziorako estrategiak bereganatzen ditu, lidergoa horizontala izan dadin; horrek adostasuna du oinarri, eta, beraz, berau lortzeko gakoetan gaitzen da. Eskola, beraz, autonomia bihurtzen da, baita bere eraldatze prozesuan ere. Beren kabuz eta beren artean eraldatzen dute eskola; beraz, bertako kideen inplikazio eta konpromiso mailak ere handitu egiten dira eta luzarorako egituretan jasankorra bihurtzeaz gain, berrikuntza kultura ere garatzen da. Ikasare proiektuak eraldaketak eskatzen duen progresioa eta denbora aintzakotzat hartuz.

“Proiektu honek beste antolaketa eredu bat eskaini digu, ekipoko persona bat formatzea ikastola barruan laguntzen duena, hori oso baliagarria da eta autonomia emango digu proiektua garatzen jarraitzeko”. Ibaizabal Ikastola

4.2. Formazioaren antolaketa

Ikaskide Proiektuan artikulatzen eta eskaintzen diren formazio saio guztiek ondoren azaltzen diren ezaugarri hauek eduki edo bermatzen dituzte:

Parte hartze aktiboan oinarrituriko hausnarketa.

Ikastea eraikuntza indibiduala bada ere, balio erreala hartzen du maila sozialean partekatzen denean. Ikastearen eraikuntzarako beharrezkoak dira ezaugarri sozialak, kontraste espazioak, elikatzea eta defentsa, sakontzeko espazioak, adostasuna, ulermena eta ordenatzea. Taldea da hipotesi berrien, arrazoi berrien

edo eszenatoki berrien sorkuntza baimentzen duena. Bakarkako hausnarketarekin batera taldeko eraikitze eta adoste espazioak behar dira, sakontze eta konpontze aspektuak sistematikoki organizatzen diren prozesuan.

Eraikitzen ditugun ikaste testuinguruak parte hartzaileak dira, norbanakoak aukera du bere esperientzia, jakintza edo iritziak adierazteko, baina ikastearen esentzia taldean eraikitzen da. Horrela, formazio saio guztietan funtsezkoak diren aspektuak identifikatzen ditugu jakintza berriak eraiki ahal izateko.

Formazio prozesuan hainbat ikaste talde artikulatzen dira: alde batetik, eskoletako lan taldeak daude; bestetik, dinamizatzailen taldea eta denak *Ikaskide* komunitateko kide dira, marko eta proiektu komuna dutelarik.

Saio guztiek dituzte norbanakoaren ahotsa jasotzeko uneak; idatziz hartzen dira horiek, eta, ondoren, talde txiki edo handian partekatzen dira. Talde hausnarketa parte hartzailetako gako nagusia dinamizatzaila da: parte hartzaileen diskurtsoetan aspektu esanguratsuak identifikatzen ditu, galderak egiten ditu, partaide guztiak jasotzen ditu, eta taldean erabaki eta adostasun edo ildoak definitzera bultzatzen du.

Aspektu profesionalen gogoeta ekintza bibentzietatik, simulaziotik, irakurketa probokatibotik, praktikaren kontakizunetik... abiatu daiteke; partaide bakoitzak bere arreta erakarri duten ezaugarriak identifikatu eta justifikatzen ditu, eta, ondoren, talde txikietan zein talde handian partekatzen dira ahotsak.

Saioen amaieran trataturiko eta landuriko gaien kontaketa egiten da; eta, orobat, funtzionamenduaren eta erabilitako metodologiaren egokitasunaz eta parte hartze mailaz hitz egiten da. Dinamizatzailak komunikatzen ditu aspektu teorikoen eta zereginen laburpena, konpromisoak adosten dira, eta hurrengo saiorako helburuak azaltzen dira.

Ondoren, balorazio tarte bati ekiten zaio, partaideek bizi izan dituzten sentrazio, funtzionamendu alderdiak... jorratzen direlarik ahoz, eta, amaitzeko, gogobetetasun inkesta bat betetzen dute partaide guztiek: bakoitzaren parte hartze maila, egoera pertsonala, gaiarekiko interesa, metodologiaren egokitasuna, sortu zaizkion zalantzak, hobetzeko alderdiak eta balorazio orokorra jasotzen dira bertan. Informazio iturri hori kontuan izaten da hurrengo saioaren eraikuntzan, guztiontzako esanguratsua izango den ikaste testuinguruak eraikitzeko.

Ikaskidetzako oinarrizko printzipioak.

Ikasleen formazioari begira aipatu diren Ikaskidetzaren lau printzipioetan oinarritzen da irakasleriaren formazioa ere:

1. Helburu komuna
2. Elkarmenpekotasan positiboa
3. Norbanakoen konpromisoak betetzea.
4. Aurrez aurreko komunikazioa.

Formazio ereduan proposatzen diren saio guztiek Ikaskidetzaren oinarrizko printzipioak bermatzen dituzte.

Praktikatik eratortzen den ikaskuntza.

Formazioaren abiapuntua ez da prozesu amaierako helburuaren identifikazioarekin hasten, errealitate eskola bakoitzaren ezaugarri funtzional, profesional, kultural eta harremanetakoetatik baizik. Helburua ez da errealitatean dituzten ezaugarriak epaitzea, baizik eta egiten dena definitzea edo identifikatzea eta eraikitzea. Saio guztien ardatza praktika erreala eta diskurtsoa dira. Saio guztietan artikulatzen ditugu praktika, bizipen, ikerketa eta teorizazioaren arteko joan-etorriak.

Ezaugarri eta gaitasun indibidualen errekonozimendutik eraikitako taldea.

Gaitasun profesional eta pertsonalen garapena eskaintzen digun aukera paregabetzat hartzen dugu aniztasuna. Horregatik txertatzen ditugu eskainitako formazio saio orotan taldearen heterogeneotasuna azalerazten duten giroak. Aniztasunak ez du bakarkako ikaskuntzaren prozesuaren errespetu soila adierazten, gaitasun, erritmo eta fase berean ez dauden pertsonen arteko ikaste espazioak aberasten ditu. Formazio saioetan ibilbide eta esperientzia anitzetako pertsonak bat egiten dute, eta horrek gertutasunez eta dinamismoz janzten ditu saioak, eraikuntza konplexuen eraketan laguntzen du, diskurtsoaren ikuspegi gertukoa eta praktikoa eskaintzen du, eta, era berean, ahots berriek freskotasun eta ideia berriak ekartzen dituzte, errealitateari erantzuteko aukera berriak eskainiz.

Aniztasuna aberasgarritasuna da, ikaste testuinguruaren malgutasunagatik; partaideak ikaste prozesuko protagonistak dira eta dinamizatzaile edo aholkulariak gidari hutsa. Testuinguru irekiak dira, horrek denon parte hartzea sustatzen du helburu komun baten bila, eta helburu komun horrek, era berean, partaide guztiak aberasten ditu. Hausnarketa mailari dagokionez, norbanakoaren helburuak markatzen ditugu, jarduera berean partaide bat oinarrizko printzipioen identifikazioaren gaia jorratzen egon daiteke eta beste kide bat zeharkako kompetentzien autoerregulazio tresnen sorrerarako estrategia espezifikoaren bila.

Saioetatik jasotako informazio errealetik eraikitzen da

Saio bakoitzaren diseinuan jarraian aurkezten den informazio iturriak izaten dira kontuan:

- Edukia: diskurtsoan, praktikan, zalantza edo behar eta interesguneak.
- Taldearen ezaugarriak: parte hartzea, klima, motibazioa eta pertenezia.
- Norbanako ezaugarriak: umorea, lan karga, erresistentzia eta parte hartzearen irudia.

Hiru parametro horien informazioa sistematikoki jasotzen da saio guztietan, bakarkako galdetegiaren eta dinamizatzailearen deskribapen idatzien bitartez (ikus 1.eranskina). Informazio horretatik interesguneak identifikatzen dira taldean, eta bertatik eraikitzen dira errealitate bakoitzari eta guztioi hezteko eta ikasteko baliagarri zaizkigun saioak. Eskolako lan taldeak egin beharreko saioak ere iturri berak ditu, behin interesgunea identifikatuta, eskolako dinamizatzailearekin kontrastatzen da eraikitako proposamena.

Partekaturiko lidergoa.

Eskaintzen diren ikaste testuinguruak partaideen arteko harreman berriak sortzeko aukera ematen du, horrek aukera ematen die ikaste uneekin batera lidergo eta protagonismo profesional uneak bizi ahal izateko. Egoera horrek modu positiboan eragiten du motibazioan eta pertenezia sentipenean. Ikasareko aholkulari eta dinamizatzaileek azpimarratzen dute proiektuaren eta ikaskuntzaren jabetza taldearena dela, eta ikaste esperientziari esker apurka-apurka ezabatzen doa jakitunaren rol edo estereotipoa; horrela, dinamizatzaile zein aholkulariari egiten zaizkion galdera itxien formulaziotik talde konponketarako estrategien planteamendura igarotzen dira.

Aholkularitza fase bakoitzeko helburuetan lidergoaren partekatzea diseinatzen da. Era berean, lan taldeko erresistentziei aurre egiteko ere erabiltzen da estrategia hori.

Perteneziaaren lanketa jarraitua.

Aldaketaren diseinu, garapen eta ebaluazioko oinarritzko aspektuetako bat proiektua eraikitzen duen giza taldearen sorrera da (Martinez, 2011). Eskolaren etorkizuneko ikuspegia partekatzen duen taldeak berezko gisa bizitzen ditu bertako identitate markak, eta horiek geratzen diren ekintza praktikoa bilakatzen dira. Ikuspegi partekaturik gabe ez dago pasio, konpromiso eta hobekuntzaren direkzioari, eta eraiki ahal izateko beharrezkoak dira hausnartze espazioak, elkarrekin esanahiak eraiki ahal izateko (Hopkin eta Lagerweij, 1997).

Aldaketaren gakoaz jabetzea ere formazio saio orotan lantzen da, jardun profesionalean eta horien hausnarketa partekatuan kokatuz eraldaketaren iturria eta partaide bakoitzaren gain aldatetaren ardura edo eragitea. Beraiek eraikitzen dute beraien proiektua, eta beraiek nahi edo erabakitzen dutenean aldatuko da hori.

4.3. Aholkularitzaren antolaketa

Formazio jardueren espazio zentralak bi ekintzetan bereizten dira:

- **Eskolako saioak:** eskolako lan taldearekin 9 lan saio osatzen dira, aholkularitzako fase bakoitzeko helburuak garatzeko. Saio horietako 3 ikaskide Aholkulari erreferenteak gidatzen ditu, eta gainerako 6 saioak eskolako dinamizatzaileak.
- **Mintegiak:** ikasturtean zehar bi mintegi mota eskaintzen dira: dinamizatzaileen mintegiak eta mintegi orokorrak. Horrela, proiektuan parte hartzen duten kideen arteko ikaskuntza garatu eta SARE egitura eraikitzen da.

Mintegietan eta Eskoletan egiten den aholkularitzan, praktiken hausnarketa partekatu eta sistematikoa egiteko metodologia biografiko narratiboa proposatzen da. Narratibek aukera eskaintzen digute irakasle bakoitzaren jarduna sistemikoki begiratu eta bertan esku hartzeko; era berean, irakurle eta partaideak maila berean kokatzen ditu, eta mehatxu izatetik enpatikoki jokatzera igarotzen dira, juzgatu ordez diskurtsoko adierazleak identifikatu eta proposamenak eraikitzen dira.

Kontakizunak, halaber, diskurtso eta pentsamendua ordenatzeko tresna aproposa dira, irakasleen jarduna sistematikoki jasotzeko tresna erraza, eta autoerregulazio tresna modura ere aproposa. Era berean, hizkuntza bateratzeko eta printzipioen arabera praktika modelatzeko tresna paregabea dira.

Aholkularitza prozesua hiru fasetan antolatzen da, eskola autonomorako garapen bide modura, baina, era berean, eskola bakoitzak bere bide propioa eraikitzen du, formazio ekintza bakoitzak eskola bakoitzaren ezaugarri eta momentu errealari erantzuten baitio. Formazio saio bakoitzean parte hartzaile guztien hitzak jasotzen dira, eta informazio horretatik abiatuta eraikitzen da hurrengo formazio ekintza.

Eskolako estruktura, organizazio eta kultura aldatetarako zuzendaritza organoekin adosten dira fase bakoitzaren hasieran, bertatik zehazten dira aholkularitza

prozesuko helburuak. Helburu horiek ikastetxeko klaustroan aurkezten dira, eta fase amaieran bertan ere aurkezten dira lorturiko emaitzak.

Prozesu horren guztiaren diseinua, eraikuntza eta garapena ikastetxeko portafolioaren bidez gauzatzen da, eta errealitate bakoitzaren diseinu indibidualerako erabiltzen den tresna da.

Esan bezala, aholkularitza prozesua 3 fasetan garatzen da:

1. HASTAPENA.
2. HEDAPENA.
3. AUTONOMIA.

Fase bakoitzean ondoko adierazleak azaltzen dira nahiz eta prozesuaren bilakaeraren arabera intsentsitate desberdinekin landu: Ikaste Komunitate Profesional Eraginkorra, eskola identitatearen isla praktikan, autonomia, konpromisoa eta erresponzabilitatea, eraldaketaren gestioa, ikasle guztien ikastea.

HASTAPENA

Lehen fase honetan eskolako ezaugarriak batzen dira, estruktura, organizazio, lidergo, kultura eta komunikazio alderdiak jasotzen dira, eta bertatik definitzen dira lehen urterako helburuak.

Eskolako informazioa zuzendaritza, klaustro eta lan taldeetatik jasotzen da, sakoneko elkarrizketa eta behaketatik.

Eskolak proiektuaren lehen urtean lanean arituko den lan taldea definitzen du; bertan, zuzendaritzako kide bat sartzen da eta dinamizatzailerak nor izango den ere aukeratzen da.

Hastapeneko lan taldeko partaideek ikaskuntza prozesu bat burutzen dute, Ikaskidetzaren (hezuntza kooperatiboaren) oinarrizko konpetentziak eraiki, aplikatu eta ebaluatu ahal izateko. Ikasketa prozesu horrek lau atal edo une ditu:

1. Oinarrizko printzipioen lanketa.
2. Sekuentzia didaktikoen diseinua.
3. Gelaratzea.
4. Ebaluaketa.

Lehen fase horretako ezaugarriak Ikaskidetzaren ezaugarritzat hartu, oinarrizko printzipioen araberrako ikaste testuinguruaren diseinua eraiki, gelaratu, hausnartu eta hobekuntzak txertatzeaz gain, praktiken talde hausnarketa eta garapen pertsonal eta profesionalerako gune eta gako modura identifikatzen dira.

Era berean, eskolako marka identitarioak ere arakatzen dira, talde pertenezkiarako estrategiak garatzen dira eta Ikaskdie komunitateko partaide egiten dira, beraien esperientzia komunitateko gainerako eskolekin partekatuz eta elkarrekin ikasiz.

Prozesu parte hartzaileen dinamizazio gakoetan ere trebatzen dira, adostasunean oinarrituriko eraikuntzen esperientzia biziz.

Lehen fase horretan, balio zantzuak zituen eskola identitateko kontzeptu bat printzipio pedagogikotan itzuli, horren araberrako ikaste testuinguru baten diseinua egin, gelaratu eta talde hausnarketa egiten da, hurrengo faserako garapen ildoak identifikatuz, eta garapen profesionalean autonomiarako prozesuan pertenezkia eta konpromiso gakoak jorrratzen dira.

Era berean, eskola organoetan aurkezten da urteko prozesua, bertako errekonozimendu eta atxikimendua sustatzeko estrategia modura.

Prozesu horren amaieran Ikaskidetzaren Hedapen planaren diseinuarekin amaitzen da, ikastetxe osoa ikaskidetzan (hezkuntza kooperatiboan) murgiltzeko planarekin alegia. Era berean, zeharkako kompetentzien mapa eraikitzearen beharra eta sistematizaziorako gakoak nabarmentzen dira.

HEDAPENA

Ikastetxe guztia proiektuan sartzen joateko plana osatzen da; horretarako, Ikaskidetzaren hedapen plana osatzen da, testuinguruaren diseinurako tresnen eta egituren sistematizazioa jorrratzen da, eta zeharkako kompetentzien eskola mapa eraikitzen da.

Era berean, eskolako identitate markak jaso, eta adosturiko adierazle baten gelaratze prozesuari ekiten zaio.

Aurretik diseinaturiko testuinguruak dira abiapuntua; era horretara, partaide berriek eta trebatuak testuinguru berriak eraiki, gelaratu eta ebaluatzen dituzte. Era berean, eskolako kompetentzia orokorren mapa eraikitzen da, eta testuinguruaren diseinurako tresna bateratu eta sistematizatzen da.

Dinamizatzaileak aukera du lotura teorikoetara gerturatzeko, eta bere Ikaskideko aholkulariarekin mintegietako saioen arrazoiketa lantzen du. Esperientzia bizitzetik abiatuta, informazioa gestionatzen hasteko aukera du.

AUTONOMIA

Proiektua ikastetxean hedatzeko plana bideratua dago eta Ikaskidetzan oinarrituriko testuinguruen eraikuntza egoera normalizatuetan egiten da, hau da, ohiko lan espazioetan (arloko edo mailako irakasle talde arruntean). Autonomia urte horretan, komunikazioarekin eta kudeaketarekin lotura duten aspektuak lantzen dira, irakasle talde naturalak burutzen ari diren prozesua jasotzen du, eta dinamizatzaileak egiten du kudeaketa (Ikaskideko aholkulariarekin batera). Egoera naturaletan praktikaren talde hausnarketa sistematikoan jarduten dira.

Fase honetan aniztasunaren trataera ardatz bihurtzen da, ikasle guztien ikastea hobetzeko, ikasle bakoitzaren gaitasunetatik eraikitzen diren testuinguruak diseinatu behar dituzte. Horretarako, partaide guztiek 5 lan saio dituzte, bertan guztion ongizana bermatzen duten testuinguruetatik guztion ikastea bermatzen duten testuinguruetarako eraldaketa jorratzen da; gai honetan praktika erreflexiboen sistematizazioa bilatzen da. Bestalde, eskolako ikaste kultura, identitatea eta gestioa lantzeko beste 4 lan saio egiten dira.

Dinamizatzaileari dagokionez, azken fase honetan berak diseinatzen ditu formazio saioak, eta behaketaren bidez identifikatzen dira hobekuntza ildoak.

Amaitzeko, eskola identitate markak gelaratzeko plana eraikitzen da: balio rangoak printzipio pedagogiko bihurtu eta gelaratzean duten ezaugarrien adostasun bidea. Horrekin batera, eskolako kideen konpromiso mailen azterketarako tresnak ezagutu eta garapenerako ildo estrategikoak markatzen eta zabaltzen dira.

II. ATALA. IKASTETXEETAKO ESPERIENTZIAK

5. SARRERA

Atal honetan jasotzen dira Ikaskide Proiektuaren baitan, ikastetxe eta etapa desberdinetan gelaratutako esperientziak.

Etapa desberdinetan garatu daitezkeen esperientzien adibidetzat hautatu ditugu. Hautaketa egiteko etapa eta egoeren aniztasuna eduki ditugu kontutan. Espazioaren mugek murriztu dute zenbait esperientzia interesgarri kaleratzeko aukerak. Haietariko batzuk Jardunaldietan eta Ikaskide blogean argitaratuak izan dira. Azken hauen erreferentziak eta zenbait dokumentu grafiko txertatu ditugu eranskinetan.

Sekuentzia Didaktikoaren printzipioen isla dira ondorengo esperientziak, horregatik, esperientziak azaltzeko gidoi bateratu bat erabili dugu, horri esker, esperientzia guztien oinarri amankomunen identifikazioa erraztea espero dugu.

6. ELIKADURA, OSASUN ETA GOZAMEN ITURRI! (Azpeitiko Ikastolako esperientzia)

Ikaste-bizipenen testuingurua

Orri hauetan jasoko den esperientzia Azpeitiko Ikastolan mamitu da, 2015-16 ikasturtean. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, hain justu. 5. mailako ikasleek parte hartu badute ere, 6. mailakoek ere parte aktiboa izan dute eskola esperientzia honetan. Eta halakoa izan da haien partaidetza, jarraian ikusiko den bezala. Esperientziaren atzean, jakina, zikloan diharduten tutoreak daude: proiektuaren aurreikuspenak zehaztu eta planifikazioa egin, eta erabat engaiatu dira esperientzian, ikaste-bizipenen testuinguru eta prozesu adierazgarria gidatuz. Haien hitzetan, «ikasleek bizi izandakoa inoiz ez ahazteko modukoa da», eta berentzat ere hala izan zela gehitzeko moduan gaude.

5. mailako giza komunitateak IKASKIDE proiektuaren barnean etengabe eta modu sistematikoan landu izan diren IKASKIDETZA printzipio nagusiak hartu ditu aintzat, bai eta landu ere. Izan ere, **erronka** bat adostu, irudikatu eta gauzatu dute elkarrekin: «*Txanelak*, laugarren unitatean, proiektu bezala pintxo erakusketa egitea proposatzen du, baina oraingo honetan ikasleei proposaturiko erronka gorputz hezkuntzako aretoan 6. mailakoentzako jatetxe bat muntatzea izan da». «Erronka itzela», berek aitortu bezala, baina, era berean, kolektibo osoaren helburu, asmo eta intentzio komun bilakatzea lortu dute, bizipen prozesuaren hasieratik amaierara arte.



Eta, erronkari erantzuteko, **ikaskidetzan** aritu da, une oro, 5. mailako gizataldea, elkarrenganako laguntza eta beharra ikaste-bizipenen prozesuaren ezaugarritzat eta baita baldintzatzat ere hartuz. Ikaskidetzan teknika askotarikoak erabiliz, ikaskide taldeak osatu eta eraikitzea helburu izan dute bizi izan duten eskola esperientzia eder honetan. Izan ere, ikaskide talde bakoitzaren helburua izan da 6. mailako *bezero jatun* talde bati menu eta zerbitzu osoa ematea: elkarrekin adostu eta prestatu dituzte menuak, jangelako mahaiak eta eskainiko zitzaizkien zerbitzuen ezaugarriak, alderdi dietetikoei zein estetikoei erantzun nahian. Gainera, 6. mailako bezero guzti-guztiei hainbat eratan erantzuteko moduko beharrak identifikatu eta eskaintzea izan da gela osoaren erantzukizuna.

Bizipen prozesua ikaskidetzan garatu bada ere, aintzat hartu den beste irizpide giltzarrietako bat izan da **norbanakoaren erantzukizunari** arreta berezia jartzea, proiektua behar bezala gauzatzeko. Izan ere, erronkari begira bakoitzak hartutako arduratik haratago, bizi izandako esperientziaren gaineko narrazioa egin du haur bakoitzak, eta, horrekin batera, leku adierazgarria hartu du ikaste prozesuan zehar beharrezko izan dituzten zenbait konpetentziaren gaineko lanketak eta gogoetak ere.

Azkenik, azpimarratu beharra dago prozesu osoan zehar tutoreek sustatu eta antolatutako **elkarrizketa dialogikoaren** bitartez gauzatu ahal izan dutela proiektua eta bizi izandakoaren gaineko kontaketa. Horri esker, ikaskidetzaren beste irizpide gako bati erantzun diote, ondo erantzun ere. Adierazgarriak dira, komunikazioaren eta elkarrizketaren zentzuan kokatuta, tutoreen hitz hauek: «6. mailakoak hain txundituta gelditu ondoren, azken momentuan zerbaitekin eskertzeko beharra sentitu zuten eta denak zutik jarriz bertso bat eta txalo zaparrada handi bat eskaini zieten».

PROTAGONISTEN AHOTSETATIK:

«Erronka itzela izan zen, ikasleak bizi izandakoa inoiz ez ahazteko modukoa. Beraiek sentitzen zuten harrotasuna ikaragarria izan zen, baita irakasleena ere. Hain ederra izan zen bizi izandakoa, ikasleek etxeko sukaldean parte hartzeko nahia sentitu baitzuten. Dena harmoniaz beteta joan zen, inork ez zuen minik hartu.

Neka-neka eginda bukatu arren, ikasle askoren ahotan hau entzun zen: “Jopelass merezi zian, holako gehiago egin behar ditxiau”. Gurasoen aldetik ere poza, irribarrea eta esker ona jaso ditugu, ikasleengan sentimendu horiek pizteagatik. Beraz, hau entzuteak irakasleei indarra besterik ez die ematen aurrera jarraitu ahal izateko».

«(...) IKASKIDETZA proiektuak lagundu digu hausnarketak egiten, nahiak aztertzen, ikaslearengana hurbiltzen, bere beharrak ikusten, ikaslea testuinguru hurbiletara gerturatzen, zein garrantzitsua den ikaslea emozionatzea eta ikaslea beste era batera begiratzea.

Momentu honetan, hori guztiabizi ondoren, LHko etapari marko bat ipintzeko beharra sentitu dugu, eta lanketa horretan murgiltzen hasiak gara». (Azpeitiko Ikastolako 5. mailako gizataldea)

Ikaste-bizipenen prozesua

Txanelak 5. mailari begira jasotzen duen laugarren unitatean kokatzen da Azpeitiko Ikastolak garatutako *Ikaskide* proiektua. Unitateak pintxo erakusketa bat egitea jasotzen badu ere erronka modura, hura egokitu eta gorputz hezkuntzarako eskolarako aretoa 6. mailakoentzako jatetxe bihurtzea proposatu zaie hurrei, proiektuaren azken erronka modura.

Ikaste ibilbide luzea eta sakona egin zuen taldeak, bai unitateak berak aurreikusitako gaitasunak garatzeko jarduerak landuz, eta baita erronkari berari aurre egiteko planifikazioak elkarrekin eginez ere. Berek adierazi bezala, «erronka honen aurrean oso emozionatuta azaldu ziren ikasleak, ilusioz beterik, berehala lanean hasteko gogoarekin...».

Unitateari gainbegirada bat emanez hasi zuten ibilbidea, aztergaiaren nondik norakoak irudikatu eta aipatutako erronka unitatearen asmoetan kokatzeko. Aztergaiaren gaineko aurretiko ezagutzak aktibatu eta aztertu zituzten, lehenik eta behin, unitateari dagokion komikia irakurri eta «Zer dakizu horretaz?» atalean egiten diren galderari erantzunez eta solasaldia eginez. Horrekin batera, eta aztergaia girotzeko asmoz, Golden Apple Quartet-en abesti ezagun baten bideoa ikusiz («Buen menú, señor»), entzunez, abestuz eta imitatuz gozatu zuten.

Gainera, gaiari lotuta, berentzat ezagunak diren telebista programa batzuen tarte batzuk ere ikusi zituzten.

Taldearen identitatea, kohesioa eta konfiantzazko giroa sustatzeko, irakasleak ikaskidetza tekniketako batzuk tartekatu zituen ibilbidean zehar, intentzio osoz. Ikaskidetza proiektuen funtsezko dimentsioa da gelako giza komunitatearen eraikuntza prozesu horretan halako jarduerak tartekatzea Azpeitiko Ikastolako tutoreentzat, hainbat ikaskidetza teknika erabiliz. Esate baterako, *Maleta* deiturikoa (ikusi koadroa).

Ikaskide teknikak: Maleta

Elkar gehiago ezagutzeko ariketa bat da. Taldekide bakoitzak bere identitatea definitzen duten gauzatxoak ekarriko ditu kutxa batean (edo maleta batean): txokolate tableta bat, txokolatea gustatzen bazaio; pilota bat, pilotaria bada; CD bat, musika gustatzen bazaio... Eta, gero, taldeari aurkeztuko dio maletatxoan jasotakoa.

Aztergaiaren dimentsioetan sakontzeko, beste ikaskidetza teknika bat ere erabili zuten: aditu taldeen teknika. Berek azaltzen duten bezala, «alde batetik, talde naturalak, eta, bestetik, kide bakoitza, tokatzen zitzaion gaiaren araberrako adituak. Talde naturala elkartu, gaian agertzen diren arloak edo azpigaiak beren artean banatu. Zehaztuta utzi bakoitza zertan izango den aditua (elikagai motak, digestio aparatua, elikadurarekin loturiko gaixotasunak, autoestimua...). Ondoren, arlo berean adituak direnak taldetan elkartu eta gaia aztertzen hasi ziren. Bertan, irakurriz, elkarrekin ulertuz, partekatuz eta denen artean eskema bikain bat osatu arte. Jarraian, elkarrekin gaia ikasi eta barneratu zuten, bakoitzaren talde naturalean aurkeztu ahal izateko». Ikaskide taldeetan, norbanakoaren erantzukizuna zaindu behar da, eta, horri erantzunez ere, «talde bakoitzak kideek ulertu eta ikasi zutela ziurtatu behar izan zuen».

Talde natural bakoitzak, gaiarekin lotutako edukiak bildu, eta «talde kohesioari begira» mural batean azaldu zituen, jardueren bitartez eginikoak jaso eta ikaskideei aurkezteko moduan: elikadura piramidea, digestio aparatua silueta baten barruan...

Unitatean aurreikusitako gaitasunen lorpen maila arakatzeko asmoz, bakarka ebatzi beharreko egoera baten aurrean jarri zituzten haurrak: «Amamak igandean bere etxera gonbidatu zaitu bazkaltzera. Prestatu dizun menua hau da: entsalada eder bat, espagetiak eta postrerako marrubizko izozkia. Bazkari eder hori egin ondoren, denbora baten barruan, zuk jandako elikagai horiek komunera joan zarenean uzkitik kaka mokordo baten itxuran kanporatu dituzu. Zer gertatu dela esango zenuke?». Menuek izan beharreko oreka dietetikoa aintzat hartuz ebatzi behar izan zuten amamaren menua, egoerak ekarritako galderari erantzuteaz gain.

Orain arte azaldutako ikaste ibilbidea gorago aipatutako erronkari begirako jarduerekin batera gauzatu da. Hona hemen bide paralelo horretan egindako urratsak, zerrendatuta, beren hitzak erabiliz:

- «Talde bakoitzak erabakitako menu osasungarria adostu eta karta batean adierazi zuten.
- Adostutako menuan azaltzen ziren janariekin errezetak egin eta kartoi mehe batean azaldu zituzten (bitarte honetan testu instruktiboa landu ziren).
- Jatetxea sortzeko behar zituzten baliabideak zerrendatu eta horiek nondik lortu zehaztu zuten (mahaiak, astoak, suak, bonbonak ikastolakoak eta platerak eta mahai tresnak Mankomunitatetik).
- Menua prestatzeko behar zituzten jakien zerrenda eta kantitateak idatzi zituzten, baita janaria prestatzeko beharrezko ontziak, tresnak edo gailuak ere.
- Taldez talde irakaslearekin zerrendak berrikusi, eta betebeharrak zehaztu zituzten (sukaldea muntatu, mahaiak prestatu, elikagaiak antolatu, jakiak prestatu, platerak muntatu, zerbitzatu, jaso eta aretoa hasieran zegoen moduan utzi).



Ikasle talde batek prestatutako mahaiak

- Talde bakoitzak bere txokoa nola antolatuko zuen adostu (jantziak, jatetxearen izena, apainketa...).
- Guztia ondo zehatuta utzi ondoren (elikagaiak, kantitateak...), dirua eman zitzaien erosketak egitera joateko. Ondoren, tiketak eta sobera gelditutako euroak ekarri zituzten, kontuak ondo egiteko».

Ikaste-bizipenen testuingurua eta prozesuaren erregulazioa

Aurreko lerroetan jasotako testuinguruaren eta prozesuaren narrazioak eta baita jasotako irakasleen adierazpenek ere agerian uzten dute testuinguru eta prozesu horiek gauzatzeko badagoela profesional bezala osatutako praktika komunitate bat hori guztia erregulatzen, zaintzen.

Hori da, hain justu, IKASKIDE proiektuaren asmo nagusietako bat, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza proiektuan giltzarri diren irakasleen profesionalizazioan eragitea, ikastetxeekin sustatutako harremanen bitartez, Praktika Komunitate Profesionalak eraikitzeke egokitzat jotzen diren baldintzak zainduz eta landuz. Azpeitiko Ikastolako komunitatearen hitzak asmo horren lanketaren lekuko dira:

«HUHEZItik jaso dugun aholkularitzak gure prozesuan aurrera egiten asko lagundu digu. Formakuntza honetan LHko irakasle talde guztia HUHEZlra joateko aukera izatea, hasieratik parte hartzea eta proiektuaren esentzia bizitzea klabeetako bat izan da prozesuan aurrera egiteko, nahiz eta irakasle taldean aniztasun handia dugun.

Gorabehera handiak izan ditugu, segurtasun falta, beldurrak, geure burua zalantzan sentitu, lana ondo edo gaizki egiten ari garen, testuliburuarekin zer egin, unitateak diseinatzeko orduan zailtasunak, aniztasunari erantzuteko orduan kezka...

Aholkularitzak, HUHEZIn eta ikastolan jasotako saioak, horri guztiari erantzuten lagundu digu momentu askotan. Beraz, beharrezkoak eta aberasgarriak izan dira elkarrekin izan ditugun saioak, elkarrengandik asko ikasi baitugu». (Azpeitiko Ikastolako 5. mailako tutorea).

7. “IBILBIDE HISTORIKOA ORION”. Orioko herri ikastolako esperientzia

Ikaste-bizipenen testuingurua

Ikaskidetza proiektua oinarri hartuta, 2015-2016 ikasturtean Orioko Herri Ikastolako Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan lehenengo urratsak egiten hasi ginen.

Lerro hauetan deskribatzen den esperientzia 2015-2016 ikasturtean eta Lehen Hezkuntzako 3. zikloan bizi izandako esperientzia da, hain justu. Diziplinarteko proiektu bat da, 5. eta 6. mailan gauzatua, eta ikas arloetako hainbat eduki biltzen ditu.

Erronkaren diseinuan, oinarrizko konpetentzia gisa, ***Mundu fisikoa ezagutzeko eta berarekin interakzioan aritzekoa*** aukeratu zen ardatz.

Lan ildo horretatik abiatuta, 3. zikloko irakasle taldeak (8 kidez osatua) pentsatu zuen errealitate hurbilean zentratutako proiektu batek bi helburu betetzen lagunduko ziola:

1. Guztion –ikasle zein irakasleen– motibazioa eta jakin-mina goi-goian mantentzea.
2. Ikaste programa garatzea. Horrela, herrian barrena IBILBIDE HISTORIKO-TURISTIKO BAT egitea erabaki zen.

Bost ikasle taldek hartu zuten parte; haietako bi 6. mailakoak ziren, 19 eta 20 ikasle, eta beste hiru talde 5. mailakoak, 19 eta 20 ikaslez osatuak.

Esan gabe doa ziklo honetan esku hartu zuten irakasleen prestakuntza eta lankidetzak ikaragarria izan zela. Taldearen sentipen positibo, alai eta egokien lekuko, hona hemen ibilbidea hasteko sortu zuten bertsoa:

*Gure herrian ditugu
makina bat kale.
Herri arrantzalea,
herri arrantzale.
Txoko bitxi politak
ditugu debalde,
bisita dezagun
denok Goiko kale.*

*Salatxotik abiatu
Piliku aldera,
taldea elkartuta
Krexentxiñenera,
San Martin ahaztu gabe
gora eta behera.
Bisita egiteko
ez galdu aukera!*

Proiektua gelaratu aurretik, irakasle taldeak egitekoen nondik norakoak diseinatu zituen; betiere, malgutasuna eta jarduna doitzeko edo bideratzeko aukerari uko egin gabe.

Irakasleen ustez, esan daiteke hauek direla erronka honen ezaugarri nabarmenenak:

- Ikasleak ekintzara bideratu ditu.
- Ikaste prozesuko protagonista nagusiak izan dira.
- Autonomoak izateko tarte ugari izan dute, baita arduratsuak izateko ere.
- Diziplinartekotasunean (matematika, hizkuntzak –euskara, gaztelania eta ingelesa–, plastika eta ingurune) aritzeko aukera eta ikasitakoa aplikatzeko modua izan dute.
- Informazioa eskuratzeko, jasotzeko eta tratatzeko moduak ezagutu eta erabili dituzte.
- Lankidetzan aritu dira beren mailakoekin eta beste adin batzuetakoekin.

Diseinuan, proiektuaren bidez zer ikaste emaitza lortu beharko lituzkete definitu zen; edukiez gain, erabilitako prozesua eta erakutsitako jarrera ere kontuan hartu ziren. Nagusiak honela adierazi ziren:

1. Erronka zein den jakin ondoren, zenbait informazio iturri erabilita datuak biltzea, interpretatzea, inferitzea... Banaka edo talde lanean.
2. Adituek igorritako informazioa modu aktiboan entzun eta beharrezko datuak erabiltzea.
3. Azalpen testuak osatzea adierazpen egokia eta zuzena erabiliz, datu matematikoak barne.
4. Besteei ahoz aurkeztea aukeratutako informazioa, keinuak erabiliz.
5. Norberak bere lanaren erantzukizuna hartzea eta beraren eta besteen ekintzen ebaluazioa egitea.

Erronkaren amaierako fasean, talde bakoitzak bere **INFORMAZIO PANELA** sortu behar zuen: etxearen, plazaren, moilaren edota leku konkretu bati edo inguru jakin bati buruzko informazioa itsatsi behar zuten, 3 hizkuntzatan adierazita – euskaraz modu zabalean eta gaztelaniaz eta ingelesez laburrean–, eta, lagungarri modura eta irudizko komunikazioa bermatuz, argazki zaharrak eta tokian tokiko zirrimarra edo «bozetoa» erantsi behar zuten.

Ondoren, eta era motzean, garapenean erabilitako teknika kooperatiboak aipatuko dira, eta, azkenik, proiektuaren hedapenaren berri emango da.

Ikaste-bizipenen prozesua

Arestian esan bezala, erronka IBILBIDE HISTORIKO-TURISTIKOA ORION gauzatzea zen. Erronka aurkezteko, irakasle taldeak bertso bat prestatu zuen.

Esan beharra dago ikasleak launakako talde heterogeneoetan banaturik daudela duela hiru urtetik hona, sistematikoki, irakasleek hala erabakita. Bakoitzak bere egitekoa du: bat arduraduna da, beste bat idazkaria, hirugarrena lan arduraduna eta azkena laguntzailea. Funtzio orokorren artean, garai horretan eta berek hala erabakita, azpimarratuta daudenak betetzen saiatu ziren.

Arduraduna:

- Badaki zer egin behar den. Irakasleak emandako azalpenak gogoan hartzen ditu, eta, taldeko norbaitek beharra badu, berak argitzen dio.
- Irakaslearekin bera komunikatzen da taldearen izenean.
- Ikasten laguntzen du.

Laguntzailea:

- Laguntza behar duenari bereziki erreparatzen dio.
- Taldekide bat falta denean, haren ardura berak betetzen du.
- Ikasten laguntzen du.

Idazkaria:

- Taldearen txandak eta tonua kontrolatzen ditu.
- Taldeko ortografia, kaligrafia eta txukuntasuna kontrolatzen ditu.
- Ikasten laguntzen du.

Materialaren arduraduna:

- Taldekide bat falta denean, harentzako fitxen eta etxeko lanen ardura hartzen du.
- Agendak begiratzen ditu.
- Ikasten laguntzen du.

Behin erronka aurkeztuta, lantzekoak ziren ikaste emaitzak partekatu eta taldekatze heterogeneoak osatu ondoren, lehenengo urratsa abian jarri zen: herriko 10 gune esanguratsu zerrendatu, eta taldeei aurkeztu zitzaizkien.

Ikasleek autonomiaz lan egitea zenez helburua, demokratikoki beren gustuko gune bat aukeratu zezaten eskatu zitzaien, eta, taldeka, bozka eginda, bat aukeratu zuten.

Ondoren, landuko zen gaiari buruzko aurretiko ezagutzak aktibatze aldera, lauko taldetan eserita, ORRI BIRAKARIA teknika baliatu zen, zer zekiten jakiteko eta zer jakin nahi zuten azpimarratzeko. Modu honetan aritu ziren:

Ikaskidetza teknikak: Orri birakaria

Talde bakoitzari orri zuri bat eman zitzaion, eta ikasle bat hasi zen zekiena idazten. Erlojuaren orratzen noranzkoari jarraituta, ondoko kideari pasatu zion orria, eta hark, besteak idatzitakoa irakurri ondoren, zerbait berria idatzi zuen. Hala, bata bestearen segidan, taldeko kide guztiek parte hartu zuten. Talde bakoitzak behar adina aldiz biratu zuen orria. Talde batzuen lana emankorragoa izan zen besteena baino.

Behin gaia argituta, identifikatu, eta, gero, datu bilketan hasi ziren. Informazio zehatzaren jabe egiteko, liburu sorta zabala eskuratu zuten. Askok etxetik ekarri zuten, eta, horrez gainera, Interneteko dokumentazioa, gurasoek aurreratutakoa, eta herritar eta adituengandik lortutako jakingarriak bildu zituzten.

Turismo bulegora hurbiltzeko parada ere izan zuten. Harrigarria bada ere, gehienentzat ezezaguna zen. Esku-orriak eta planoak hartu, eta, irakurritakoarekin eta ikus-entzunekeotan ikusi eta entzundakoarekin, gelara itzuli ziren.

Talde handian informazio baliagarria hautatu, eta orri zuri batean idatzi zuten.

Argitu behar da talde bakoitzak karpeta bat zuela, erabiltzen ari ziren testu, irakurgai, idatzi, laburpen, ondorioztatutako testu eta abarrak jasotzeko.

Egitekoen harira bueltatuz, beste behin, Orioko alde zaharreko ibilbidean jarrita dauden argibide taulak arretaz ikustera joan ziren. Formatua ikusi, idatzitakoa irakurri eta ezaugarri nagusiak nabarmendu zituzten: data, mendea, eraikuntza mota, erabilera, etab.

Hausnarketa horren ondoren, LAPITZAK ERDIRA teknika erabilia, galderak idatzi zituzten, eta, handik aurrera, erantzunak bilatzen hasi ziren, zenbait euskarritan. Ondoren argituko dugu nola jardun zuten.

Ikaskidetza teknika: Lapitzak erdira

Betiere talde txikitan zeudela, orri bat eta lapitz bat erdian jarrita, taldekide batek galdera bat proposatu zuen, eta besteen iritzia jaso zain geratu zen.

Galderaren egokitasunaz, zuzentasunaz eta osotasunaz eztabaidatu eta gero, lehenengo taldekideak galdera zuzena idatzi zuen, orri zuri batean.

Erlojuaren orratzen noranzkoan, ondoko ikaskideak gauza bera egin zuen, eta halaxe beste guztiek ere, ahalik eta galdera gehien osatu arte.

Bestalde, Plastikako orduan, zirrimarrak (bozetoak) egin zituzten. Eredu bat baino gehiago erabili zituzten: talde batzuetan –6. mailan, esaterako–, berek ateratako argazkiak; 5. mailan, berriz, *Karkara* herriko aldizkaritik lortutako argazkiak. Amaitutakoan, erakusgai jarri, eta politena bozkatzeko aukera izan zuten ikasleek. Marrazkiak anonimoak ziren, eta esan beharra dago onena hautatzeko erabilitako irizpidea zuzena izan zela.

Informazioa biltzen, behar ez zena baztertzen eta testua osatzen aritu ziren. Horren aurretik, liburuetan aurkitutako testuak, Internetetik eskuratutako dokumentuak eta halakoak modu partekatuan irakurri zituzten, IRAKURKETA PARTEKATUA erabiliz.

Ikaskidetza teknikak: Irakurketa partekatua

Esate baterako, oinarrizko talde bakoitzak testu bat eskuratu zuen. Taldekide batek lehenengo paragrafoa irakurri, eta haren ondokoak, aurretik aipatutako teknikan esanda bezala erlojuaren orratzen noranzkoan, ulertutakoa azaldu zuen bere hitzetan. Taldeko beste biek, orduan, ados zeuden ala ez adierazi zuten. Hala, bata bestearen segidan testu osoa irakurri arte.

Bidean, zailtasunak izan zituzten, noski; adibidez, hitzen bat ulertzen ez zutenean. Orduan, hiztegia kontsultatzen zuten, edo irakasleari laguntzeko eskatzen zioten. Ulertu eta gero, orri zuri batean idatzi zuten behar zuten informazioa. Kasu honetan, idazkaria arduratu zen, besteak lagun zituela.

Jarduera honetatik ateratako informazioa elkarrekin trukatu behar zutenez, PUZZLEA izeneko teknika praktikatu zuten.

Lehenengo taldeko kideak beste taldeetara hurbildu ziren, banaka. Beren egitekoa zekiten informazioa besteei adieraztea zen. Oinarri taldekoek zalantzak argitzeko aukera izan zuten, galderak eginez.

Txandaka, denek denena entzun, ulertu, eta idatziz adierazteko parada izan zuten.

Datuen falta zegoela eta, talde batek behintzat aditu bat gelara ekartzea erabaki zuen. Harentzako galdera sorta bat prestatu zuten, talde txikitan. Berarengandik jasotako informazioa karpeta orriari erantsi, eta aurrera!

Bitartean, Matematikan, Orioko plano hartuta, guneak kokatzeaz gain, herriko hainbat leku eta etxe ezagun topatzeko edo kokatzeko eskatu zitzairen. Jarduera horretan, 1-2-4 teknika kooperatiboa baliatu zen.

Ikaskidetza teknikak: 1-2-4

Ikasle bakoitzari herriko plano mutu bat eta 20 izenez osatutako zerrenda bat eman zitzaion. Planoan, herriko leku esanguratsuak zenbakiz edo letra larriz markatuta zeuden. Irakasleak zerrendako izenak eta zenbakiak edo letrak elkartzeko eskatu zien.

Bakarkako lana egin zuten hasieran. Gero, binaka jarrita, bakoitzaren erantzunak partekatu, eta haiei buruz hitz egin zuten. Gehienetan, ados zeuden; hala ere, tarteka, ados jarri ezinik ere ibili ziren, bakoitzak berea tinko defendatuz.

Azkenik, talde txikietako bi bikoteek elkarren lanak begiratu ondoren, erantzun egokia adostu zuten.

Denek parte hartu zuten. Uneren batean, bat edo beste blokeatuta gelditu zen, baina, ondokoak argibideak eman, eta aurrera jarraitu zuten. Ondoriozta daitekeenez, erronka honetan, norbanakoaren lana eta talde lana nahasian erabili dira. Azken horrek pisu handia hartu du.

Erabateko etekina ateratzeko, talde kohesioa eta taldekide izatea bermatzeko, izen eta logotipo bana aukeratzeko eskatu zitzairen, helburu komun batekin: talde bat zirela eta guztiek elkarren laguntzaz ikastea posible zutela sinestea.

Beren **LAN KONTRATUA** egiteko ere eskatu zitzairen. Autorregulazioa eta koebaluazioa bildu behar zituen kontratu horrek, eta beren gain hartuko zituzten konpromisoak (eginbideak) ere zehaztu zituzten.

Berriz ere talde txikitan eta 1-2-4 teknika erabilia, esaldi sorta bat idatzi zuten. Talde guztien proposamenak jaso, eta irakasleak arbelean idatzi zituen. Asko errepikakorrak izan ziren; hala ere, hamaika esaldi proposatu zituzten. Bozka bidez, sei esaldi aukeratu ziren; honako hauek, hain zuzen ere:

Lan kontratua:

- Taldekide batek bere iritzia proposatzean, entzun egin behar zaio.
- Denok parte hartu behar dugu.
 - Zerbait proposatu behar da beti, ez besteean entzun eta gero idatzi.
 - Taldekide batek zerbait ulertzen ez badu, lagundu egin behar zaio.
 - Lanean ari garenean ezin da jolastu.
 - Materiala ondo zainduko dugu.

Hamabostero, erregulazio galdetegia osatu zuten, bi erataria:

- a) Autoebaluazioa, zeinetan bakoitzak bere buruari buruzko hausnarketa egin zuen.
- b) Koebaluazioa, zeinetan taldekideen ardurak edo betebeharrak baloratzeko parada izan zuten.

Horrela, bada, handik hamabost egunera, taldearen funtzionamendua ebaluatu zuten. Bakoitzak bere egitekoa nola bete zuen hausnartu zuen; beraren ustez nola egin zuen idatzi, eta zer alderdi egin zituen ondo eta zein hobetu behar zituen. Lan hori taldekide bakoitzak egin eta gero, guztiek bestearen lanari buruzko iritzia idatzi zuten (koebaluazioa).

Oro har, erabaki zuten oso ondo ari zirela lanean; dena den, zer hobetu behar zuten eta nola lagundu ere aztertu zuten zenbaitek.


Hala lan eginda, ikasitakoaz gain, ikasteko eraz eta estrategiez ohartu eta jabetu ziren ikasleak.

Prozesuaren azken faserantz hurbiltzen ari ginen...

Bost panelak bukatuta zeuden. Ibilbidean kokatu eta besteak informatzea besterik ez zitzaien geratzen.

Makinak berotzen hasteko eta konfiantza hartzen hasteko, 5. eta 6. mailakoek pentsatu zuten iritsia zela tokian tokiko informazioa elkarri komunikatzeko garaia.

1. Lehenengo irteera antolatu zen lekuan bertan, talde batek panela erakusgai jarri eta azalpenak eman zizkien beste taldekoei. Adibidez, 5.A mailakoak bost taldetan banaturik zeudela, talde txiki batek 5Bkoei, beste oinarri taldeak 5Ckoei, eta, modu berean, 6Akoei eta 6Bkoei. Errotazioz, guztiek guztiena entzun zuten.



Behin betiko irteera...



5 ikasmailek gauzatu zuten erronka. Beren gunean kokatu, eta ikastolako Lehen Hezkuntzako beste talde guztiak berenera hurbildu ziren, ibilbidea eginez.

Aldez aurretik, irakasle taldeak taula batean zehaztu zituen bisitagunea eta talde bakoitzaren ordutegia. Bi saiotan banatu zuten goiza: lehenengo zatian, 3. eta 4. mailakoak, eta, bigarreanean, 1. eta 2. mailakoak.

Esleipenean ikastalde bakoitzaren abiapuntua gune bat izanik, 20 bat minutuko azalpena entzun, eta, galderak planteatu eta gero, beste gune batera igaro ziren, hala bost guneetatik igaro arte. Oso ondo koordinatuta joan zen, eta eguraldia ere lagun izan genuen, ateri eta eguzkitsu egon baitzen.

Informazioa emateko, talde lanetan banatu ziren, eta entzutera hurbildutako taldeak ere launaka hurbildu ziren. Errotazioz, goiz batean guztiak guztiena entzuteko aukera izan zuten.





Ikaste-bizipenen testuingurua eta prozesuaren erregulazioa

Ikasleak protagonista sentitu ziren; serio eta arduratsu jokatu zuten, eta irakasle-gidariaren rola sinetsita aritu ziren. Esperientzia ezin hobea: GUZTIONTZAT!

Aipatzekoa da handik gutxira Gasteiztik erretiratu talde bat etorri eta informazioaren berri ematea pentsatu zela. Beraz, 3. irteera bat egin genuen zenbait ikaslerekin, beren borondatez (ordurako oporrak hartuta baitzeuden). Orduko hartan erabilitako hizkuntza gaztelania izan zen. Ikusgarria! Aitonamonak, adinduak, txundituta zeuden ikasleek erakutsitako ardura eta kompetenziagatik.

Denen artean egindako erronka hark asko lagundu zien talde kontzientzia izaten: guztiek parte hartzea lortu zen –bakoitzak ahal zuen neurrian, noski–, guztiek egin baitzuten ekarpenen bat edo beste.

Elkarreragin horietatik, sentimendu eta emozio ugari azaleratu ziren: etsipena, ezina, nahigabea, asmatu ezinik zebiltzanean; amorrazioa, atsekabea, ikaskideren bat gaizki zegoenean; poza eta alaitasuna, proiektua aurrera zihoan neurrian; harrotasuna, gai zirela antzematen zutenean:

«Nik ere badakit egiten, azaltzen, aurkezten».

Irakasle taldeak positibotzat jo zuen proiektua, ikasleak biziki interesatuta ikusi baitzituzten jarduerak gauzatzean.



8. INDUSTRIALIZAZIOA. Itxaropena ikastola

Ikaste-bizipenen testuingurua

Hemen azaltzen den proiektua Itxaropena Ikastolako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako haurrek garatu zuten, 2014-2015 ikasturtean. *Txanela* liburuan proposatzen den proiektua abiapuntutzat hartuta, ikaskide taldetan antolatzeko eta ikaskidetzaren bidez ikasten ikasteko lehen urratsak egin zituzten proiektu honen bidez; izan ere, lehen esperientzia izan zen ikasleentzat.

Aipatutako testuinguruan kokatuta, bi erronkari erantzun nahi zitzaien proiektu honekin: alde batetik, ikaskidetzan ikasteko esperientzia batean murgiltzea, eta, aldi berean, ikasleen ikaste prozesuarekiko autonomia eta erantzukizuna sustatzea.


Proiektu honen bidez, ikasleek aukera izan zuten lantzen ari ziren gaiaren –hau da, industrializazioaren– inguruan proposatutako azpigaiak lantzeko, eta gaiaren zenbait alderditan sakontzeko eta elkarrekin trukatzeko bidea eman zitzaien.

Ikaskide talde bakoitzak bi eginkizun izan zituen:

- Artelan baten bidez industrializazioaren gai nagusien inguruko azalpenak ematea.

- Industrializazioaren gako nagusiak identifikatzea eta ezagutza horri lotutako galderei erantzuten jakitea.

«Lehenengo egin genituen taldeak eta gero zozketa baten bidez banatu genituen gaiak: Industrializazioa, Lan sektoreak, Industrializazioa Euskal Herrian... Guk Makina sinpleak azaltzeko infograma bat egin genuen».



Ikaste-bizipenen prozesua

Hasteko, taldeak sortu genituen. Taldeen heterogeneotasuna bermatzeko, gaitasun desberdineko umeak bildu genituen talde bakoitzean. Bi taldekatze mota egin genituen: oinarrizko taldeak eta aditu taldeak. Oinarrizko taldeetan, hautatutako gaien inguruko ezagutza partekatu zuten. Kide guztien oinarrizko kontzeptuen ikaste prozesua bermatzea izan zuten helburu taldeetan. Aditu taldeek gaien ikerketa egin zuten, eta talde bakoitzari egokitu zitzaion lana aurkeztu. Horretarako, mural bat eta ahozko aurkezpena prestatu zituzten.

Ikaste sekuentziari dagokionez, honako pauso hauek eman genituen:

1. Hasteko, **helburu komuna** (erronka) ondo identifikatzeari ekin genion, eta, aldi berean, taldearen antolaketa eta kohesioa indartzeko estrategiak landu genituen.

Une horretan, baliagarria egin zitzaizkigun “Diana” eta “Eskuak” izenez ezagutzen diren dinamika.

Ikaskidetza teknika: Diana

Diana bat eman genien. 4 ataletan banatu genuen diana. Atal bakoitzean, taldekide batek bere berezitasunak eta bere ustez taldeari emateko zituen trebetasunak idatzi zituen.

Ikasle bakoitzak berari zegokiona idatzi ostean, lerroz lerro azertu zuten guztiek idatzitakoa, eta, horrela, alderdi komunak aztertuz, taldeari identitatea emateko talde izen bat bilatu zuten.

“ESKUA” taldekide bakoitzak bere eskua egin zuen. Atzamarretan taldeari eskaintzeko zuena eta taldeengandik espero zuena idatzi zuten.

2. Bigarren urratsa **lanaren planifikazioa** izan zen. Irakaslearen gidaritzapean, talde bakoitzak bere lan kontratua egin zuen. Kontratuaren bidez, zereginak identifikatu zituzten, eta bakoitzaren ardurak, epeak eta haien arteko konpromisoak zehaztu. Kontratuari esker, hobeto irudikatu zuten prozesua, eta, aldi berean, tresna lagungarria egin zitzaien talde barruko erantzukizunak eta rolak zehazteko.
3. Hirugarren urratsa **murala** egitea izan zen.

Zenbait urrats egin, eta elkarlana antolatzeko estrategia batzuk erabili genituen.

Hasteko, gaiak identifikatzeari ekin genion. Horretarako, *Txanela* liburuko irakurgaiez eta berek ekarritako material osagarriez baliatu ziren, eta bakarkako eta taldeko lana tartekatu zituzten.

Taldeko partaideek, txandaturaz, taldeko ordezkari-bozeramaile rola bete zuten, hau da, taldean egindako lanari buruzko xehetasunak ematea. Kontratuaren egoeraren berri eman, egindako urratsak azaldu eta lanaren egoeraz mintzatu ziren.

Bestalde, zenbait zeregini egin zieten aurre: irakurri, azpimarratu, idatzi, argazkiak hautatu, marrazkiak egin.

Prozesuan zehar, gaien inguruan adostasuna lortzeko beharra izan zuten hainbat unetan: izenburu eta azpiizenburuak hautatzeko, adierazpideak (argazkia/testua...), formatua.

Kontsentsua lortzeko, zenbait teknika erabili genituen; besteak beste, 1,2,4 teknika.



- **Ikaskidetza teknika: 1-2-4 teknika**


Taldeko kide guztiek parte hartzea bermatzeko eta aldi berean taldean erantzunik jarduera modu onenean ebazteko teknika da. Demagun 4ko talde bat dugula. Lehenik, taldeko kide guztiek bakarka erantzun edo ebatziko dute jarduera. Behin bakoitzak bere erantzuna lortu duenean, binaka jarri, eta, bien artean, erantzun onena zein den adostuko dute, bien erantzunak kontuan hartuta; behin bikotean adostasuna lortuta, lau taldean bikote bakoitzak bere ebazpena adierazi, eta adostasuna bilatuko dute bikote bien artean. Horrela, ezinbestean denek parte hartuko dute, eta, aldi berean, erantzun onenarekin joko dute, behin betiko emaitza heltzerako 3 aldiz hausnartua dutelako (bakarka, bikotean, laukotean).

4. Laugarren urratsa **galdera-erantzunak prestatzea** izan zen.

Aditu taldekoek beren gaiarekin erlazionatutako galdera nagusiak identifikatu zituzten, eta galdera-erantzunen orri bat prestatu. Urrats horretan ere bakarkako eta taldeko lana tartekatuz genituen. Oinarrizko taldeetan erantzun behar zituzten galderak, eta, horretarako, taldeko adituen laguntza izan zuten.

«Sei pertsona gaude talde bakoitzean, eta gu banatu ginen hiru eta hiru, ze pertsona asko badaude taldean zailago da adostea... Gero elkartu ginen, ze ez da bakarrik zuri tokatu zaizuna, baizik eta taldekideekin ikasi behar duzu dena... bakoitzak bere zatia eta beste dena».

5. Bosgarren urratsa: **muralen aurkezpena**. Talde bakoitzak bere lanaren edukia aurkeztu zuen. Muralaz baliatuz egin zuten aurkezpena. «Desberdintasun handiak egon ziren aditu taldekoen artean; hala ere, denek beraien posibilitatetik haratago egin zuten aurkezpena, hots, taldeetan aritzeagatik bakarka erakusten ez zuten ziurtasuna eta gaitasuna adierazi zuten».



Ikaste-bizipenen testuingurua eta prozesuaren erregulazioa

Ikaste prozesuaren azalpenean ikusi dugunez, ikaskide taldeetan antolatuta eta erronkari heldu bitartean, zenbait estrategia jarri ziren martxan, konpetentziak garatzeko. Konpetentziak lantzeko beharra taldearen beharretatik sortu zen; beren jardueretan sumatutako beharretatik, alegia.

Elkarrekin ikasi konpetentziari dagokionez, elkarlana arrakastatsua izan dadin ezinbestekoak diren jarrerak landu ziren: besteek egiten dutena baloratu eta hobetzen lagundu, balorazio baikorretan pentsatu («zer ekarpen egiten dio XXXek taldeari?»), partaide bakoitzak hobetu beharreko eremuak identifikatu, eta denon artean pentsatu nola hobetu. Elkarri entzun, eta bereziki besteek esaten dutena baikortasunez baloratu.

Ikasten ikasi konpetentziari dagokionez, lana planifikatu, eta planifikazioaren jarraipena egiteko estrategiak erabili ziren; horrela, taldearen ardura eta bakarkakoen erantzukizuna sustatu ziren. Konpetentzia horren garapenari begira, oso baliagarria suertatu zitzairen talde bakoitzak planifikazio tresna bat izatea. Hari esker, lanaren autorregulazioa sustatu zen, ikasleek egin beharrekoen eta egindakoaren inguruko balorazioak egin baitzituzten etengabe. «Lan kontratua oso tresna baliagarria izan zen; kontratuaren bidez, arduren banaketa eta bakoitzaren egin beharrekoak hobeto irudikatu zituzten».

Prozesuaren bukaeran, lanaren balorazioa egin zuten. Lehenengo pausoan, taldeen lanaren balorazioa egin zuten, ea ondo egin zuten edo zer edo zer hobetzeko zeukaten. Ondoren, taldekide bakoitzak beste taldekideak baloratu zituen; alegia, zertan zen ona eta zertan hobetu behar zuen. Oro har, balorazioak baikorrak izan ziren, eta ikusi zuten posible dela eta positiboa dela modu kooperatiboan lana egitea.

«Taldeka lan eginez erosoago sentitzen gara eta elkarri laguntzen diogu, guztion iritzia ematen dugu».

Komunikatzen jakin konpetentziari dagokionez, iritzia emateko estrategiak landu ziren.

«Gure kasuan, taldean sortzen ziren interakzio guztietan euskararen erabilera bultzatu genuen, eta ikasteko beste testuinguruetan baino aukera gehiago izan zuten elkarren artean euskaraz aritzeko».

Konpetentzia espezifikoei dagokienez, industrializazioaren gaiarekin lotutako kontzeptuak ulertzeko eta adierazteko gaitasuna lantzeko aukera eman zigun proiektuak.

«Gero azterketa... baina azterketa taldeka da... lan gutxiago egiten dugu, baina den-dena ikasi behar duzu... eta bakarrik urduriago sentitzen zara...».

9. ATE IREKIAK. IKASLEA PROTAGONISTA LEHENENGO PERTSONAN. Ibaizabal ikastola

Ikastea mundua eta gure bizimodua ulertzeko ezartzen ditugun erronkak gainditzea da, gutaz eta munduaz gauzak aurkitzea. Errealitatea ulertzea eta errealitate horretan parte hartzea ezinbestekoa da horretarako. Testuinguru errealetan.

Erronka honen bitartez, Ibaizabal Ikastolako matrikulazio kanpainaren barruko ekintza nagusietako bat antolatu beharko dute ikasleek: ate irekiak. Gertakari erreal bat prestatu behar dute. Erabilgarria da, etorkizuneko hezitzaile potentzialak erakarri beharko dituztelako; beren profil profesionala interesgarri bilakatu eta baliatu beharko dute, eta egingarria da formatu eta epe aldetik. Beraz, ekintza konplexu bat antolatu behar dute, zenbait parte hartzaile eta eragile kudeatu beharko baitituzte, baina beren gaitasunei begira moldatzen da.

Ikaste-bizipenen testuingurua

Ibaizabal Ikastola Durangon kokatzen da. Ikastola berezia da. Zergatik da berezia? Espazio edota eremu txiki batean hainbat saltsa biltzen direlako; Batxilergoa eta Lanbide Heziketa jorratzeaz gain, formazio ez arautuko ikasketak egiteko aukera ere badago bertan. Errota batek elikatzen duen espazioa izanik, beti mugimenduan dagoen ikastola bat da. Bitxia da, bestalde, ikastola honetan Batxilergoan hasten direla, ez lehenago. Aurretik, gure bazkide diren beste ikastola batzuetan egin dute ibilbidea. Hori dela eta, aipatzekoa da ikastola honetan dagoen aniztasuna. Ez bakarrik ikastola batetik baino gehiagotatik datozelako, baizik eta, aurrez aipatu bezala, prestakuntza eskaintza askotarikoak sortzen duen ikasle profil aberasgarriagatik (adina, jatorria, euskararekiko lotura, ikasteko ohiturak, harremanak izateko modua...). Hori oso agerikoa da **Lanbide Heziketako goi mailako zikloan**.

Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa eskaintzen dugu Ibaizabalen. Zikloak bi urte irauten du, eta eskola presentzialak eta praktikak txertatzen dira. Zikloa 50 ikaslek osatzen dute; maila bakoitzeko 25 dira.

HUHEZIK eskaintako ikaskidetza formazioa Lanbide Heziketako klaustro guztiak osatu du; lehenengo zein bigarren mailan ematen duten irakasleek egindako prozesua dugu. Formazio honen oinarrietan txertaturik dagoen *Egiten ikasi*

konpetentzia gure azalean bizi izan dugu; eta, horretaz gain, ikasleekin praktikan jarri dugu. Zenbait ikasturtetan hainbat erronka eraman ditugu aurrera; eta haietako bat *Ate irekien* esperientzia izan da.

Ikaste-bizipenen prozesua

Prozesu hau zikloko lehenengo mailan kokatzen da, bigarren ebaluazioan. Zirrargarria izan zitekeen erronka batean pentsatzen hasi ginen, eta eduki bateragarriak izan zitzaketen ikasgaiak batu nahi genituen. Ikastolak urtero antolatzen ditu ate irekien saioak, matrikulazio kanpainaren barnean, eta ikasleen esku uzteko proposamena bururatu zitzaigun. Bi ikasgai aukeratu genituen erronka aurrera eramateko: Giza Trebetasunak (GT) eta Lanbide Prestakuntza eta Orientabidea (LPO). Ikasgai horiek hautatu izanaren arrazoia jakiteko, hona hemen gure sekuentzia didaktikoaren muina:

Konpetentzia orokorrak:

- Aurrez aurreko komunikazioa. Norberaren nahiak/beharrak adieraztea (ikaskidetza).
- Komunikatzen jakitea (geurea).

Konpetentzia espezifikoak:

- Giza trebetasunak menderatzea gizarte harremanak eta komunikazio eraginkorra errazten dituzten estrategiak eta teknikak erabiltzeko. Taldean lan egiten ikasi, gatazkak sortuz gero eraginkortasunez kudeatuz eta giro afektibo egoki batean (GT).
- Ikasleak lan aukerak identifikatzea eta bere ibilbide profesionala planifikatzeko bidea martxan jartzea, bere profil profesionala garatzeko (LPO).

Ikaste emaitzak (erronka bete dela identifikatzeko adierazleak)

- **Denok parte hartzea**
 - Taldeko ikasle guztiek zeregin bat bete dute diseinuaren eta lanaren garapenean.
 - Aurkezpen saioan, taldekide guztiek zeregin bat izan eta bete dute.
 - Entzuleen % 50ek behintzat proposaturiko dinamiketan parte hartu du.
- **Bakoitza eroso sentitzea**
 - Giro eroso bat bermatzeko neurriak jarri dituzte ikasleek (talde dinamikak erabili dira, egoerak uzten duen punturaino behintzat).

- Balorazio inkestan, aurkezleak eta entzuleek adierazi dute gustura sentitu direla.
- Balorazio inkestan, aurkezle eta entzuleek adierazi dute konfiantza giroa izan dutela dinamikak aurrera eramaterakoan.
- **Giro afektibo egoki batean jokatzea**
 - Erronka giro afektiboki egoki batean gauzatu da, alde guztietatik. Taldeko lanean ez ezik, baita erronkaren garapenean zehar ere (hartzaileak...).
 - Entzuleek gaiari buruz egindako balorazioak.
- **Lan eta ikasketa aukera posible guztiak azaldu dituzte**
 - Lan aukera posible guztiak azaldu dituzte.
 - Entzuleen lan aukerei buruz egindako galderen egokitasuna (informazio osagarria eskatzeko, datu zehatzak eskatzeko...).
 - Zikloak ikasten jarraitzeko ematen dituen aukerak azaldu dira.
- **Ibaizabalen ikasteak plus bat ematen digula sentitzea**
 - Ibaizabali buruzko erreferentziak eta balorazioak txertatu dira aurkezpen guztian zehar (metodologia, gertutasuna, gelako giroa...).
 - Ibaizabalgo metodologiari buruz entzuleek egindako galderak.
 - Ibaizabali eta ikastolei dagokien dimentsioa ikusarazi da (ikastolen mugimendua, hezkuntza proiektuak, euskalgintza, auzolana...).
- **Hartzaileak liluratuta sentitu dira aurkezpenarekin**
 - Ikusi da aurkezpenaren alderdi formal zein ez formalak diseinatu eta landu direla (espazioaren antolamendua, denborak, IKT baliabideak...).
 - Arretaz zaindu dituzte komunikaziora begirako giza trebetasunak (euskara, hitzezko komunikazioa, hitzezkoa ez dena, zinesia, bolumena...).
 - Balorazio inkestan jasotakoak (zikloak ematen dituen aukerak jaso dituztela adierazten dute, ikasleek azaldu dute zalantzak argituta geratu zaizkiela, HHrekiko jakin-mina erakutsi dute parte hartzaileek).

Ikaste printzipioei begira azpimarratzekoak....

Alde batetik, dinamika hain ekintzaile eta sortzaileetan murgiltzeak hainbat ohitura astintzea ekarri zigun. Ohituak ginen proiektuetara, baina konturatu

ginen hutsuneak genituela ikaskidetzako formazioan apurka-apurka ikasitakoan. Ikasleek ez zuten guk uste genuen guztia ikasten eta barneratzen; hainbat kontzeptu eta jarrera airean geratzen ziren. Metodologia honi esker, aipatzekoa da nola aldatu diren ikasleen ikaste prozesuak; esaterako, taldeko lanetan orain arte gatazkatsua zen lanaren banaketa aldatu egin da, aurrez taldeko lana kudeatzeko egiten genituen urratsekin konparatuz gero. *Nola eskatzen genien erakusten ez genuen zerbait?*

Ildo horretatik bururatzen zaigun beste puntu bat ebaluazioa bera da. Horretan ere aldaketa garrantzitsu eta esanguratsuak izan ziren. Ebaluazioa bi momentutan banatu zen: diseinu fasean zehar, behaketak eta neurketak egin ziren, eta, era berean, aurkezpenaren ostean ere baloratu zen lana. Horretarako, eta beren ikasketa prozesuaren jabe izateko, aurrez eman zitzaizen zer irizpide baloratuko ziren; ikaskidetzan barneraturiko ikaste emaitzak.

Ebaluazioari lotuta aurrerapausoak eman ditugun arren, badira **hobetzeko detektatu ditugunak**. Esaterako, ebaluazio irizpideen zehaztasun falta, hau da, zehaztasun handiagoz deskribatu behar da zer esan nahi duen item bakoitzean puntuazio bakoitzak, irakasle eta irakasleen ebaluazioen artean inolako ezberdintasunik ez izateko eta guztiok balorazio berera iristeko. Azken batean, ebaluazio justu(ago) bat egiteko.

Ikaste-bizipenen testuingurua eta prozesuaren erregulazioa

Esango genuke gure lan egiteko estiloan pasioa dagoela. Gauza asko egiten ditugu, eta pasio (eta intentsitate) handiarekin. Ibaizabalgo itsasontziak behar-beharrezkoa du pasioa, itsaso zabalean aritzeko. Batzuetan, kaietara heltzeko behar dugu; besteetan, irletatik ateratzeko, ez ainguratzeko. Sagailoa den egunetan zein itsasoa laua dagoen horietan, berdin-berdin pasioz egin behar da lan. Eta hala egiten dugu.

Pasioz abiatu ginen formazio honetara. Ausart. Gure tripak erakusteko arriskuari begietara begiratu. Esperientzia honek geure burua aztertzekeo tresnak eta espazio-denbora tartea eskaini dizkigu. Geure burua aztertu talde moduan, gure arteko komunikazioa, erabakiak hartzeko modua, teoriaren eta praktikaren artean dagoen jauziaz ohartzeko... hobetu beharreko guztiaz konturatzeko. Eta bidea egiten jarraitzeko.

Hori guztiori irla eder batera eraman gaituelako da. Egiten dugun horren inguruan ELKARREKIN pentsatzeko eta aldaketak proposatzeko irlara. Mugitzeko (lekuz aldatzeko eta aurrera egiteko), ezinbestekoa da pasioa, baina, zenbaitetan, geratu egin behar dugu, gauzez ohartzeko. Hori bai, gelditu tarte txiki batean,

ibiltzen jarraitzeko. Gero berriro gelditzeko eta berriro abiatzeko. Gelditu barik. Eta elkarrekin. Ikasi ditugun gauzen artean dago ezin diegula ikasleei eskatu guk egiten ez dakigun zerbait. Irakatsi egin behar diegula. Eta, horretarako, horren kontziente izan behar dugula, eta geuk ere egin. Testuinguru errealak eskaini ezean, ez ditugu ikasleak mundurako prestatzen. Eta, orduan, zertarako irakatsi? Gurera gauza onak besterik ez du ekarri formazioak. Badira konpontzeko ditugun hamaika gauza oraindik. Baina bidean ari gara. Eta jarraituko dugu. Itsasontziak jarraitu egingo du itsaso zabalean. Sagailoa dagoen egunetan zein laua dagoen horietan.

10. PUBLIZITATE KANPAINA. Eleizalde ikastola.

IKASKUNTZA PROZESUAREN TESTUINGURUA

Proiektua 2012-2013 ikasturtean mamitu zen, Eleizalde Ikastolako DBHko 3. mailako ikasleekin, Lengua y Literatura [Hizkuntza eta Literatura] ikasgaietan. Proiektua gaztelaniaz garatu zen; horrenbestez, gaztelaniazko materiala erabili zen, eta ikasleek ere gaztelaniaz egin zituzten beren lanak. Hori dela eta, egoki deritzogu aurkezpena ere proiektuaren hizkuntza berean egiteari.

Proiektuaren abiapuntu gisa, OSTADAR proiektuko hirugarren unitateko gai bat erabili zen: PUBLIZITATEA. Zehazki, publizitate kanpaina bat sortu behar zuten gaiari buruz ikerketa proiektu bat eginez.

Asmoa zen ikasleek ikaskuntza autonomoa eta kooperatiboa garatzea beren taldekideekin, taldean sortu baitzituzten publizitate produktua eta kanpaina.

Unitate didaktikoarekin loturiko gai bat izanik, ez zen ikasleen ekimenez sorturiko jarduera bat izan, baina, haien inplikazioa lortzeko, talde bakoitzari aukera eman zitzaion proiektuko edukiak autonomoki egituratzeko: asmatutako produktu bat aukeratu, karakterizatu, eta publizitate kanpainako edukiak garatu. Bestalde, haien esku utzi zen proiektua garatzeko prozesua egituratzea ere.

Eduki kontzeptualei dagokienez, egokiak izan ziren kanpainaren garapenari begira, eta ikasleek loturak ezarri zituzten ikasitakoaren eta publizitate kanpainaren garapenaren artean.

Zenbait dinamika erabili zituzten, eta, horri esker, ikasleek autonomoki lan egin zuten, landu beharreko alderdiei buruzko erabakiak hartuz.

Lan kooperatiboa egituratzeko teknikak autonomoki txertatu zituzten prozesuan, bai helburuarekin lotuta, bai garatu beharreko dinamikarekin lotuta, ezagunak

baitzitzen aurretik ere. Tekniken artean, aipagarriak dira honako hauek: taldekide guztiei txandaka entzutekoak, bakarka lan egitekoak, adostasunera heltzekoak eta proiektuan islatu nahi zutena idaztekoak.

Proiektuaren hitzaurrean, honako ohar eta bizipen hauek jaso zituzten lanari buruz:

“Durante esta unidad hemos trabajado como publicistas y hemos aprendido a trabajar la publicidad. Empezando desde los tipos de publicidad y receptor, hemos trabajado todo tipo de “artimañas” tales como los recursos verbales e icónicos con los que hemos aprendido a convencer a nuestra “presa”. Ahora sabemos cómo tenemos que hablar a distintos tipos de personas dependiendo de su sabiduría sobre la lengua o sus gustos y aficiones, nos hemos dado cuenta de que a la hora de hacer un anuncio todo mínimo detalle cuenta.

Aun así, no todo ha sido de color bonito y hemos tenido ciertas confrontaciones entre nosotros. Sin embargo, hemos arreglado nuestras diferencias y nos hemos consolidado como grupo. Sabemos que todavía nos queda mucho por hacer y aprender”.



IKASKUNTZA PROZESUAREN GARAPENA

Ikaskide talde bakoitzak publizitatearen alderdi batzuk landu zituen. Horretarako, zenbait bide jorratu zituzten: testuliburuko informazioak, beste informazio iturri batzuetatik jasotakoak eta publizitatearen behaketatik ateratako ondorioak.

Talde bakoitzak bere publizitate txostena osatu zuen jasotako informazioaz, eta hartaz baliatu ziren berek sortutako produktuaren publizitate kanpaina prestatzeko eta hartutako erabakiak publizitatearen ikuspegitik justifikatzeko.

Oinarrizko taldeak, lau ikasleaz osatuak, ikasturte hasieran eratu ziren, hau da, nahiko finkatuta zeuden azken ebaluaziorako.

Ikaskuntza prozesuari dagokionez, honako pauso hauek eman zituzten:

Lehenik, helburu komuna aurkeztu zitzairen talde guztiei: berek sorturiko produktu baten publizitate kartel bat egitea eta ikaskideen aurrean aurkeztea.

Ikaskideak urteko produktu izarraren erostun potentzialak izango ziren. Gezurrezko enpresaburuok, taldeak aurkezturiko prozesua analizatu, eta produktuaren balioa aztertu behar zuten.

Proiektuaren hasieran, irakasleak kronograma bat banatu zien ikasleei, zereginak eta denboraren antolaketa zehazturik.

Talde bakoitzak bere lanaren plangintza egin behar zuen, eskema batean adierazita zer zeregin bete behar zituzten: publizitateari buruzko informazioa bildu, publizitaterako baliabideak, zer material beharko zuten kontsultatzeko. Horretaz gainera, zenbait txosten aurkeztu behar zituzten, kronograman proposaturiko datetan, eta txostenok idazteko jarraibideen gida bat eskatu zitzairen.

Ondoren, produktua garatzen hasi ziren.

Txostenean, publizitate kartelak egiteko beharrezkoa den guztia bildu zuten: hitzaurrea, metodologia eta informazioaren sintesia.

“En el bloque A, hemos visto que los anuncios televisados son acompañados de diferentes tipos de música, dependiendo del receptor intencionado. Por ejemplo, un anuncio de adhesivo de dentadura postiza para la tercera edad nunca irá a la misma velocidad o dinamismo de un anuncio de unas zapatillas de deporte”.

Bestalde, produktuaren eta publizitate kanpainaren garapenaren berri ere bildu zuten txostenean. Lehenik, produktuaren ezaugarriak, eta, gero, publizitate kanpainaren diseinua:


Publizitate kartela eta produktuaren ahozko aurkezpena

Produktua: erloju bat


Marka: Calvin Cloin

Leloa: La puntualidad marca la diferencia [Puntualtasuna, diferentziaren berme]

Logoa:



Azkenik, kartelaren ahozko aurkezpena eta aurkezpen bisuala egin zuten: bezero potentzialei aurkeztu zieten publizitate kartela, ikasle bakoitzak lanaren atal bat aurkeztuta.



PROZESUAREN ERREGULAZIOA

Proiektua zenbait fasetan ebaluatu da.

la egunero egin zen ebaluazio jarraitu bat. Irakasleak talde guztiei buruzko informazioa bildu zuen: lana zer egoeratan zegoen, zailtasunak, bizipen positiboak, lan egiteko aldartea, arazoak eta estrategiak... Ikasleekin adostuta idatzi zuen informazio guztia, haiek aurrean zituela.

Data jakin batzuetan entregatu beharreko txostenak ere ebaluatu ziren (edukien ebaluazioa).

“Tengo que mencionar que cuando surgía algún conflicto debían resolverlo en el grupo . Habían interiorizado la expresión “PROBLEMA SOLUCIÓN” y resultaba gracioso ya que lo empleaban a menudo”

“Solamente actuaba en casos puntuales para poder ayudarles a redirigir el conflicto”

Azkenik, irakasleak eta ikasleek berek ahozko aurkezpena eta publizitate kartelaren aurkezpena ebaluatu zituzten, prozesuan zehar landuriko irizpideei jarraituz.

Proiektuan zehar, konpetentzia guztiak landu ziren, baina batez ere ikasten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, eta egiten eta ekiten ikastea.

IKASTEN IKASTEA

Plangintza bat egiten, lanerako denbora antolatzen, aktak idazten eta dinamikak autonomoki erabiltzen ikasi dute. Horri esker, banaka zein taldean lan egiten ahalegindu dira. Autorregulazioak egiteak beste plangintza batzuk egiten ere lagundu die.

Ikasi dute aztertzen, eztabaidatzen, arazoak konpontzen, entzuten...

ELKARREKIN BIZITZEN IKASTEA

Ikasleek harreman arduratsu eta iraunkor bat lortu dute urte guztian zehar. Ahalegina egin dute elkarrekin lan egiteko eta ikaskideei laguntzeko. Ongi bideratu eta konpondu dituzte tirabirak eta arazoak, eta ikuspegiak trukatu dituzte, are desberdinak izanda ere, besteen iritzia errespetatuta.

EGITEN ETA EKITEN IKASTEA

Gai izan dira produktu bat asmatzeko. Aipagarriak dira sormena eta motibazioa, funtsezkoa izan baita proiektua gauzatzeko.

Askotariko dinamikak erabili dituzte proiektuan, nahiz eta behin eta berriz errepikatu dinamika arrunt hauek:

Arkatzak erdira:

Bakarka eta taldean egin beharreko lana erregulatzeko erabili dute. Hari esker, lana denbora bertsuan egiteko motibazioa piztu da taldean.

1-2-3-4


1-2-4 dinamikaren aldaera pertsonal bat da. Lanei buruz hitz egiteko erabili dute, aktiboki entzuteko eta taldekide guztiek era antolatu batean parte hartzeko. Taldekide bakoitzari zenbaki bat eman, eta txandaka hitz egin dute. Gero, ados jartzen saiatu dira.

Dinamika bukatu ondoren, denen artean erabaki dute zer idatzi edo nola laburbildu edukiak txostenetan.

Lanaren hasieran, IKERKETA TALDEAK eta CO-OP CO-OP dinamikak erabili dituzte. IT (Ikerketa taldeak). Zenbait azpigai landu dituzte talde bakoitzean, aurretik planifikatuak eta denboran antolatuak. Gero, taldekideei aurkeztu dizkiete.

Azpigaiok landu eta entzun ondoren, proiektuaren atalak erabaki eta haien plangintza egin dute, banan-banan.

Akta bat bete dute egunero: eguneko zereginen plangintza, sorturiko arazoak eta hurrengo eskolen eta jardueren plangintza.


ACTA DE LA SESIÓN

FECHA: 20/11/13

NOMBRE DEL GRUPO <u>E.N.</u>		SECRETARIO/A <u>Toni</u>		
PARTICIPANTES: <u>Toni, Emma, Babel</u>				
TRABAJO A REALIZAR				
TRABAJO REALIZADO EN CASA <u>Revisar los trabajos que han sido asignados a casa de los alumnos que quedan. Organizar la ficha del libro.</u>		TRABAJO REALIZADO EN CLASE <u>Activación de...</u>		
PROBLEMAS QUE HAN SURGIDO: <u>Faltas de información de algunos alumnos.</u>		SOLUCIONES <u>Informar...</u>		
PRÓXIMA CLASE				
ACTIVIDADES A REALIZAR <u>Trabaja los trabajos que quedan. Ficha del libro.</u>		RESPONSABLES <u>Toni, Emma, Babel</u>		
NOTAS:				
PROCESO DEL PROYECTO				
ESPECIFICACIÓN DEL PROYECTO	PLANIFICACIÓN	SELECCIÓN DE LA INFORMACIÓN	TRABAJANDO EL PROYECTO	PRESENTACIÓN DE LA PRODUCCIÓN

III. ATALA. AHOLKULARITZA ETA FORMAZIOA

11. AHOLKULARITZA ETA PRESTAKUNTZA ESTRATEGIAK

Atal honetan, batetik, ikaskide proiektuko aholkularitza prozesuaren antolaketaren ardatzak aurkituko dituzu, eta, bestetik, diseinatutako eta praktikan erabilitako estrategiak. Hasteko, marko orokorraren azalpena egiten da, eta, bukatzeko, aholkularitzaren hastapeneko fasearen deskribapen zehatza. Fase horren azalpenaren bidez, beste faseetako aholkularitza prozesuak irudikatzeko aukera izango du irakurleak; izan ere, fase guztietan errepikatzen diren printzipioak jasotzen dira adibidean.

Prozesua gidatzen duten kontzeptuak eta tresna zehatzak agertzen dira atal honetan; zer egin nahi den eta nola egin den, alegia.

11.1. AHOLKULARITZAREN EZAUGARRIAK ETA PRINTZPIOAK

Marko orokorraren atalean, irakasleen prestakuntzaren ezaugarriak eta aholkularitza prozesuen printzipioak azaldu ditugu. Atal honetan, aipatutako ezaugarri eta printzipioak islatzen dituzten zenbait prestakuntza testuingururen adibideak azalduko ditugu. Prestakuntza testuinguruek badituzte ezaugarri komunak; marko orokorrean aipatu diren arren, haien azalpen labur bat eginez emango diogu hasiera atal honi.

- *Izaera erreala* (Korthagen, 2010). Prozesua ez da kanpotik proposatzen eta ikastetxean gauzatzen. Ikastetxeen egoeraren arabera sortzen da prozesua; teoria praktikatik eraikitzen da. Beraz, teoriaren eta praktikaren uztarketa etengabea eta banandu ezina da; betiere, praktikatik abiatzen garelarik.
- *Izaera dinamikoa eta malgua*. Aurreko ezaugarriarekin bat dator prozesu dinamikoa eta malgua izatea. Hots, praktikatik abiatzeak eta hortik teoriarekin zubiak eraikitzeak etengabeko joan-etorria eskatzen du.
- *Ikaskidetza*. Prozesu guztian zehar eta momentu oro, ikaskidetza lantzen da ikaskidetzan lan eginez. Prestakuntza testuinguru guztiak –aholkulari taldearen lan saioak barne– ikaskidetzan egituratzen dira. Ikaskidetzak prozesu osoa bustitzen du; ondorioz, irakasleen ahotsetik abiatzen gara, hau da, bidea gorpuzteko estrategiak beren ahotsetatik jaso eta egituratzen ditugu.
- *Gogoeta*. Praktikaren inguruko gogoeta agerian dago prozesu osoan zehar, bai irakasleek beren praktikaren inguruan egiten duten gogoeta, bai aholkulari taldeak bere praktikaren inguruan egiten duena. Irakasleak teoria eraikitzen du; praktikatik eraikitzen du teoria.

11.2. AHOLKULARITZAREN ANTOLAKETA ETA ERABILITAKO ESTRATEGIA OROKORRAK

Aipatutako printzipioak prestakuntzaren une eta eremu batean baino gehiagotan garatzen dira. Horrez gain, aholkularitzak baditu berezitasunak prozesuaren faseen arabera. Izan ere, fase bakoitzak bere xedeak ditu, eta eskola bakoitzari bere proiektu autonomoa garatzeko bidea eraikitzen laguntzen dio. Hala ere, fase guztietan amankomunak diren estrategia orokorrak erabiltzen dira. Aipatutako elementuen berri emango dugu ondorengo ataletan. Hasteko, fase guztietan erabiltzen diren estrategia orokorrak deskribatuko ditugu; ondoren, fase bakoitzaren antolaketa eta erabilitako estrategiak azalduko ditugu.

Prestakuntza prozesuan, zenbait motatako ikaste taldeak artikulatzen dira: alde batetik, eskoletako lantaldeak daude; bestetik, dinamizatzaileen taldea. Denak ere ikaskide komunitateko kide dira, hau da, marko eta proiektu komuna dute. Elkarlanean sustatu nahi da kide bakoitzaren parte hartze eta bereganatze prozesua, eta xede horretara bideratutako strategiak erabiltzen dira prozesuan zehar.

Saio guztiek badituzte norbanakoen ahotsa jasotzeko uneak; idatziz jaso, eta, ondoren, talde txikian edo handian partekatzen da.

Alderdi profesionalen gaineko hausnarketa ekintza bibentzialesetik, simulaziotik, irakurketa probokatibotik, praktikaren errelatotik abia daiteke; lehenik, atentzioa eman dion ezaugarriak identifikatu eta ezaugarri horiek justifikatzen hasten da partaide bakoitza, eta, ondoren, ahotsak partekatzen dira, bai talde txikietan, bai handian.

Saioen amaieran, trataturiko eta landuriko gaien kontaketa egiten da, eta funtzionamenduaren eta erabilitako metodologiaren egokitasunaz eta parte hartze mailaz ere hitz egiten da. Alderdi teorikoen eta zereginen laburpena dinamizatzaileak komunikatzen du; konpromisoak adostu, eta hurrengo saiorako helburuak aurkezten dira.

Ondoren, balorazio tarte bat irekitzen da: ahoz, partaideek bizi izan dituzten sententzioak, funtzionamenduko alderdiak eta abar jorratzen dira. Amaitzeko, asetasuna neurtzeko inkesta bat betetzen dute partaide guztiek; inkesta horretan, bakoitzaren parte hartze maila, egoera pertsonala, gaiarekiko interesa, metodologiaren egokitasuna, sortu zaizkion zalantzak, hobetzeko alderdiak eta balorazio orokorra jasotzen dira. Informazio iturri hori hurrengo saioaren

eraikuntzan ere hartzen da kontuan, guztiontzako esanguratsuak diren ikaste testuinguruak eraikitze aldera.

Prestatzailearen egiteko eta adierazteko moduak garrantzitsuak dira taldean giro egokia sortzeko. Hona hemen zenbait estrategia:

- Taldearen ongizateari eta pertsonaren zaintzari zuzendutakoen artean, honako hauek azpimarratzen ditugu:
Partaide guztiak eroso eta kideen aldetik estimatuak sentitzea ezinbesteko baldintza da edozein ikaste prozesu arrakastatsua izateko. Prestatzaileari dagokionez, hitz egiteko eta entzuteko moduarekin erlazionatzen dugu; horren adierazleak dira: partaideen ekarpenak jasotzea eta modu positiboan itzultzea, alderdi positiboak azpimarratzen dituzten adierazpenak erabiltzea. Horrek banakoaren gaineko ezagutza erakusten du: partaideen izenak, beren espazio edo esperientziekin erlazionatutako adibideak.
- Talde kohesioarekin lotutakoak:
Kidetasun sentimendua areagotzen duten erreferentzia komunak erabiltzea eta indartzea. «Gutasuna» indartzen duten hitzak erabiltzea: talde lorpenak azpimarratzea, taldean aritzeak dituen ondorio positiboak azpimarratzea.

11.3. AHOHKULARITZAREN FASEAK ETA FASE BAKOITZAREN HELBURUAK

Aurretik esan bezala, aholkularitza prozesua hiru fasetan garatzen da: hastapena, hedapena eta autonomia. Fase bakoitzean, ikaskide proiektuaren izaerarekin erlazionatutako printzipio zehatzak lantzen dira, eta, horrela, prozesuari koherentzia eta progresioa ematen zaio.

Aholkularitza prozesuan, zenbait tresna erabiltzen dira: aholkularitza saioak, dinamizatzaileek gidatutako saioak eta prozesuko hausnarketak jasotzen dituen dokumentu karpeta.

Hiru urteko prozesuaren bilakaeran, aurrez aurreko kanpoko aholkularitza gutxitzen da, eta ikastetxeko dinamizatzaileak gidatutako prozesuak hartzen du indarra.

Jarraian, aholkularitza fase bakoitzaren deskribapen orokorra egingo dugu.

HASTAPENA

Aholkularitzaren fase bakoitzak (hastapena, hedapena eta autonomia) hiru eremuri begirako xede berezituak ditu: ikasleak, irakasleak eta eskola. Hastapen faseko eremu bakoitzaren xedeak eta estrategiak laburtuko ditugu ondorengo paragrafoetan.

Ikasleei dagokienez, haien ongizatea eta ikaskidetza bermatzen duten testuinguruaren identifikazioan jartzen da arreta. Zein dira testuinguruaren baldintzak?, zein da irakaslearen rola?, eta zein, ikaskideena? Esperientzia praktiketan oinarrituz, testuinguru egokiak identifikatzen dira.

Irakasleei dagokienez, ikaskidetzaren oinarriko printzipioak identifikatzen dituzte, bi eremutan: aholkularitza saioetan eta gelaratze prozesuan. Aholkularitza saioetan, elkarrekin ikasten duen giza taldearen bzipena sustatzen da. Gelaratze prozesuari begira, ikaskidetzaren oinarriko printzipioak identifikatu, eta haietan oinarritutako ikaste testuinguru bat diseinatu, gelaratu eta ebaluatzen dute.

Eskolari dagokionez, kideztan oinarritutako harremanak eraikitzeke prozesuak sustatzen dira. Bestalde, proiektuaren ikuspegi bateratua bermatzeko, kontzeptuak denon artean ulertzeko lana ere egiten da.

Eskolako dinamizatzaileak, prozesuaren gidaritza hartzeko prozesuan, honako bzipen eta kompetentzia hauek garatzen ditu: talde kudeaketaren esperientzia positiboa bizi, tresnak ezagutu eta proiektuaren oinarrian dauden printzipioak bereganatu.

Fase honetan, baliabideak eskuratzen dituzte Ikaskide proiektuko sarea osatzen duten beste ikastetxeetako esperientziak ezagutzeko.

Laburtuz, esan dezakegu hastapeneko lantaldeko partaideek ikaskuntza prozesu bat gauzatzen dutela, ikaskidetzaren oinarriko kompetentziak eraiki, aplikatu eta ebaluatzeko. Ikaskuntza prozesuak lau atal edo une ditu:

1. Oinarriko printzipioen lanketa
2. Sekuentzia didaktikoen diseinua
3. Gelaratzea
4. Ebaluaketa

HEDAPENA

Hastapen fasean egin dugun bezala, aholkularitzarekin lotura duten eremuetatik abiatuko gara hedapen fasearen antolaketa azaltzeko.

Ikasleei dagokienez, ongizatea bermatzen duten testuinguruak diseinatzeko tresnen eta egituren sistematizazioa jorratzen da fase honetan. Irakasleek beren gelari egokitutako sekuentziak diseinatzen, haiekin esperimendatzen eta ebaluatzen dituzte.

Irakasleei dagokienez, kidearen oinarri psikopedagogikoen eta kudeatzeko tresnen ezagutza sakontzen dute. Horretarako, bi bide nagusi dituzte fase honetan; alde batetik, prestakuntzan izandako bizi esperientziak, eta, bestetik, geletan martxan jarritako esperientzietatik ateratako ondorioak. Ikaskide proiektuari lotutako printzipioen sistematizazioa ere egiten da fase honetan.

Eskolari dagokionez, hedapen plana eraikitzen da; ikastetxe osoa proiektuan sartzeko plana, alegia. Aldi berean, zeharkako konpetentzien eskola mapa eraikitzen da, hau da, eskolak hautatu, eta garatu nahi diren konpetentziak eta haien progresioa.

Dinamizatzaileak proiektuaren gidaritzaren ardura hartzen du fase honetan, eta funtzio horrek talde kudeaketaren oinarriak ezagutzea eta estrategia berriak martxan jartzea eskatzen dio. Horretarako, kanpoko aholkularitzaren eta haren arteko harremana sustatzen da. Dinamizatzaileekin aurreikusitako mintegietan, arazoiketa lantzeko aukera izan ohi dute.

Sareari dagokionez, hedapen faseko ikastetxeek aukera handiagoa izaten dute beren esperientziak partekatzeko, eta esperientziadun eskolaren rola bereganatzen dute. Horrela, beren protagonismoa indartzen da.

AUTONOMIA

Aurreko faseen deskribapenean erabilitako eremuekin jarraituz, hona hemen autonomia fasearen deskribapena.

Ikasleen aniztasunaren trataera izan ohi da fase honen ardatza; horretarako, ikasle guztiek ikastea bermatzen duten testuinguruetara gerturatu dira partaideak.

Ikasleen aniztasuna izanik fase honen ardatza, aniztasunaren trataera da irakasleekin egiten den aholkularitzaren eta prestakuntzaren gai nagusia. Aldi berean, elkarrekin ikasten duen talde profesional gisa aritzeko aukera izaten dute irakasleek. Hausnarketa partekatzeko egoerak eta tresnak sustatzen dira fase honetan.

Eskolari dagokionez, eskolako identitate marken gelaratze plana eraikitzen da. Horrekin batera, eskolako kideek konpromiso mailen azterketarako dituzten tresnak ezagutu, eta garapenerako ildo estrategikoak markatzen eta zabaltzen dira.

Egiturari dagokionez, komunikazio eta gestio alderdiak lantzen dira.

Fase honetan, dinamizatzaileak berak diseinatzen ditu prestakuntza saioak, eta, behaketaren bidez, hobekuntza ildoak identifikatzen ditu.

11.4. HASTAPENENKO FASEKO AHOLKULARITZA. AHOLKULARITZA PROZESU BATEN ADIBIDEA

Atal honetan, zazpi aholkularitza saioaren deskribapena egiten da, saioz saio. Saio bakoitzaren deskribapenak eduki hauek izango ditu: saioaren helburuak eta saioan erabilitako dinamikak.

Deskribapen honetan, ez dira zehaztuko saio guztietan errepikatzen diren eta aurreko paragrafoetan azaldu diren estrategia orokorrak, hala nola saioarekiko sentipen positiboak izatea, guztion parte hartzea bermatzea eta talde identitatea eraikitzea. Saio bakoitzaren helburu orokorra hobekien jasotzen duten dinamikak azaltzera mugatuko gara.

1. saioa: ikaskidetzaren oinarrizko printzipioak

Saioaren helburu nagusiak

- Lehen urratsa egitea diseinuan arituko diren taldeen identitatea eraikitzeko prozesuan.
- Ikaskideren oinarrizko printzipioak gogoratzea.

Saioaren dinamika

- Saio honetan erabilitako dinamikak saioaren bi helbururekin lotuta daude. Alde batetik, hastapenetik talde izaera indartzea, eta, beste aldetik, marko amankomuna eraikitzen hastea.

Bi dinamika nagusi proposatzen dira saio honetan: bideo bat ikustea (*Te aburrías en la escuela?*) eta bakarkako deskribapenetik adostasunera iristea, eta talde identitatea indartzeko dinamika bat (ondoren azaltzen da).

AURKEZPEN GURUTZATUAK

Aipatu alboan daukazun PERTSONAREN adierazle positiboak, identifikatu taldeari egingo dizkion ekarpenak, eta azaldu taldeari.

2. saioa: gaia erronka bihurtzen

Saioaren helburu nagusia

Aukeraturiko gaiaren IKASLE erronkaren proposamenera gerturatzea, kompetentzia adierazleak (EDUKI).

Saioaren dinamika

Saio honetako dinamiken bidez, ikaste prozesuan erronkek duten garrantzia eta haien ezaugarriak identifikatu nahi dira.

Hasteko, ongietorria egiten zaie partaideei. Saioa hasteko, bideoa ikusi eta bideoan identifikatzen dituzten adierazleak jasotzen dira.

Ikastea erronkak gainditzea eta gauzak deskubritzea da; errealitatea interpretatu eta hartan parte hartzeaz ari gara. Beraz, IKASKIDE proiektuan jasotzen ditugun ikaste testuinguruak ere halako ezaugarriak izan behar ditu, hau da, erronka erabilgarri edo erreal den zerbaitera iritsi beharko dute ikasleek.

Horretarako, nola bihurtuko ditugu gaiak erronka? Hau da, irudikatzen saiatuko gara zer egingo duten edo zer sortuko duten ikasleek prozesua amaitu ondoren. Landu duten gaia zertarako erabiltzen da errealitatean, edo nork erabiliko luke edo zertarako?

Azken finean, guk proposatzen ditugun ikaste testuinguruek funtzionalak eta konplexuak izan behar dute, hau da, errealitatean dauden bezala gelaratu behar ditugu edukiak, eta ez era isolatuan (biderketa taulak, adibidez, ez genituzke kalkulu fitxetan gelaratu beharko, baizik eta biderketak errealitatean duen egoeraren baten bidez).

Horretarako, hemen azaltzen den dinamika erabiliko da.

GAIA ERRONKA BIHURTZEN

Dinamika honen bidez, erronkaren garrantzia azpimarratu nahi da. Ikasleen inplikazioa ezagutzatik harago joatea sustatzen eta bermatzen du erronka horrek.

20 minutu ditugu aukeraturiko GAIA ERRONKA bihurtzeko eta gainerakoei bertsoz adierazteko.

Ezertan hasi baino lehen, gure lanaren kudeaketan lagungarri izango zaizkigun rola banatuko ditugu.

1. Denboraren kudeaketaz arduratuko dena: lanean hasi aurretik, lana nola egingo dugun adostu, eta erabakiko dugu zeregin bakoitzari zenbat denbora emango diogun. Ondoren, denboraren kudeaketaren ardura hartzen duenak zenbait estrategia lagungarri erabiliko ditu horretarako.
2. Dinamizatailea: guztiek parte hartzen dutela bermatuko du. Horretarako, taldekideak animatuko ditu beren iritzi eta hitzak adieraztera. Jarri dugun helburua betetzeari ekingo dio dinamizataileak.
3. Animatea: taldera umorea eta animoa ekartzen dituen pertsona da. Ekarpenei mezu positibo bidez erantzun, eta bi txiste kontatuko ditu prozesuan zehar.
4. Talde-indartzailea: prozesuan zehar taldea paregabea dela adierazten eta taldea animatzen duen pertsona izango da.

Gaia erronka bihurtu, eta, ondoren, gure gaia eta erronka azaltzeko bertso bat idatzi eta hura abestuz egingo dugu aurkezpena.

Prozedura honako hau izango da:

1. Aukeraturiko gaia ERRONKA bihurtu eta IZENBURUA jarri.
2. Arrazoitu zergatik izango den guretzat eta gure ikasleentzat esperientzia paregabea.
3. Bertsoaren DOINUA erabaki.
4. Bertsoa idatzi.
5. Guztion artean abestu.

ROLAZ gain, zuetariko bakoitzak funtzio bat izango du, hau da, atal edo zeregin bakoitzaren lidergoa izango du. Horretarako, lanean hasi aurretik aukeratu beharko duzue bakoitzaren FUNTZIOA zein den:

1. IDAZKARIA: adosten ditugun erabakiak jasoko ditu, baita ERRONKA, IZENBURUA eta BERTSOA ere.
2. Gaia erronka bihurtzeko arduraduna izango da zuetariko bat, hau da, ardura horren lidergoa berak eramango du, eta taldean hura eraikitzeari ekingo dio.
3. Bertso-aditua izango da beste bat. DOINUA erabakitzeko eta hura idazteko estrategiak plazaratuko ditu; doinu bat baino gehiago erabil lezake kantatzeko, errimtarako hitzak...
4. Koreografoa eta kantu zuzendaria: aurkezpenerako koreografia eta batera abesteko estrategia eta ideiak proposatuko ditu.

Horrela, 20 minutu dituzue zuen gaia ERRONKA bihurtu eta bertsoz besteei aurkezteko.

3. saioa: faseak identifikatzen

Saioaren helburu nagusia

- Aukeraturiko erronkaren fase edo zereginen identifikaziora gerturatzea.

Saioaren dinamika

- SAIO honetan, gure ERRONKEN pausoak edo ATALAK identifikatzen dira. Abiapuntua ERRONKA bera da; haren forma zehatza irudikatu behar da, eta hura eraikitzeke ikasleek egin behar dituzten urratsak zein izan daitezkeen identifikatu. Adibide modura, bideo bat erabiltzen da; bideo horretan, irakasle talde batek aniztasunaren inguruko aurkezpen bat egiten du, eta, baliabide modura, kartoi mehe batean adierazten dituzte oinarritzko gakoak.

Bigarren bideoa 12-17 urte bitarteko ikasleek egina da, hezkidetzaren ingurukoa, «Beldur barik» lehiaketan parte hartzeko.

Amaierako egoerak berak laguntzen digu hezkidetzaren egoki egin ahal izateko beharrezko pausoak identifikatzen; beraz, proposamen hau egiten zaie: «Lehenik, irudikatu zeuen buruan erronkaren emaitza zein den, eta, ondoren, partekatu taldean. Guretzat, aberasgarria da adierazpenen artean aniztasuna egotea, baina badaude hainbat gako denek izan beharko lituzketenak: zein dira? (irakasle taldeak adostu behar du zer ikaste emaitza adierazi behar dituzten ikasleek amaieran).

Gako horiek nahitaez agertu behar badute, zein izan litezke haien jabekuntzarako pauso naturalak?».

Horretarako, PAUSOEN MURALA dinamika erabiliko dute.

PAUSOEN MURALA

30 minutu ditugu gure ERRONKAREN pausoen murala eraikitzeko. Mural horretan, irudi edo marrazkiak agertuko dira; hitzik ez da irakurriko. Alde batetik, amaierako erronka agertuko da, bai eta adierazle komunak edo nahitaezko direnak ere; bestetik, erronka eraikitzeko pausoak ere agertuko dira. Aurkezpenean, denok izango dugu hitza.

Prozedura honako hau izan daiteke:

1. Bakarka irudikatu azken momentu hori nolakoa den, hura ikusten egongo bazinete modura.
2. Elkarrekin partekatu irudikaturikoa, eta adierazle komunak edo nahitaezkoak identifikatu.
3. Adierazleak eraikitzeko pausoak definitu.

Ezertan hasi baino lehen, gure lanaren kudeaketan lagungarri izango zaizkigun rolak banatuko ditugu.

1. Denboraren kudeaketaz arduratuko dena: lanean hasi aurretik, lana nola egingo dugun adostu, eta erabakiko dugu zeregin bakoitzari zenbat denbora emango diogun. Ondoren, denboraren kudeaketaren ardura hartzen duenak zenbait estrategia lagungarri erabiliko ditu horretarako.
2. Dinamizatzailea: guztiek parte hartzen dutela bermatuko du. Horretarako, taldekideak animatuko ditu beren iritzi eta hitzak adieraztera. Jarri dugun helburua betetzeari ekingo dio dinamizatzaileak.
3. Animatzailea: taldera umorea eta animoa ekartzen dituen pertsona da. Ekarpenei mezu positibo bidez erantzun, eta bi txiste kontatuko ditu prozesuan zehar.
4. Talde-indartzailea: prozesuan zehar taldea paregabea dela adierazten duen eta taldea animatzen duen pertsona izango da.

Lanarekin erlazionaturiko funtzioak ere banatuko ditugu:

1. Erronkaren adierazle komunak identifikatzeko lidergoa izango du batek.
2. Pausoen lotura naturala bilatzeari ekingo diona izango da bigarrena.
3. Kontzeptuak irudi bilakatzeko proposamenak egingo dituena izango da hirugarrena.
4. Aurkezpen parte hartzaile bat eraikitzeari ekingo diona izango da laugarrena.

4. saioa: sekuentziaren muina

Saioaren helburu nagusiak

- Sekuentzia didaktikoaren muina identifikatzea.
- Ikaskidetzarako lagungarri diren tekniken ezagutza sustatzea.

Saioaren dinamika

Saioaren hasieran, sekuentzia didaktikoa diseinatzen da. Lehen urratsa MUINA identifikatzea izan ohi da. Horretarako, aurreko saioan adostutako nahitaezko adierazleak izaten dira kontuan. Bikaintasunezko edo nahitaezko adierazleak gure ikaste emaitzak izango dira, eta, era berean, gure ebaluaziorako adierazleak.

Irakasleok eta gure ikasleek argi izan behar ditugu, sekuentziaren hasieratik, adosturiko ikaste emaitzak, ebaluatuko ditugun adierazleak eta haien graduazioa, horren bitartez autorregulatzeko aukera izango baitugu.

Behin ikaste emaitzak zerrendatuta, erronkaren definizioa berreskuratu, eta bien arteko koherentzia aztertzen da. Ondoren, muinaren lanketa egiten da.

- MUINAREN LANKETA EGITEKO ESTRATEGIA

LANKETA: 30 minutu

Hasteko, ADITU TALDEAK sortuko ditugu. Horrek esan nahi du ohiko taldeetatik irten eta talde berrietan parte hartuko dutela atal edo arlo jakin bat lantzeko. Kasu honetan, tekniken bilduma ezagutzea da gure helburua; horrekin, talde natural bakoitzak sekuentziaren edukiak kudeatzeko pistak izatea nahi dugu, baina, taldean landu ordez, gelakoen edo partaide guztien artean landuko dugu edukia edo dokumentazioa.

Bost aditu talde eraikiko ditugu, eta talde naturaletik gutxienez partaide batek joan beharko du aditu talde bakoitzera. Haien helburua lantzen duten edukia talde naturaletara ekartzea izango da. Talde naturalera ESKEMA bat ekarri beharko dute, besteei era erraz, azkar eta argi batean adierazteko zer teknika dauden eta nola erabiltzen diren.

Beraz, bost talde BERRI sortuko ditugu. «Teknika txostena» dokumentuaren bost kopia eraman beharko dituzu saiora, eta ADITU TALDE bakoitzak ale bat izango du.

Taldeek hau landu beharko dute:

1. Girotze ariketak (6 daude)
2. Talde kohesioa lantzeko teknikak (6 daude)
3. Oinarrizko taldeak antolatzeko estrategiak (6 daude)
4. Testuen ulermena lantzeko teknikak (8 daude)
5. Hausnarketa + balorazioa (txosteneko azken bi puntuak dira, 5. eta 6. atalak)

Aditu taldeetan ere bikoteka edo hirukoteka antolatu behar dute, denborari etekina ateratzeko. 20 minutu izango dituzte aditu taldeek dagozkien teknikak jorratu eta eskema betetzeko.

Eskemako adierazleak hauek izan daitezke:

- Teknikaren izena:
- Deskribapena:
- Zertarako erabil genezake:
- Noiz:

20 minutuak pasatuta, TALDE NATURALETARA itzuli, eta partekatzen utziko diegu.

Amaitzean, taldean entzungo dugu ea teknika guztiak ulertu dituzten, zalantzarik izan duten...

Amaitzeko, saioaren azken puntu garrantzitsua ENTZUTEKO BEHARRA da. Galdetuko dugu ea talde naturalak aditu bakoitza ENTZUTEKO BEHARRA izan duen. Horrek duen garrantzia azalerazen saiatuko gara: taldeko kide bakoitzak BEHARREZKO izan behar du beste taldekideek aurkezten dutena; hori hala ez bada, erabakiak hartuko ditugu hala izateko. ELKARREN BEHARREZKO ez badira IKASKIDETZAN ez daudelako, nola bihur genezake beharrezko entzutea? (Adibidez: bakarka lan egin behar dutenerako beharrezkoa dela adieraziz, aurkezpenera begira norbanakoak edozein atal aurkezteko beharra izatea...)

MUINA LANTZEKO TRESNA

OINARRIZKO KONPETENTZIA: Oinarrizko Konpetentziak Dekretuak zehazten ditu, baita Euskal Curriculumak ere. Konpetentziak dokumentuan bertan zerrendatuak dauzkazu:

OINARRIZKO KONPETENTZIAK

1. Hizkuntza eta komunikaziorako konpetentzia
2. Matematikarako konpetentzia
3. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin interakzioan aritzeko konpetentzia
4. Informazioa lantzea eta konpetentzia digitala
5. Gizarte eta herritar konpetentzia
6. Kulturarako eta arterako konpetentzia
7. Ikasten ikasteko konpetentzia
8. Autonomia eta iniziatiba soziala

Dekretura edo Euskal Curriculumera jotzen baduzue, ikusiko duzue OSO zabalak direla eta EZ dietela lehengo ARLOEI erantzuten. Kontuan izan behar dugu KONPETENTZIEN markoan gaudela; horrek adierazten du EDUKIAK EZ daudela era isolatuan, era konplexu eta funtzionalean baizik. Adierazle horri erantzuteko eraiki ditugu ERRONKAK; beraz, orain, egokien ikusten dugun TITULAR horretan kokatuko ditugu. Ez eman garrantzi handirik, ez baitauka.

KONPETENTZIA OROKORRA:

Erreferentzia egiten die ikasleek ZEHARKA garatu behar dituzten konpetentziei; gure kasuan, IKASKIDETZAREN bidez lantzen dugu hori. BAINA horrek esan nahi du ikasleek aukera izan behar dutela TALDEAN ETA KOOPERAZIOAN IKASTEN IKASTEKO. Hau da, denbora eta tarte erreala eskaini behar diogu gelan gure IKASTE PROZESUARI, hartaz hausnartu eta hobetzeko, hau da, KONTZIENTEKI lantzeko aukera izateko.

Atal edo puntu hau lantzeko taula bat badaukazue dokumentuan bertan:

1. Helburu komuna	2. Elkarrekiko mendekotasun positiboa	3. Bakarkako erantzukizuna	4. Aurrez-aurreko komunikazioa
<ul style="list-style-type: none"> • Talde izaera/identitate • Kideen arteko kohesioa • Lortu beharreko helburuen identifikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Rolen banaketa eta kudeaketa • Zereginen banaketa eta kudeaketa • Lanaren kudeaketa • Laguntzaren kudeaketa • Denboralizioaren kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Konpromisoen betetze maila • Rolaren betetze maila • Eduki/ezagutzaren garapena 	<ul style="list-style-type: none"> • Entzutea • Norberaren nahiak/beharrak adieraztea • Gatazkak konpontzea

Taula horretan, Dekretuko eta Euskal Curriculumeko konpetentzia orokorrak jasotzen dira, baina IKASKIDETZA ARDATZETAN organizatuak. Taldeka, adierazle bakar bat hautatu beharko dugu, eta adieraziko dugu gure sekuentzian zehar ADIERAZLE HORI lantzeko jarduerak ere diseinatu beharko ditugula.

IKASKIDETZAN diseinatzen dugunean, lau printzipioak betetzen direla BERMATZEN dugu irakasleok, baina horrek ez du esan nahi ikasleek ikasten dituztenik: printzipio horiek ikasteko, espezifikoki lantzeko aukera izan behar dute ikasleek. Beraz, gure MUINEAN erabakiko dugu diseinu honetan ZEIN LANDUKO DUGUN.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA:

Arloari egiten dio erreferentzia; beraz, nahikoa da hori zehaztea.

IKASTE EMAITZAK:

Saio honen hasieran zerrendatu ditugunak dira.

EBALUAZIOA:

Puntu honetan, NORK ebaluatuko duen eta NOLA ebaluatuko den adostuko da.

METODOLOGIA: IKASKIDETZA.

5. saioa: sekuentzia didaktikoa eraikitzen

Saioaren helburu nagusia

- Sekuentzia didaktikoa eraikitzen hastea.

Saioaren dinamika

- Saio honen dinamika talde kohesiorako jolas batekin hasten da. Talde txikitan egiten da: bakoitzari papertxo bat eman, eta eskatzen zaie besteek ezagutzen ez duten sekretu bat idazteko, inori erakutsi eta kontatu gabe. Ondoren, poltsatxo, zorro edo kaxa batean sartu, eta taldeko kide batek banan-banan irakurriko ditu sekretuak. Bat irakurtzen duenean, sekretua norena den asmatu behar dute beste kideek.
- Saio honetan, sekuentzia didaktikoa eraikitzen hasten dira. Noiz esan genezake kalitatezko sekuentzia didaktiko baten aurrean gaudela? Zer adierazle ditu kalitatezko sekuentzia didaktiko batek?

SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN DISEINUA

JARDUERA:

20 minutu ditugu taldean sekuentzia didaktikoaren une bakoitzean egingo ditugun jardueren hezurdura identifikatzeko.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN UNEAK

Sekuentzia didaktikoek hiru une edo fase izaten dituzte:

1. HURBILPEN FASEA: erronka identifikatu bitarte egiten ditugun jarduerak kokatzen dira fase honetan.
2. GARAPEN FASEA: erronka gauzatzeko egiten ditugun jarduera guztiak egongo lirateke fase honetan.
3. APLIKAZIO FASEA: erronka gauzatzen ari garen unea izango da fase hau.

20 minutuan, diseinurako erabiliko dugun tresna bera bete beharko duzue.

Ikusten duzue, hiru une agertzen dira tresnan: hurbilpen fasea, garapen fasea eta aplikazio fasea. Jarraitu beharreko prozedura hau da:

1. Fase bakoitzean garatu behar ditugun pausoak adostu.
2. Kronologikoki azaldu zer jarduera egingo ditugun: ez ahaztu fase bakoitzean zeharkako kompetentziaren lanketarako jarduera bat gehitzea.

Horretarako, kalitatearekin erlazionaturiko taula izango dugu ardatz:

IKASLEA ARDATZ	EDUKIEN KUDEAKETA	TALDEAREN KUDEAKETA	KONPETENTZIA OROKORRAREN LANKETA
<ul style="list-style-type: none"> • Erronka ikaslearena bihurtzea. • Beren nahi eta beharrei erantzutea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Sekuentzia didaktikoaren 3 faseak: <ol style="list-style-type: none"> 1. HASTAPENA: erronka identifikatu bitarte, baita erronkan egingo dituzten urratsak ere. 2. GARAPENA: erronka gauzatu bitarteko jarduerak. 3. APLIKAZIOA: erronka gauzaten ari garen unea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. ERATZEA: harremanen, talde kohesioaren eta identitatearen lanketa. 2. EDUKIA: <ul style="list-style-type: none"> • Kidetzan oinarrituriko arauak lantzea. • Arazoei aurre egiteko egoerak jorratzea. 3. EFIZIENTZIA 4. EGONKORTZEA 	<p>Sekuentzian zehar, hiru jarduera txertatuko ditugu.</p>

LAGUNGARRI IZAN DAKIZKIZUEKEEN ESTRATEGIAK:

1. Talde lana kudeatzeko ROLak banatu:
 - a. Dinamizatzailea: denon parte hartzea sustatuko duena.
 - b. Denbora kudeatuko duena.
 - c. Errefortzu positiboak emango dituena.
 - d. Alaitasun puntua jarriko duena.
2. Lanean hasi baino lehen, identifikatu zereginak, adostu prozedura eta zehaztu denbora tarte bat bakoitzerako. Denboraren barruan egiten ez bada, aurreikusi nola konponduko dugun. Pentsatu laguntzarako estrategia eraginkorrak ere.

6. saioa: sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa

Saioaren helburu nagusia

- Sekuentzia didaktikoa ebaluatzea.

Saioaren dinamika

Saioz saioko diseinuari ekin aurretik, ebaluazioaz eta zeharkako kompetentziaren lanketaz hausnartzen da saio honetan.

Ikasleek hasieratik jakin behar dute zer ebaluatuko den, nola ebaluatu den eta nork ebaluatuko duen; gainera, prozesua erregulatzeko tresnak ere gertu izan beharko lituzkete.

2. zehaztapen mailako taulan, JARDUERAK, haietatik eratortzen diren LAN edo PRODUKTUAK eta hura nola EBALUATUKO den agertzen da. Era berean, PAUSOEN MURALA egitean, IKASTE EMAITZAK zerrendatu genituen.

Saio honetako jarduna hortik abiatzen da. Talde bakoitzak zerrendaturiko IKASTE EMAITZAK autorregulazio tresna bilakatzeko eskatzen zaie; zehazki, ERRUBRIKA bat eraikitzeke. Alde batetik, ebaluatuko diren aldagaiak agertuko dira, eta, bestetik, haren kalifikazio-aldagaiak.

Autorregulazio tresnek ERRUBRIKA, LAN KONTRATU, SIMULAZIO eta GALDETEGI forma bat baino gehiago izan dezakete. Esperientziaren atalean azaldu dira haietariko batzuk.

7. saioa: sekuentzia didaktikoaren (esku-hartzearen) diseinua eta gelaratzea

Saioaren helburu nagusia

- Sekuentzia didaktikoaren diseinua amaitzea edota gelaratzeko unetzat erabiltzea.

Saioaren dinamika

Saioa eskoletako dinamizatzaileen ardura da, eta ez da gidoirik erabiltzen. Izan ere, aurreko saioan hasitako diseinuari amaiera emateko eta, kasu batzuetan, diseinatutako esku-hartzeak inplementatzeko aurreikusitako saio bat da. Saioaren dinamika eta garapena, beraz, ikastetxe bakoitzak izandako prozesuaren arabera da. Une garrantzitsua da kasu bietan, zenbait arrazoirengatik. Izan ere, batetik, diseinua amaitzeko, sekuentzia didaktikoek edo diseinatutako esku-hartzeek beren izaera kooperatiboa hartzen dute. Bestetik, aholkularitza prozesuaren une honek aukera ederra eskaintzen du inplementatze fasean egonez gero diseinatutako esku-hartzeak, bizi izandakoak (edo esperimendatzen ari direnak) partekatzeko eta aztertzeko.

8. saioa: bizi izandako prozesuaren gaineko gogoeta

Saioaren helburu nagusia

- Aholkularitza prozesuan zehar bizi izandakoaren eta landutakoaren gaineko gogoeta egitea.

Saioaren dinamika

Aholkularitza prozesuan dinamizatzailen ardurapean aurreikusitako azken saioa da honako hau. Ikasturteko asmo nagusiari helduz –alegia, ikaskidetzaren oinarrizko printzipioen lanketari begira jarriz–, aurrera eramandako prozesuaren inguruko hausnarketa bideratzen da saio honetan, *work coffee* modura ezagutzen den eta partaidetza sustatzen duen teknika proposatuz.

Eskatzen zaie aholkularitza prozesuaren lehen fase honetarako (hastapen fasea) ezarritako asmoak gogoratzeko. Ikaskidetzaren proiektuaren honako dimentsio hauetan sailkatzen dira asmo horiek:

- *IKASLEAK: ongizatea bermatzen duten ikaste testuinguruak sortu.*
- *IRAKASLEAK:*
 - *Oinarrizko printzipioak identifikatu eta haietan oinarrituriko ikaste testuinguru bat diseinatu, gelaratu eta ebaluatu.*
- *ESKOLA:*
 - *Hiztegia bateratu.*
 - *Kidetzan oinarrituriko harreman saioak eraiki.*
 - *DINAMIZATZAILEA: talde kudeaketaren esperientzia positiboa bizi, tresneria ezagutu eta eraikuntzaren arazoak ezagutu.*
- *SAREA:*
 - *Sarea osatzen duten ikastetxeetako esperientziak ezagutu.*
 - *Harremanak eraiki.*

Lehenik eta behin, gela hiru espaziotan antolatu, eta beste hainbat boluntario eskatzen dira. Boluntarioen egitekoa zera da: espazio, txoko edo mahai horietako bozeramailea izatea. Espazio bakoitza behar den materialarekin hornitu (gidoia, tamaina handiko papera eta errotuladoreak), eta boluntario bakoitza eremuetako batean kokatuz ematen zaio hasiera dinamikari. Jarraian azaltzen diren hiru gogoeta eremu hauetatik pasatzen dira (eremu bakoitzean tarte txiki bat emanez); taldeak etengabe berrosatu, eta gidoian jasotako galdera eragileen inguruan gogoeta egiten da:

A) eremua/mahaia: irakasleen arteko harremanari eta elkarlanari begirako galdera eragileak jasotzen dira lehen eremu honetan.

B) eremua/mahaia: honako honetan, berriz, ikaskidetzan eta kompetentzien markoan eginiko esku-hartzeen diseinua da gogoeta gaia.

C) eremua/mahaia: oro har, atzera begiratu, eta egindako prozesua eta lana da hirugarren eremu honetako aztergaia.

Bozera maileek eremu bakoitzean jasotakoa partekatzen dute, eta talde osoari bideratzen dizkiote azpimarratzekoak eta hurrengo ikasturteari begirako (hedapen faserako) proposamenak.

Saioaren ohiko ebaluazioa eginez amaitzen da.

9. saioa: eginikoaren ebaluazioa eta aurrera begirako erronkak

Saioaren helburu nagusia

- Aholkularitza prozesuaren hastapen fase honetan diseinatu eta inplementatu diren esku-hartzeak partekatzea eta haien analisia egitea.

Saioaren dinamika

Aholkularitza prozesuaren azken saioa proiektuko aholkularien ardurapean geratzen da. Ikasturteko asmo nagusiari helduz –alegia, ikaskidetzaren oinarrizko printzipioen lanketari begira jarriz–, aurtengo sekuentzien dimentsio edo atal adierazgarrienen analisia egiteko partaideen ahalik eta ahots gehien jasotzea da asmo nagusia.

Horretarako, aurreko saioan erabilitako dinamika bera erabiliko da. Oraingoan, gela bost espaziotan antolatu, eta beste hainbat boluntario eskatzen dira. Zenbait ziklotako irakasleak nahastuz, bost talde egin eta diseinatutako sekuentzia didaktikoen gogoeta eremuen gainean sustatzen da gogoeta. Boluntario bakoitza eremuetako batean kokatuko da, eta esandakoak jaso eta partekatuko ditu. Honako gogoeta eremu hauek eskaini eta jorratzen dira bakoitzean:

- Sekuentzietan haurrei eskaintzen dizkiegun **ERRONKAK** eta haien kalitatezko irizpidetzat hartzen ditugun **IKASTE EMAITZAK**.
- Sekuentzietan jorratzen ditugun **IKASKIDETZAREN OINARRIZKO PRINTZPIOAK ETA KOMPETENTZIAK**.
- Sekuentziaren **HASIERAKO FASEAN** egiten duguna ikaskidetzaren oinarrizko printzipioei begira.
- Sekuentziaren **GARAPEN fasean** egiten duguna ikaskidetzaren oinarrizko printzipioei begira.
- Sekuentziaren **OROKORTZE fasean** egiten duguna ikaskidetzaren oinarrizko printzipioei begira.

(Ikus 2. eranskina: *Sekuentzia didaktikoaren kalitatea ebaluatzeko tresna*)

Eremu guztiek galdera eragile bertsuak izango dituzte, kontuan hartuta helburua ez dela galdera zehatz horiei erantzutea, baizik eta eremu bakoitzean eginiko diseinuak partekatzea eta eginikoaren kontzientzia hartzea:

- ***Zer da sekuentzietan egin/planteatu duguna XXXX eremuan?***
- ***Zertan hobetu dugu XXXXX eremuan, aurretik egiten genituen sekuentziekin alderatuz?***
- ***Non ikusten ditugu hobetzekoak edota garatzekoak XXXXX eremuan?***

Irakasle guztiak eremu guztietatik pasatuko dira, taldeak etengabe berrosatuz. Boluntarioek beren tokia mantenduko dute. Behin dinamika amaituta, haiek aurkeztuko dizkiete kolektiboari eremu bakoitzean jasotakoak, azpimarratzekoak, hobetzekoak eta datorren urteko hedapen faseari begirakoak. Ohi bezala, saioaren ebaluazioa eginez emango zaio amaiera (*Ikus 3. eranskina*).

IV. ATALA. EKARPENAK

12. Ekarpenak

Ikaskide Proiektua osatzen dugun lantaldeak ikastetxeetan garatu nahi ditugun ezaugarri eta printzipio berei jarraitzen diegu, eta Ikaste Komunitate Profesional Eraginkorraren ezaugarriak mantentzen ditugu gure lan jardueran. Ikasleek, ikaskidetzan aritu daitezzen, ikaskidetzan diharduten irakasleak behar dituzten bezala, azken horiek ikaskidetzan diharduten aholkularitza behar dute.

Proiektuaren bereizgarri nagusia hausnarketa partekatu sistematikoa da, ikaskuntzaren eta hezkuntza sistemaren zirkuluan berau delarik etengabeko ebaluazio, eraldaketa eta berrikuntzarako gakoa, eta, zentzu horretan, irakasleek beren praktika aztertzeaz gainera, aktibatzen dugun prozesu osoa zein gure esku hartzeak ere ikerketa bidez ebaluatzen ditugu.

Etengabeko ebaluazio eta ikerketatik eratorritako emaitzek adierazten digute:

1. Ikaskide Proiektuak eragina duela ikasleen ikastearen hobekuntzan: irakasleen iritziz esperientziaren ontasuna loturik ageri zaigu ikaskuntza moldearen sakontasunean sumatu duten aurrerapenarekin.
 - Aipatu da, ikasleen heldutasuna, bizitzarako nahiz ikasketetarako, bizkortu egin dela. Ardurak eman zaizkienean haiei heldu dietela ikasleek, oro har.
 - Irakasleak aktiboagoak sentitu dira oro har. Parte hartzaileago jokatu dute, euren heldutasun sentipena areagotuz.
 - Ikasleen motibazioa ere areagotu egin da. Berrikuntzek dakarten bultzada berriak zerikusia izan dezake horretan. Estimulazioa lantzeko jarduera ugari egin dira. Ariketa askok kutsu esperimentala izan du, eta baita eguneroko bizitzarekin lotura ere. Horrek zubiak eraiki ditu ikastearen eta euren jakin-minaren artean.
Era berean, taldean eta kooperazioan ikasten ikasi behar dela jasotzen da irakasleen aholketan, eta formazioa prozesu gisa bizi eta ulertzen dute.
2. Kalitatezko Hezkuntzaren adierazleak irakasleriaren konpromiso mailetan islatzen dira; hori kontuan izanik, proiektuan parte hartzen duten irakasleen konpromiso mailen garapena ikertzeko aukera izan dugu. Ikerketa horrek erakutsi digu Autonomia fasea garatu ondoren areagotu egin direla irakasleen ikasleekiko konpromiso mailak. Horren arrazoia irakasleen ikuspegi aldaketa izan da, ikastea eta ikaslea bera ulertzeko marko berria bere egiten baitute.

Praktika komunitateak aukera eskaintzen die elkarrekin eraikitzeko ikastearekiko eta ikasleekiko definizio kultural partekatu berria, eta ikaskuntza horretatik

taldean esku hartzeko zein errealitatearen hipotesi anitz eta arrazoituak egiteko aukera ere garatzen dute. Hau da, elkarrekin finkaturiko helburuaren arabera ekin eta ikasteko aukera dute.

Egunerokotasunean sortzen diren egoerak bilakatzen dira hausnarketa partekaturako eduki, eta, kideztan oinarrituriko harremana eta hizkuntza zein printzipio partekatuak kontuan izanik, aukera berriak eta horien atzean dauden arrazoiketaz hausnartzeko espazio bilakatzen dira praktika komunitateak.

Era horretara, berrikuntza kultura eta horren sostengurako eskola bakoitzak beharrezkoak izan ditzakeen organizazio, gestio zein komunikazio egitura berriak garatzen dira.

BIBLIOGRAFIA

- ASENSIO, J.M. (2010). *El desarrollo del tacto pedagógico*. Barcelona: Graó
- BILBATUA, M.; ARTETXE, A.; USABIAGA, A. *Ikaskide, formazio eredu sistemiko baten esperientzia eskola testuinguruan Ikastaria*. Argitaratu gabe
- BOLIVAR, A. (2012). *Mejorar los procesos y los resultados educativos: lo que nos enseña la investigación*. Oporto: Universidade católica Portuguesa.
- BOLIVAR, A. (2012). *Las comunidades profesionales de aprendizaje. Una estrategia de mejora para una nueva concepción de escuela*. REICE vol. 9, nº 1
- BOLIVAR, A. (2013). *La lógica del compromiso del profesorado y la responsabilidad de la escuela. Una nueva mirada*.
Revista Iberoamericana sobre calidad, eficacia y cambio en Educación. 11. 2zk
<http://www.rinace.net/reice/numeros/arts/vol11num2/art3.pdf>
- CLAXTON, G. (1987). *Vivir y aprender*. Madrid. Alianza Editorial
- COMISION DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS (2005) : *Propuesta de recomendación del Parlamento Europeo y del Consejo sobre las competencias clave para el aprendizaje permanente*. 2005/0221 (COD). Bruxelles
- COMISION EUROPEA (2002): *The key competences in a knowledge-based economy: a first step towards selection, definition and description*. Directorate-General for Education and Culture.
- CROSSWELL, L. (2006). *Understanding teacher commitment in times of change*. Faculty of Education. Queensland University of Technology. *Doktorego Tesia*. Eskuragarri hemen: <http://eprints.qut.edu.au/16238/>
- DANNETA, V. (2002). *What factors influence a teacher's commitment to student learning? Leadership and Policy in Schools*, 1(2), 144-171.
- DAY, C. (2005). *Formar docentes. Cómo, cuándo y en qué condiciones aprende el profesorado*. Madrid: Narcea
- DAY, C. (2006) *Pasión por enseñar. La identidad profesional del docente y sus valores*. Madrid. Narcea editores.
- DAY, C. (2007). *Committed for life? Variations in teacher's work, lives and effectiveness*. *Journal of Educational Change*, 9(3), 243-260.
- DELORS, J. (1999): *Hezkuntza: Altxor ezkutua*. XXI. Menderako hezkuntzari buruz Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena. Gasteiz: Unesco Etxea. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen.

- FREIRE, P. (1985). *Pedagogía del oprimido*. Madrid: Siglo XXI
- FULLAN, M. (2002a). *Las fuerzas del cambio. Explorando las profundidades de la reforma educativa*. Madrid: Akal [Change forces. The depths of educational reform. 1993. Londres: The Falmer Press].
- FULLAN, M. (2002b). *Los nuevos significados del cambio en educación*. Barcelona: Octaedro
[The New meaning of education change. New York . Londres: Teacher College Press Cassell].
- FULLAN, M (2004). *Las fuerzas del cambio. La continuación*. Madrid. Akal
- GUTMAM, A. (2001). *La educación democrática*. Barcelona: Paidós.
- HERNANDEZ, F., SANCHO, J.M., CRESU, A. eta MONTANÉ, A. (2010). *Becoming university scholars: inside profesional autoethnographies*. *Journal os Research Practice*, 6(1), 1-15.
- HOPKINS, D. eta LAGERWEIJ, N. (1997). *La base de conocimientos de mejora de la escuela, 71-101*, In REYNOLDS, D. et al *Las escuelas eficaces. Claves para mejorar la enseñanza*. Madril: Santillan/Aula XXI.
- IMBERNÓN, F. (1994). *La formación y desarrollo profesional del profesorado*. Barcelona. Graó
- MEYER, J.P. eta ALLEN. N.J. (1997). *Commitment in the workplace: Theory, research and aplication*. Newory Park (CA): Savage.
- MARTINEZ, A. (2011). *Los Servicios de Apoyo como oportunidad para la innovación en el Sistema Educativo. Una propuesta de mejora basada en el análisis del funcionamiento de los Berritzegunes de la CAV 2002-2011*. Tesis Doctoral.
- NIAS, J. (1995). *Postmodernity and teachers'work and culture*. *Teaching and Teacher Education*, 11(3), 307-312.
- OCDE (2002). *Proyecto DeSeCo: Definitions et sélection des competences. Fondements théoriques eta conceptuels. Document de strategie*. DEELSA/ED/CERI/CD(2002)9.
- OCDE (2005). *Definition and selection of Key Competences: Executive Summary*.
- ORCASITAS, J.R. (2005) "Educación para la ciudadanía y compromiso social", en OGE, 60, 5, 22-25.

PARK, I. (2005). *Teacher Commitment and its effects on student achievement in American high schools. Educational Research and Evaluation, 11(5), 461-485.*

PEREZ GOMEZ, A. (2007). *La naturaleza de las competencias básicas y sus implicaciones pedagógicas. Santander. Consejería de Educación de Cantabria*

PERRENOUD, Ph. (2012). *Cuando la escuela pretende preparar para la vida. ¿Desarrollar competencias o enseñar otros saberes? Barcelona: Graó*

PERRET-CLERMONT (1984). *La construcción de la inteligencia en la interacción social. Madrid. Visor*

ROSENHOLTZ, S.J. (1989). *Teacher's workplace: The social organization of schools. New York: Longman*

SAWYER, R.K. (2004), "Creative Teaching: Collaborative Discussion as Disciplined Improvisation", *Educational Researcher, Vol. 33, No. 2, pp. 12-20.* WELLS, G. (2001). *Indagación dialógica. Hacia una teoría y una práctica socioculturales de la educación. Barcelona: Paidós.*

WENGER, MACDERMOTT, SNYDER (2002). *Cultivating communities of Practice. A guide to managing Knowledge. Boston, M.A. Harvard Business Scholl.*

ZANGARO, G.A. (2001). *Organizational commitment: a concept analysis. Nursing Forum, 36(2), 14-23.*

BIDEOAK

- ¿Te aburrías en la escuela? <http://youtu.be/10Fu4i7wEeQ>
- 2Saioa <http://youtu.be/L2wZniC5qxY> /// http://youtu.be/MmfiMF_CcY
- Beldur barik lehiaketan parte hartzeko http://youtu.be/JcNcVfbpN_M
<http://youtu.be/TUAg7QucFcc>

ERANSKINAK

AURKIBIDEA

- 1. eranskina: *Dinamizatzaileen hausnarketarako lan tresna*
- 2. eranskina: *Sekuentzia didaktikoaren analisirako eta hobekuntza ildoak identifikatzeko gida*
- 3. eranskina: *Saioaren ebaluaziorako txantiloia*

1. ERANSKINA: *Dinamizatzaileen hausnarketarako lan tresna*

DINAMIZATZAILEEN hausnarketarako lan tresna

Dinamizatzailearen erantzukizun edo ardura nagusiak 3 arlotan ardaztuko dira:

- **EDUKIA**
 - Taldearen egitekoa (diseinua eta gelaratzea?) antolatzea, tresnak eskaintzea
 - Planifikazioa, antolaketa
- **KIDEAK:**
 - Kide bakoitzaren prozesuan eragitea; kide bakoitzak urratsak egitea prozesuan
 - Bakoitzaren erantzukizuna bultzatzea eta horren jarraipena egitea
 - Kide bakoitzaren gaitasunetan oinarrituta bakoitzaren ekarpena ahalbidetzea eta hauspotzea
 - **Bakoitzaren ongizatea sustatzea (zaintza). Taldean norbait dela sentitzea, onartua sentitzea, errespetatua, ekarpenak egiten dituen, baloratua...**
- **TALDEA:**
 - Kohesioa eta identitatea lantzea
 - Rolen betetze mailaren jarraipena
 - Funtzioen betetze mailaren jarraipena
 - Helburua komuna izan dadin ahalbidetzea
 - Errespetuan eta lanean oinarritutako giroa ona sustatzea

DINAMIZATZAILEAREN LAN HAUSNARKETARAKO LAN TRESNA

Aipatutako lana egiteko, ezinbestekoa da dinamizatzaileak bere jardunaren gainean hausnartzea modu sistematiko batean, eta ohartzea, gainera, bere lana ez dela mugatzen taldean bertan lanean dauden momentuetara, baizik eta aurretik eta ostean ere lana eskatzen duela.

Alderdi hauen inguruko lanketa egin beharko da:

- Aipatutako hiru atalei dagokienez dinamizatzaileak dituen asmo eta helburuen deskribapena
- Asmoak aurrera eramateko egindakoen deskribapena
- Gertatutakoaren analisia
- Dinamizatzailearen esku-hartzearen inguruko hausnarketa
- Hobekuntza arloen identifikazioa asmo berrien planteamenduan

Horretarako, taula hau erabilgarri izan daiteke:

Hausnarketa bideratzeko **GALDERA POSIBLE BATZUK** taula honetan aurkituko dituzu:

	EDUKIA	TALDEA	KIDEAK
ASMO ETA HELBURUAK (lan saioaren AURRETIK)	<ul style="list-style-type: none"> ○ Zein da helburu nagusia? ○ Zein dira egin beharreko urratsak? ○ Denok argi dauzkagu? Zer egingo dut denok argi edukitzeko? ○ Nola antolatuko gara helburua lortzeko? Baliabide edo tresnarik behar dut/dugu antolatzeko? ○ Zer eskainiko diot taldeari antolaketa egiteko? ○ Denbora nola kudeatuko dut/dugu? (noizko bukatu, urrats bakoitza noizko...) ○ Hurrengo urratsa egiteko zer egingo dugu? ○ Lanaren jarraipena egiteko zer tresna erabiliko dut? ○ Zer konpromiso hartu behar ditugu lana aurrera eramateko? Bakoitzak zer konpromiso hartuko ditu? ○ Konpromisoen jarraipena nola egingo dut? ○ ... 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Taldearen kohesioa lortzeko zer egingo dut? ○ Zer egingo dut taldean lanerako atsegina eta emankorra den giroa sortzeko? Zertaz baliatuko naiz? Zer egingo dut? ○ Nola egingo dut errespetuzko giroa eta elkarri entzuteko giroa sortzeko? Zer egingo dut? ○ Zer egingo dut denok inplikatur eta norabide berean lan egiteko? Zertaz baliatuko naiz? ○ Zer egingo dut besteen ahots eta iritziak jaso eta adostasunetara heltzeko? Nola egingo dut? ○ Zer egingo dut erantzukizun eta parte hartze aktiboa eta orekatua emateko? ○ Nire komunikazioa zer-nolako izango da taldean lan giro emankor eta atsegina sortzeko? Zertan saiatuko naiz? ○ ... 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Nola egingo dut denon ahotsa entzun eta kontuan hartzeko? ○ Nola lortuko dut norbanakoaren inplikazioa? ○ Zer egin gutxiago parte hartzen duen horrekin? Zer saiakera egingo dut? ○ Nola banatuko ditut edo nola antolatuko ditugu rola? Egin beharrekoak? Nola egingo dut haien jarraipena? ○ Nola bermatuko dut errespetua kide bakoitzarekiko? ○ Nola emango diet onespina bakoitzaren ekarpeni/jarrerari...? ○ Nola egingo dut bakoitzak bere gaitasunetatik ahal duen onena eman dezan? ○ Nola sentiarazi garrantzitsua dela norbera taldearentzat? ○ ...
EGINDAKOA	Zutabe honetako aurreko galderari erantzun nahian, egindakoaren inguruko deskribapen orokorra .	Zutabe honetako aurreko galderari erantzun nahian, egindakoaren inguruko deskribapen orokorra .	Zutabe honetako aurreko galderari erantzun nahian, egindakoaren inguruko deskribapen orokorra .
ONDORIOAK	Egindakoren ondorioak: lan sistematikan, planifikatutakoan, denboraren kudeaketan, lanaren kalitatean...	Egindakoaren ondorioak: taldearen konpromiso mailan, inplikazioan, giroan...	Egindakoaren ondorioak: kideengan, bakoitzaren talde harremanetan, bere konpromisoan...
HAUSNARKETA	Ondorioen analisi hausnartua : zergatik gertatu ote da?	Ondorioen analisi hausnartua : zergatik gertatu ote da?	Ondorioen analisi hausnartua : zergatik gertatu ote da?

HOBKUNTZAK HELBUURAK lehen urratsera)	ETA (berriro	Indarguneen eta hobekuntza arloen identifikazioa; hurrengo urratserako asmo eta helburuak	Indarguneen eta hobekuntza arloen identifikazioa; hurrengo urratserako asmo eta helburuak
--	-------------------------	---	---

2. ERANSKINA: *Sekuentzia didaktikoaren analisirako eta hobekuntza ildoak identifikatzeko gida*

Dokumentu honetan, planifikatzen ari garen sekuentzien analisia egiteko zenbait irizpide jasotzen dira; betiere, kontuan hartuta, batetik, eskola komunitatea eraikitzen eta garatzen ari den HEZKUNTZA IKUSPEGI bati erantzun nahian sortzen direla, eta, bestetik, ikuspegi horretan, IKASKIDETZAREN oinarritzko printzipioak direla nolabaiteko ardatza.

Horregatik, aholkularitza prozesu honetan orain arte jaso eta landu ditugun printzipioak ekarri beharko genituzke gogora analisirako, aztertze nola ari garen kontuan hartzen printzipio horiek sekuentziaren atal eta garapen fase guztietan. Haien arabera dago gida antolatuta; alegia, sekuentziaren hezurduran identifikatutako atal-dimentsio horien guztien arabera.

ATALA/ DIMENTSIOA	KARAKTERIZAZIOA: dimentsio bakoitza ulertzeko modua	ANALISIRAKO IRIZPIDEAK: karakterizazioan oinarritutako irizpideak/galderak	ANALISIAREN EMAITZAK: eginikoaren potentzialtasuna eta hobetzekoak
ERRONKA	Ikastea mundua eta gure bizimodua ulertzeko ezartzen ditugun erronkak gainditzea da, gutaz eta munduaz gauzak deskubritzea. Errealitatea ulertzea eta errealitatean parte hartzeaz ari gara ikastea zer den pentsatzean. Beraz, guk proposatzen ditugun erronkek erabilgarria edo errealak den zerbaitera iristeko ikaste testuinguruak sustatu beharko lituzkete. Erronkak, beraz, fenomeno/gertakari/arazo errealak ulertzeko eta haietan eragiteko proposatzen ditugu, eta haien guztiak azaltzeko/interpretatzeko baliagarriak izan daitezkeen eta zenbait formatutan eraikiko ditugun «azalpen-ereduak» (erakusketa bat, tramankulu bat, testu bat, jolas bat, irratsaio bat, antzerki bat...)	Erronka (edo erronkak): -Haur taldearen interes, nahi, desioei erantzuteko aukerak eskaintzen ditu. -Errealitate hurbileko gertakari/fenomeno/arazo bat ulertzeko/interpretatzeko balio du. -Hari loturiko azken «ekoizpena» gertakari/fenomeno/arazoa azaltzeko eta interpretatzeko egokia da. -Egingarria da aurreikusitako denboran.	

ATALA/ DIMENTSIONA	KARAKTERIZAZIOA: dimentsio bakoitza ulertzeko modua	ANALISIRAKO IRIZPIDEAK: karakterizazioan oinarritutako irizpideak/galderak	ANALISIAREN EMAITZAK: eginikoaren potentzialtasuna eta hobetzekoak
	<p>eskaten dituzte.</p> <p>Erronka horien bitartez, eta eraikiko ditugun «azalpen-eredu» horiekin, ikaste testuinguru funtzionalak eta konplexuak sortu eta bultzatu nahi dira, edukiak errealitatean dauden forma horretan gelaratu, ez era isolatuan.</p>	<p>-Bere konplexutasun osoan hartzen da aintzat, eta, era berean, haurren gaitasunei begira, egingarria da.</p>	
OINARRIZKO KONPETENTZIA K	<p>-Ikaste testuinguru horiek konpetentzien markora garamatzate. Izan ere, konpetentziak (oinarrizkoak zein orokorrak) bere barnean hartzen ditu alde aurretik irudikatutako erronkari erantzuteko modu integratuan martxan jartzen eta garatzen ditugun gaitasunak eta ezagutzak (kognitiboak, emozionalak, motorrak, sozialak..). Mundua eta gu geu ulertzeko behar ditugun gaitasun askotarikoak.</p> <p>Curriculumean, oinarrizkoak eta orokorrak bereizten dira. Oinarrizkoak modu honetara jasotzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza eta komunikaziorako konpetentzia • Matematikarako konpetentzia • Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin interakzioan aritzeko konpetentzia • Informazioa lantzea eta konpetentzia digitala • Gizarte eta herritar konpetentzia • Kulturarako eta arterako konpetentzia 	<p>Sekuentzian jasotako oinarrizko konpetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - erronkari erantzuteko behar diren gaitasun gakoak jasotzen dituzte, - azaltzen dute nola aurreikusten den gaitasun horiek lantzea, - zer mailatan landu nahi diren jasotzen dute, - dimentsio bat baino gehiago integratzeko jitea edo intentzioa adierazten dute. 	

ATALA/ DIMENTSIONA	KARAKTERIZAZIOA: dimentsio bakoitza ulertzeko modua	ANALISIRAKO IRIZPIDEAK: karakterizazioan oinarritutako irizpideak/galderak	ANALISIAREN EMAITZAK: eginikoaren potentzialtasuna eta hobetzekoak
	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasten ikasteko konpetentzia • Autonomia eta inizatiba soziala 		
KONPETENTZIA OROKORRAK	<p>IKASKIDeko oinarritzko printzipioek konpetentzia orokorrekin bat egiten dute (<i>entsatzen eta ikasten ikasi, komunikatzen ikasi, norbera izaten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi eta egiten eta ekiten ikasi</i>), gure ikuspegiaren arabera. Izan ere, IKASKIDETZAN aritzeak IKASTE TESTUINGURU egokiak eskaintzen ditu dimentsio horiei erantzuteko, honako printzipio hauek sustatuz gero:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Helburu komuna: talde izaera/identitatea, kideen arteko kohesioa, lortu beharreko helburuen identifikazioa... • Elkarrekiko mendekotasun gehiago: rolen banaketa eta kudeaketa, zereginen banaketa eta kudeaketa, lanaren kudeaketa, laguntzaren kudeaketa, denboralizazioaren kudeaketa... • Norbanakoaren erantzukizuna: konpromisoen betetze maila, rolen betetze maila, eduki/ezagutzaren garapena... • Aurrez aurreko komunikazioa: entzutea, norberaren nahiak/beharrak adieraztea, gatazkak konpontzea... <p>Konpetentzien lanketari denbora eta tarte erreala eskaini behar diogu gelan, haren garapenez hitz egin eta hobetzeko aukerak identifikatzeko, hau da, KONTZIENTEKI lantzeko aukera izateko.</p>	<p>Sekuentzian jasotako konpetentzi orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -IKASKIDETZA printzipio batzuei erantzuteko behar diren gaitasun gakoak jasotzen dituzte, -azaltzen dute nola aurreikusten den gaitasun horiek lantzea, hau da, denbora eta tarte erreala aurreikusten dituzte lanketarako, -zer mailatan landu nahi diren ere jasotzen dute, -dimentsio bat baino gehiago integratzeko jitea edo intentzioa adierazten dute. 	

ATALA/ DIMENTSIONA	KARAKTERIZAZIOA: dimentsio bakoitza ulertzeko modua	ANALISIRAKO IRIZPIDEAK: karakterizazioan oinarritutako irizpideak/galderak	ANALISIAREN EMAITZAK: eginikoaren potentzialtasuna eta hobetzekoak
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	-Konpetentzia espezifikoek jakintza-arloari egiten diote erreferentzia; alegia, erronkaren bitartez garatu nahiko genituzkeen jakintza arloei loturiko gaitasun eta eduki espezifikotasunei erantzunez. Oinarritzko konpetentziei lotuta ere uler daitezke, ikuspegi globala eta disziplinarterkoa sustatze aldera.	Sekuentzian jasotako konpetentzia espezifikoak: -Erronkari erantzuteko behar diren jakintza arloetako gaitasun gakoak identifikatu eta jasotzen dituzte.	
IKASTE EMAITZAK	Erronkan irudikatu dugun azalpen ereduak edota azken «ekoizpen» horrek izan beharko lituzkeen bikaintasun adierazletzat hartzen ditugu ikaste emaitzak. Hau da, ahalik eta modu objektiboenean ezar daitezkeen irizpideak erronka modu kuantitatiboan (eta kualitatiboan ere) baloratu ahal izateko. Ikaste emaitzak, gainera, partekatuak izatea ikusten dugu: alegia, haur guztiek ezagutu eta ulertu beharko lituzketen irizpide modura ulertzen ditugu emaitzak. Talde osoaren eta norbanakoaren asmo eta lorpen partekatu zein barneratu gisa . Izan ere, ikaste emaitzen zehaztapena norberaren eta taldearen autorregulaziorako tresna bilakatu nahi da.	Ikaste emaitzak: -argi eta garbi jasotzen dute azken ekoizpenaren kalitate irizpideak zein izango diren, -erronkak eskatzen dituen bikaintasun adierazleekin bat egiten dute, -neurgarriak dira, -partekatuak izateko asmoz zehaztuak.	
METODOLOGIA	Printzipioz, IKASKIDETZA parametroetan edota printzipio horiei begira erabil daitezkeen estrategia didaktiko-metodologikoak hartzen ditugu kontuan atal honetan: ikaskidetza teknikak, lan proposamenak, proiektutxoak, kasuak, simulazioak, esperimendazioa, landa lanak, irteerak... Hala ere, metodologiaren zentzua zabalduz, mundua eta gu geu ulertzeko sustatuko ditugun etengabeko arakatze prozesuen	-Pertsonen arteko harreman positiboak eraikitzeko estrategiak hartzen dira kontuan prozesuan zehar. -Giro aproposa, erakargarria eta erlaxatua sortzeko baliagarriak diren estrategiak hartzen dira kontuan prozesuan zehar. -Sekuentzian erabilitako estrategia didaktiko-	

ATALA/ DIMENTSIOA	KARAKTERIZAZIOA: dimentsio bakoitza ulertzeko modua	ANALISIRAKO IRIZPIDEAK: karakterizazioan oinarritutako irizpideak/galderak	ANALISIAREN EMAITZAK: eginikoaren potentzialtasuna eta hobetzekoak
	<p>barruan kokatuta ikusten ditugu estrategia didaktiko-metodologiko horiek.</p> <p>Funtsezkoa da, bestalde, taldeak garatze eta egonkortzealdi edo fase askotatik igarotzea. Ikuspegi horrek berebiziko garrantzia du estrategia didaktiko-metodologikoak diseinatzean. Talde bat eraikitzen den lehen momentuan, elkar ezagutzeko jartzen da atentzio nagusia, besteen aurrean norbera nor den, nola jarri harremanetan... Partaide guztien burutik pasatzen diren gaiak dira. HARREMAN hori eraikitzekeko lagungarri diren faktoreak txertatzen ditugu, pertsonak ondo egon eta, era berean, talde identitatea eta kohesioa garatzeko, MODU PROGRESIBOAN.</p> <p>Alde horretatik, ezinbestekotzat jotzen dugu taldearen harremana mantentzeko eta arazoak ekiditeko lagungarri diren estrategiak txertatzea.</p>	<p>metodologikoak erronkaren eta konpetentzien lanketaren beharrei erantzuteko aukeratzen dira.</p> <p>-Sekuentziak kontuan hartzen ditu IKASKIDETZA printzipioei erantzuteko kooperazio teknikak.</p> <p>-Trebetasun sozialak lantzeko jarduerak aurreikusten dira.</p>	
EBALUAZIOA	<p>Ebaluazioak, orain arte esandakoekin bat eginez, honako ezaugarri hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> -izaera formatiboa du, -etengabeko autorregulazioan oinarritzen da, -haurren garapenaren eta ikaste prozesuaren erregulazioari begira dago jarrita, -Hiru une aurreikusten ditu ebaluazioak: 	<p>-Sekuentzian zehar txertatzen dira jarduerak, haurrek lantzen ari garen gaiari buruz dituzten ezagutzak/ikusmoldeak/ikuskerak jasotzeko eta aztertzeko.</p> <p>-Haurren ezagutzak/ikusmoldeak/ikuskerak taldean aztertzeko jarduerak aurreikusten dira.</p> <p>-Sekuentziaren planifikazioa eta garapena prozesuan zehar erregulatzeko jarduerak aurreikusten dira.</p> <p>-Sekuentzian zehar, jarduerak aurreikusten dira haurren</p>	

ATALA/ DIMENTSIONA	KARAKTERIZAZIOA: dimentsio bakoitza ulertzeko modua	ANALISIRAKO IRIZPIDEAK: karakterizazioan oinarritutako irizpideak/galderak	ANALISIAREN EMAITZAK: eginikoaren potentzialtasuna eta hobetzekoak
	<ul style="list-style-type: none"> • Diseinu aldiko erregulazioa: irakasleek egingo dutena (diseinua analizatzeko irizpideak). • Gelaratze aldiko erregulazioa: haurrek (konpetentzien eta edukien garapen prozesuan, autobehaketa eta autorregulazio tresnekin) eta irakasleek egingo dutena (planifikazioa, gelaratzea, haurren garapen adierazleak, taldea). • Aplikatu ondorengo erregulazioa: haurrek (prozesua eta helburuak) eta irakasleek (haur bakoitzaren garapen adierazleak, prozesua, helburuak betetzea eta printzipioak bermatzea) egingo dutena. <p>Era askotako autobehaketa eta autorregulazio tresnak eta moduak erabiliz: gelako jarduerak/atazak, errubrikak, kontrol zerrendak, galdetegiak, simulazioak, egunerokoak, lan-kontratuak...</p>	garapen maila aztertzeke.	
URRATSAK (saioak aurreikusten)	Erronkari erantzuteke edo hura eraikitzeke aurreikusten ditugun ekintza eta jarduera nagusiak/orokorrak dira. Erronka prozesu baten emaitza gisa irudikatzen dugu, eta prozesu horretan aurreikusten ditugun ikaste une sekuentziatu modura ulertzen ditugu urratsak. Erronka eraikitzeke komenigarritzat, egokitzeke eta, beharbada, funtsezkotzat jotzen ditugun ekintza multzoak dira.	<p>-Urratsen sekuentziak laguntzen digu irudikatzen erronka gauzatzeko egin daitezkeen (edo daitezkeen) bidea (edo bideak), ikaste prozesua (edo ikaste prozesuak).</p> <p>-Urratsak aurreikustea lagungarria zaigu sekuentziaren faseetako jarduerak diseinatzeke.</p>	
HURBILPEN FASEA	Lehen fase honetan aurreikusten dira, bereziki, erronka irudikatzeke eta TALDEAren eraikitzea eta harremanak gidatuko dituzten arauak adosteko jarduera baliagarriak. Era berean, haurren	<p>-Kontuan hartzen dira erronka ulertzeko/irudikatzeke jarduerak.</p> <p>-Kontuan hartzen dira erronka TALDEAren asmo bihurtzeke</p>	

ATALA/ DIMENTSIONA	KARAKTERIZAZIOA: dimentsio bakoitza ulertzeko modua	ANALISIRAKO IRIZPIDEAK: karakterizazioan oinarritutako irizpideak/galderak	ANALISIAREN EMAITZAK: eginikoaren potentzialtasuna eta hobetzekoak
	<p>motibazioa pizteko, beren ezagutzak eta ikuskerak arakatzeko, eta erronkari erantzunez bizi izango dugun prozesua irudikatzen jarduerak aurreikusi behar dira. Ebaluazioaren atalean aipatu den bezala, prozesua bera erregulatzeko jarduerak ere hartuko ditugu kontuan hurbilpen fase honetan, aurreikusitako plangintzan egokitzapenak egiteko aukerak zabaldu eta aprobetxatzeko. Alde horretatik, hasierako fasean egingo diren arakatzeko lanak funtsezkoak dira prozesuaren abiapuntua zein izango den erabakitzeke, aurreikuspenak berraztertzen baitira.</p>	<p>jarduerak.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Kontuan hartzen dira «azken ekoizpen»aren (azalpen ereduaren) zentzua, asmoak eta ikaste emaitzak partekatzen jarduerak. -Haurren hasierako ezagutzak eta gaitasunak arakatzeko jarduerak zehazten dira. -Taldeen harremana garatzeko lagungarri diren jarduerak txertatzen dira. 	
GARAPEN FASEA	<p>Bigarren fasea, berriz, erronkaren munitate erantzuteko aurreikusten diren eta prozesua erregulatzeko ondorioz sor daitezkeen jarduerak atazek osatzen dute. Prozesua bera erregulatzeko eta haurren garapena aztertzen jarduerak txertatzen dira, plangintzan egin beharreko egokitzapenak identifikatu eta gauzatzeko. Taldeen identitatean eta harremanak eraikitzen prozesuan eragin nahian, giza trebetasunak lantzeko jarduerak ere txertatzen dira. Prozesuan zehar zailtasunak adierazten dituztenei laguntzeko estrategiak ere aurreikusiko dira fase giltzarri honetan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Prozesuan zehar landu nahi diren gaien inguruan haurrek dituzten ezagutzak eta gaitasunak arakatzeko jarduerak txertatzen dira. -Prozesuaren bilakaera erregulatzeko jarduerak aurreikusten dira. -Identifikatutako zailtasunei aurre egiteko jarduerak proposatzen dira. -Zailtasunak dituzten haurrei begirako jarduerak proposatzen dira. -IKASKIDETZAN aritzeko taldekatzeak eta giza trebetasunak lantzeko jarduerak aurreikusten dira. 	
APLIKAZIO FASEA	<p>Erronkari erantzun ahala eraiki den azalpen eredu amaitu, eta</p>	<p>-Eginiko ibilbidearen kontakizuna/narrazioa egiteko</p>	

ATALA/ DIMENTSIOA	KARAKTERIZAZIOA: dimentsio bakoitza ulertzeko modua	ANALISIRAKO IRIZPIDEAK: karakterizazioan oinarritutako irizpideak/galderak	ANALISIAREN EMAITZAK: eginikoaren potentzialtasuna eta hobetzekoak
	<p>hura sozializatzeko jarduera multzoa da aplikazio fasekoa.</p> <p>Prozesuan zehar landu eta bizi izandakoaren inguruan irakurketa egiteko unea da.</p>	<p>jarduerak aurreikusten dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Eraikitako azalpen eredu baloratzeko ikaste emaitzak erabiltzen dira. -Taldean izandako bizipenen gaineko irakurketa (autoebaluazioa) egiteko jarduerak aurreikusten dira. -Ikaste prozesuaren balorazioa egiten da, ezarritako irizpide batzuen arabera. -Ikaste emaitzak lortu ez dituztenei laguntzeko jarduerak proposatzen dira, emaitza horiek lor ditzaten. 	

3. ERANSKINA: Saioaren ebaluaziorako txantiloia

SAIOAREN EBALUAZIOA

<i>Nire parte hartzea</i>
<i>Landutako edukien kalitatea</i>
<i>Erabilitako dinamika</i>
<i>Sortu zaizkidan zalantzak</i>
<i>Saioaren egokitasuna</i>
<i>Balorazio orokorra</i>
<i>Hobekuntza proposamena</i>

